



GIZARTE ETA
KULTURA
ZERBITZUAK

Oinarrizko Curriculum Diseinua
**HAUR HEZKUNTZAKO
GOI-MAILAKO
TEKNIKARIA**



koalifikazioen eta
lanbide heziketaren
euskal institutua

Instituto vasco de
cualificaciones y
formación profesional



1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA	4. or.
2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA	4. or.
2.1 Konpetentzia orokorra	
2.2 Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda	
2.3 Lanbide-ingurunea	
3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASKUNTZAK	5. or.
3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak	
3.2 Lanbide-moduluaren zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa	
3.3. Lanbide-moduluak	
1. Haur-hezkuntzaren didaktika	
2. Haurraren autonomia pertsonala eta osasuna	
3. Haur-jolasa eta bere metodologia	
4. Adierazpena eta komunikazioa	
5. Garapen kognitiboa eta motorra	
6. Garapen sozioafektiboa	
7. Gizarte-trebetasunak	
8. Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea	
9. Haurrei arreta eskaintzeko proiektua	
10. Lehen laguntzak	
11. Ingeles teknikoa	
12. Laneko prestakuntza eta orientabidea	
13. Enpresa eta ekimen sortzailea	
14. Lantokiko prestakuntza	
4. GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK	114. or.
4.1 Espazioak	
4.2 Ekipamenduak	
5. IRAKASLEAK	114. or.
5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan	
6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK	116. or.
7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZAGARRITASUN ETA EGOKITASUN LOTURAK	116. or.
7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko	
7.2 Lanbide-moduluaren egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko	



1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikari-titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Haur-hezkuntza
- Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa
- Iraupena: 2.000 ordu
- Lanbide-arloa: Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
- Kodea: INSN-5b (Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua)

2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA

2.1 Konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra honetan datza: Haur Hezkuntzako lehen zikloan (esparru formalean) eta etapa osoan (esparru ez-formalean), haurrentzako arretarako heziketa-proiektuak eta -programak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzea, Haur Hezkuntzako espezializazioa edo horren pareko titulua izango duen irakasle batek prestatutako proposamen pedagogikoaren arabera; eta ingurune seguruak sortzea, bestelako profesionalekin eta familiekin lankidetzan.

2.2 Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

Osatutako lanbide-kualifikazioak:

- a. Haur Hezkuntza. SSC322_3 (urriaren 19ko 1368/2007 Errege Dekretua).
Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
 - UC1027_3: Hezkuntza-komunitatearekin harreman arinak ezartzea eta harreman horiei eustea, eta familiekin, hezitzaile-taldearekin eta bestelako profesionalekin koordinatzea.
 - UC1028_3: Ikastetxerako eta haur-taldeentzako hezkuntzako esku-hartze prozesuak programatu, antolatu eta ebaluatzea.
 - UC1029_3: Autonomian eta osasunean ohiturak hartzeko eta trebatzeko programak, arrisku-egoeretan esku hartzeko beste programa batzuk garatzea.
 - UC1030_3: Haurren jardueraren eta garapenaren ardatz gisa, jolas-egoerak sustatu eta abian jartzea.
 - UC1031_3: Hazkunde pertsonalerako eta profesionalerako bitarteko gisa, haurren adierazpen- eta komunikazio-baliabideak garatzea.
 - UC1032_3: Objektuak ukituta, eta haurren arteko eta helduekiko harremanen bidez ingurunea miatzea errazten duten ekintzak garatzea.
 - UC1033_3: Ikaskuntzak zehaztu, sekuentziatu eta ebaluatzea, eta zero eta sei urte bitarteko haurren garapenaren testuinguruan interpretatzea.



2.3 Lanbide-ingurunea

Lanbide-irudi honek hezkuntza formalaren eta ez-formalaren sektorean egiten du lan, haurrentzako arretarako gizarte-zerbitzuen sektorean.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur-hezitzailea. Betiere, maisu edo maistra batek gainbegiratuta jardungo du, Estatuko, autonomia-erkidegoko nahiz tokiko erakundeen mendeko instituzioetako edota titulartasun pribatuko ikastetxeetako hezitzaile gisa.
- Arrisku sozialean dauden adingabeekin (0-6 urte) edo familiei laguntzen (beste profesional batzuen jarraibideak beteta) lan egiteko berariazko erakundeetako eta/edo programetako hezitzailea.
- 0 eta 6 urte bitarteko adingabeekin aisia eta denbora libreko programa edo jardueretako hezitzailea: ludotekak, kultura-etxeak, liburutegiak, ikastetxeak, aisiaguneak, landetxe eskolak, etab.

3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASKUNTZAK

3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

1. Programazioaren elementuak identifikatu eta zehaztea, eta horiek taldearen eta testuinguruaren ezaugarriekin lotzea, haurrei zuzendutako hezkuntzako esku-hartzea eta arreta soziala programatzearen.
2. Baliabide didaktikoak identifikatu eta hautatzea, eta horien ezaugarriak eta aplikazioak deskribatzea, jardueraren eta hartzaillearen arabera horiek antolatzearen.
3. Baliabide eta estrategia metodologikoak hautatu eta aplikatzea, eta, dagokion testuinguruan, haiek haurren ezaugarriekin lotzea, jarduera programatuak egitearren.
4. Komunikatzeko eta parte hartzeko dinamikak hautatu eta aplikatzea, testuinguruaren aldagaiak aztertuta eta familiekin esku hartzeko ezarritako prozedurari jarraituz.
5. Beste profesional edo zerbitzu batzuen parte-hartzea eskatzen duten haurren eta familien beharrak identifikatzea, eta diagnostikorako eta jardunerako baliabideak zehaztea, horrela, erantzun egokia ematearren.
6. Ebaluazioko teknikak eta tresnak hautatu eta aplikatzea, horiek aldagai garrantzitsuekin lotzea eta emaitzak esku hartzeko prozesuan ezarritako estandarrarekin alderatzea.
7. Informazioa emateko estrategiak hautatu eta aplikatzea, eta irakatsi beharreko edukiekin, horien xedearekin eta hartzailleekin lotzea, zerbitzuaren kalitatea hobetzearen.
8. Bizitza osoan ikasteko baliabideak eta estrategiak antzematea, eta horiek dagokion lanbide-kompetentziaren alderdiekin lotzea, ezagupen zientifikoak eta teknikoak eguneratuta mantentzearen.
9. Erakundearen helburuetan egiten duen ekarpena identifikatu eta ebaluatzea, eta bere lanbide-jardura helburu horiek lortzeari dagokionez baloratzea.
10. Talde-lanaren ezaugarriak identifikatzea eta horien garrantzia baloratzea, hezkuntza-jarduna hobetzearen, eta esku-hartze planifikatua, koherentea eta partekatua lortzearen.
11. Talde-dinamikak eta lan-taldean komunikatzeko teknikak aplikatzea, eta informazioa eta esperientziak trukatzeko, proiektuan koherentzia erraztearen.

12. Esku hartzeko espazioak eta materialak aztertzea, eta arriskuen prebentzioaren eta segurtasunaren arloan indarrean dagoen legeriari dagokionez egunean jartzea, haurren osasuna eta segurtasuna zaintzearen.
13. Ikasi eta enplegatzeako aukerak identifikatu eta baloratzea, lan-merkatuko eskaintzak eta eskaerak aztertuta, enplegatzeako aukerak hobetzearen.
14. Gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak onartzea, herritartasun demokratikoan jardutearren.
15. Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea, lan-jardueran larrialdietako eta osasunerako arriskuko egoerei erantzuteko ezarritako protokoloak erabilia.



3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa:

LANBIDE MODULUA	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0011. Haur-hezkuntzaren didaktika	200	2.a
0012. Haurraren autonomia pertsonala eta osasuna	198	1.a
0013. Haur-jolasa eta bere metodologia	140	2.a
0014. Adierazpena eta komunikazioa	198	1.a
0015. Garapen kognitiboa eta motorra	198	1.a
0016. Garapen sozioafektiboa	165	1.a
0017. Gizarte-trebetasunak	132	1.a
0018. Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea	100	2.a
0019. Haurrei arreta eskaintzeko proiektua	50	2.a
0020. Lehen laguntzak	60	2.a
E200. Ingeles teknikoa	40	2.a
0021. Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1.a
0022. Enpresa eta ekimen sortzailea	60	2.a
0023. Lantokiko prestakuntza	360	2.a
Zikloa guztira	2.000	

3.3 Lanbide-moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak

1. lanbide-modulua

HAUR HEZKUNTZAREN DIDAKTIKA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Haur-hezkuntzaren didaktika
Kodea:	0011
Heziketa-zikloa:	Haur-hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizartearentzako zerbitzuak
Iraupena:	200 ordu
Kurtoa:	2.a
Kreditu kop.:	14
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte esku-hartzea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1028_3: Ikastetxerako eta haur-taldeentzako hezkuntzako esku-hartze prozesuak programatu, antolatu eta ebaluatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 6.a / 7.a / 9.a / 12.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Hezkuntzako esku-hartzea testuinguruan jartzen du, eta hura lege-esparruarekin eta erakundearen helburuekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Esku hartzeko erabilgarria den ingurune sozialari, ekonomikoari eta kulturalari buruzko informazioa identifikatu du.
- Haurrei arreta eskaintzeko hezkuntza-zerbitzuari buruz autonomia-erkidegoan, Estatuan eta European Indarrean dagoen legeria aztertu du.
- Gaur egun dauden hezkuntza formaleko eta ez-formaleko ikastetxeen eta programen motak alderatu ditu.
- Haur-eskola baten ezaugarriak, helburuak, antolamendua eta funtzionamendu mota zehaztu ditu.
- Hezkuntza ez-formaleko erakunde baten ezaugarriak, helburuak, antolamendua eta funtzionamendu mota deskribatu ditu.
- Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikariaren lanbide-jarduera baloratu du hezkuntzako esku-hartzearen testuinguruan.
- Teknologia berriak informazio-iturri gisa erabili ditu eta haien erabilera baloratu du.
- Lanbidearen egoera berrien aurrean ekimena eta prestasuna erakutsi ditu.

2. Hezkuntzako esku-hartzearen helburuak zehazten ditu, eta horiek plangintza-mailekin, esku-hartzearen elementuekin eta aipatutako helburuak finkatzeko irizpideekin lotzen ditu esparru formaletan eta ez-formaletan.

Ebaluazio-irizpideak

- Curriculum baten elementuak identifikatu ditu.
- Hezkuntzako esku-hartze ez-formaleko proiektu baten elementuak identifikatu ditu.



- c) Haur Hezkuntzako curriculumaren elementuak aztertu ditu.
- d) Haur Hezkuntzako curriculumak euskarri dituen oinarriak deskribatu ditu.
- e) Curriculum-zehazpenaren mailak identifikatu ditu.
- f) Hezkuntza ez-formaleko jarduera baten plangintza-mailak identifikatu ditu: plana, programa eta proiektua.
- g) Esparru formalean eta ez-formalean, zenbait motatako erakundeen plangintza-dokumentuak alderatu ditu.
- h) Curriculum-esparrutik edota planetik edo programatik abiatuta, helburuak eta edukiak, eta haurren ezaugarriak hautatu ditu, haien banakako gaitasunak lortzeko.
- i) Hezkuntzako esku-hartze prozesuan plangintzak duen garrantzia baloratu du.

3. Eredu psikopedagogikoen arabera aplikatu beharreko estrategia metodologikoak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Haur Hezkuntzako berariazko eredu didaktikoak identifikatu ditu.
- b) Hurrei arreta eskaintzeko ereduaren oinarri diren printzipioak interpretatu ditu.
- c) Haur Hezkuntzako hezkuntza ez-formalari dagokionez, eredu berrienen oinarri diren printzipio psikopedagogikoak aztertu ditu.
- d) Hezkuntzako esku-hartzea bera zehazteko hezkuntza-esperientzia garrantzitsuak alderatu ditu.
- e) Unitate didaktikoak egitean zeharkako gaiak sartu ditu.
- f) Irizpide metodologikoak hautatzean, erakundearen helburuak, curriculum-esparrua, eta haurren beharrak eta interesak kontuan hartu ditu.
- g) Curriculum-egokitzapenak diseinatzean, inplikaturako erakundearen edo profesionalen gomendioak, eta lortutako informazioa kontuan hartu ditu.
- h) Talde-jardueretan parte hartzea, iritzirik aldatzea eta esperientziak trukatea baloratu du.

4. Haurtzaroko hezkuntzako parte-hartzean baliabide materialak eta pertsonalak, eta espazioak eta denborak zehaztu eta antolatzen ditu. Horretarako, legezko araudia aztertzen du eta irizpide pedagogikoak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hezkuntzako parte-hartzearen arabera, material didaktikoak, espazioak eta denborak identifikatu ditu.
- b) Estatuko eta autonomia-erkidegoko esparruaren arabera, hezkuntza formalean eta ez-formalean espazioak, baliabideak eta denborak erabiltzeari buruzko araudia deskribatu du.
- c) Baliabide didaktiko gisa denboraren eta espazioaren antolamendua zehaztu du.
- d) Zereginak antolatzearen beharra onartu eta baloratu du.
- e) Parte-hartzaileen, adinaren, metodologiaren eta aurreikusitako programazioaren arabera aztertu ditu taldekatzeko ereduak.
- f) Espazio eta material didaktikoak, eta altzariak aztertu ditu, eta segurtasun- eta higiene-arauak, eta irisgarritasun-baldintzak egiaztatu ditu.
- g) Helburu, eduki eta irizpide metodologikoetarako material didaktiko eta didaktiko elkarreragile egokiak hautatu ditu.
- h) Espazioak, materialak, giza baliabideak eta denborak ezartzeko, haurren kopurua eta adina, eta, beharrezkoa izan denean, hezkuntza-behar bereziak kontuan hartu ditu.
- i) Ingurune seguruak sortzearen garrantziaz arduratu da.

5. Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko jarduerak planifikatzen ditu, eta horiek programazioaren helburuekin eta haurren ezaugarriekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak helburuekin, edukiekin, metodologiarekin eta haurren banakako beharrekina lotu ditu.
- b) Programatutako jardueretan zeharkako gaiak sartu ditu.
- c) Aniztasunarekiko arretaz aritzeko eta desberdintasun sozialak konpentsatzeko jarduerak diseinatu ditu.
- d) Litezkeen zailtasunak identifikatu ditu eta soluzio bideragarriak proposatu ditu.
- e) Talde hartzaileari hezkuntzaren aldetik laguntzeko behar berezien eta bakoitzaren ezaugarrien arabera egin ditu curriculum-egokitzapenak.
- f) Hezkuntza-behar berezi iraunkorren edo aldi baterakoaren suposizioetarako curriculum-egokitzapenak aztertu ditu.
- g) Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko jardueren plangintzan koherentzia baloratu du.

6. Esku hartzeko prozesuen ebaluazioa diseinatzen du, eta hautatutako ereduari, eta erabilitako estrategiei, teknikiei eta tresnei buruzko argudioak eman ditu.

Ebaluazio-irizpideak

- a) Ebaluazio-ereduak identifikatu ditu.
- b) Ebaluaziorako estrategiak eta teknikak zehazteko, esku-hartzearen plangintza eta uneak kontuan hartu ditu.
- c) Esku hartzeko prozesuaren une jakin batzuetan, ebaluaziorako estrategiak eta teknikak hautatu ditu.
- d) Ebaluazio-jarduerak diseinatzeko, hezkuntza formalaren kasuan, curriculum-esparruaren barruan, eta, hezkuntza ez-formalaren kasuan, planaren edo programaren barruan ezarritako irizpideak eta prozedurak kontuan hartu ditu.
- e) Esku hartzeko prozesuaren une jakin batzuetan ebaluazio-adierazleak ezarri ditu. Horietan, honako alderdi hauek baloratu ditu: helburu eta irizpide metodologikoen egokitzapena, edukien eta jardueren hautaketa eta sekuentziak, eta erabilitako espazioen eta materialen funtzionaltasuna.
- f) Prozesuaren une jakin batzuetan ebaluazioak duen garrantzia baloratu du.
- g) Zerbitzuaren eraginkortasuna eta kalitatea etengabe hobetzeko jarrera izatearen garrantzia baloratu du.
- h) Hezitzaileak etengabe prestatzeko baliabideak identifikatu ditu.

c) Oinarrizko edukiak

HEZKUNTZAKO ESKU HARTZEAREN TESTUINGURUA AZTERTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikariaren eginkizuna aztertzea. - Hezkuntza-jardunaren egoeretan lanbideak ezinbestekoak dituen kompetentziak, jarrerak eta printzipioak identifikatzea. - Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko erakundeak identifikatzea. - Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko erakundeen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzea. - Haurren arreta-zerbitzuen inguruan indarrean dagoen legeria aztertzea. - Haurren arretarako erakundeak aztertzea. - Egungo hezkuntza-ikuspegia ulertzen lagunduko diguten egileen eta joeren ibilbide historikoa egitea. - Egungo eredu pedagogikoak aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikariaren eginkizuna hezkuntzako



	<p>esku-hartzean. Definizioa. Oinarrizko kompetentziak eta printzipioak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haurren arretarako erakunde formalak eta ez-formalak. Motak. Ereduak. Eginkizunak. Ezaugarriak. - Haurren arreta-zerbitzuen inguruan, esparru formalean eta ez-formalean, indarrean dagoen legeria, Europan, Estatuan eta autonomia-erkidegoan. - Haurren eskubideak. Haurren eskubideak defendatzeko lan egiten duten erakundeak. - Haur-eskola. Ereduak. Eginkizunak. Ezaugarriak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bilakaeraren garapenean eredu gisa haur-hezitzailearen irudiak duen garrantziaren inguruan kontzientzia hartzea. - Konpromisoa hezkuntza-zereginarekiko. - Haurren eskubideak errespetatu eta babestea. - Egungo eta lehengo hezkuntza-esparruaren testuinguruarekiko interesa. - Ekimena eta prestasuna lanbidearen egoera berrien aurrean. - Teknologia berriak informazio-iturri gisa baloratzea. - Talde-lanaren garrantzia baloratzea.

HEZKUNTZAKO ESKU HARTZEA DISEINATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gure erkidegoko Haur Hezkuntzaren curriculumaz aztertzea. - Hezkuntza-proiektu baten eta curriculum-proiektu baten osagaiak aztertu eta identifikatzea. - IHP bat eta ICP bat prestatzea. - Erakunde formalen eta ez-formalen plangintzako dokumentuak elkarrekin alderatzea. - Esku-hartze ez-formaleko planak, programak eta proiektuak prestatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Curriculumaz. Motak eta osagaiak. - Haur Hezkuntzako curriculumaz. - Banakako zehazpen-mailak. - Esparru ez-formaleko esku-hartzearen plangintza-mailak: plana, programa eta proiektua.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esparru formalean eta ez-formalean haurren arreta planifikatzearen garrantzia baloratzea. - Talde-lanaren garrantzia baloratzea. - Planak, programak eta proiektuak egiteko sormena.

ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haur Hezkuntzako eredu berrienek euskarri dituzten printzipio pedagogikoak aztertzea. - 0 eta 6 urte bitarteko haurrekin izandako hezkuntza-esperientziak alderatzea. - Irizpide metodologikoak hautatzean, erakundearen helburuak, curriculum-esparrua, eta haurren beharrak eta interesak kontuan hartzea. - Unitate didaktikoak programatu eta prestatzea. - Curriculum-egokitzapenak diseinatzea.
----------------	---

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Irakatsi eta ikasteko prozesua definitzen duten ekarpen historikoak. - Haur Hezkuntzako berariazko eredu didaktikoak. - Programazioa 0-6 eta 6 urte bitarteko etapan. - Curriculum-egokitzapenak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Egungo hezkuntza-jarduna sorrarazi duten eredu didaktikoekiko interesa. - Programazioaren garrantziaz jabetzea. - Talde-jardueretan parte hartzea, iritziak alderatzea eta esperientzien trukea baloratzea. - Programazio didaktikoak egiteko sormena.

HEZKUNTZAKO ESKU HARTZEAN ESPAZIOAK, DENBORAK ETA BALIABIDEAK PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntzako esku-hartzearen plangintza kontuan izanda, material didaktikoak eta didaktiko elkarreragileak hautatzea. - Hezkuntzako esku-hartzearen plangintza kontuan izanda, espazioak, denborak eta baliabideak (materialak eta pertsonalak) esleitzea. - Parte-hartzaileen, adinaren, metodologiaren eta aurreikusitako programazioaren arabera aztertzea taldekatzeko ereduak. - Espazioak, material didaktikoak eta altzariak aztertzea, eta segurtasun- eta higiene-arauak, eta irisgarritasun-baldintzak egiaztatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Material didaktikoak, espazioak eta denborak. - Hezkuntza formalean eta ez-formalean horiek erabiltzeari buruzko araudia. - Haurren arretara zuzendutako espazioetako segurtasunari buruzko araudia. - Baliabide didaktikoak: espazioaren eta denboraren antolamendua. - Espazioetarako irisgarritasuna.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ingurune seguruak eta irisgarriak sortzearen inguruan sentsibilizatzea. - Ingurune seguruak eta irisgarriak sortzearen garrantzia baloratzea. - Eginkizun guztiak antolatzearen garrantzia baloratzea.

HEZKUNTZA FORMALEKO ETA EZ FORMALEKO JARDUEREN ABIARAZTEA ANTOLATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduerak helburuekin, edukiekin, metodologiarekin eta haurren banakako beharrekina lotzea. - Programatutako jardueretan zeharkako gaiak sartzea. - Aniztasunarekiko arretaz aritzeko eta desberdintasun sozialak konpentsatzeko jarduerak diseinatzea. - Litezkeen zailtasunak identifikatzea eta soluzio bideragarriak proposatzea. - Zeharkakotasunaren eta aniztasunaren inguruan izandako esperientziak biltzea. - Curriculum-egokitzapenak aztertu eta diseinatzea. - Jarduera formalak eta ez-formalak abiaraztea.
----------------	---

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haur Hezkuntzako jarduerak diseinatzea. - Zeharkakotasuna. - Aniztasun funtzionalak. Motak. - Aniztasunarekiko arreta.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizitzaren lehen urteetatik zeharkakotasunak duen garrantziaz jabetzea. - Haur Hezkuntzako ikasgelan topa ditzakegun aniztasun funtzionalak ezagutzeko interesa. - Jarduerak prestatzeko sormena. - Jarduera formalak eta ez-formalak abiaraztean koherentzia baloratzea. - Talde-lanaren eta ikastetxetik kanpoko agenteekin komunikatzearen garrantzia baloratzea.

ESKU HARTZEKO PROZESUAREN EBALUAZIOA DISEINATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio-tresnak identifikatu, hautatu eta prestatzea. - Esku-hartzearen une jakin batzuetan ebaluazio-adierazleak ezartzea. - Ebaluazio-prozesuetatik lortutako informazioa interpretatzea. - Hezkuntza-jarduera oro zuzendu behar duten kalitate-printzipioak identifikatzea eta hobetzeko proposamenak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazioa. Ereduak, teknikak eta tresnak. - Ebaluazio-adierazleak. - Behaketa, balio handiko tresna gisa. - Kalitatearen kudeaketa ikastetxeetan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntzako esku-hartzearen prozesuan une jakin batzuk ebaluatze beharra antzematea. - Autokritikarako eta autoebaluaziorako alde aurreko jarrera. - Etengabe eguneratu eta prestatzea. - Etengabe hobetzeko jarrerarekin, kalitatezko hezkuntza-zerbitzua eskaintzearen beharraz jabetzea. - Teknologia berriak informazio-iturri gisa erabil daitezzen baloratzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Lehendabiziko egunetan, ikasleak hautatutako lanbidearen inguruan kokatu beharko dira. Hezitzailearen irudiaren inguruko prestakuntza emango da, eta konpetentziak eta jardun-printzipioak nabarmenduko dira.

Gainera, lehen aldi honetan funtsezkoa da haurrei zuzendutako arretaren inguruko esparru teoriko zabalaren erreferentzia egitea: kontzeptuak, historia, teoriak, ereduak, erakundeak eta instituzioak, eskubideak...

Jarraian, komenigarria iruditzen zaigu ikastetxe baten antolamenduan zein dokumentu beharrezkoak diren zehaztea. Dokumentu horiek guztiak ikusiko dira eta ikasleek zuzenean erabiliko dituztenetan sakonduko da.

Ondoren, programazioari dagokionez, hezkuntza-jarduna gauzatzeko beharrezkoa den guztia ezagutuko da. Erreferentziak ezagutuko dira, programatuko da eta zenbait teknikaren bitartez trebakuntza landuko da. Eta, azkenean, prozesu osoa ebaluatuko da.

Honako sekuentziazioa proposatzen dugu:

- Hezitzailearen profila zehaztea. Hezkuntza-jarduna zuzentzen duten kompetentziak eta printzipioak
- Haurrentzako arretaren inguruko ibilbide zabala: historia, ereduak, erakundeak, instituzioak...
- ikastetxe baten antolamendu-dokumentuak.
- Programazioak planifikatu eta abiaraztea
- Ebaluazioa irakatsi eta ikasteko prozesuan.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, praktika eta teoria elkarrekin egongo dira etengabe. Gai guztien tratamenduan, ikasleen interesa eta ekimena sustatuko duten jarduerak barne hartuko dira.

Hasiera batean, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea aurkezpen erakargarri baten bidez (Power Point, kasuak...), hurbilenerako ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen partaidetza eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta lanbidearekin lotutako abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira: azalpenak, prentsa-albisteak erabiltzea, teknologia berrien bidez informazioa bilatzea...

Oroimenean gehiegi oinarritutako ikuspegia saihestuko da betiere, eta ikaskuntza esanguratsua bilatuko da. Prozedurazko eta jarrerazko edukien garrantzia azpimarratu behar da.

Azkenik, irakatsitakoa behar bezala barneratzeko, eskolak osatzearren, dagozkion gaiekin lotutako solasaldiak eta irteerak egingo dira: haur-eskolak, esparru formaleko eta ez-formaleko profesionalek emandakoak.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Hezitzailearen profila zehaztea. Hezkuntza-jarduna zuzentzen duten kompetentziak eta printzipioak:
 - Gaitasunen eta kompetentzien zerrenda egitea.
 - Agian, kode deontologiko bat egitea.
 - Kasuak eztabaidatzea.
- ✓ Haurrentzako arretaren esparru aztertzea: historia, ereduak, erakundeak, instituzioak...
 - Haur Hezkuntzaren historiari, eta horrekin lotutako teoriei eta egileei buruzko informazioa bilatzea.
 - Haurrentzako arretarako erakundeak eta instituzioak aztertzea.
 - Haurtzaroarekin lotutako albisteak biltzea eta horiei buruz aritzea: eskubideak, egungo gaiak.
 - Eredu pedagogiko interesgarrienei eta egun gehien erabiltzen direnei buruzko txosten bat prestatzea.



- ✓ ikastetxe baten antolamendu-dokumentuak aztertzea:
 - Ikastetxe baten antolamendu-dokumentuak biltzea.
 - Horiek manipulatu eta aztertzea.
 - Ezarritako eskemari jarraituz, horietako baten bat prestatzea.

- ✓ Programazioak planifikatu eta abiaraztea:
 - Haur Hezkuntzan erabiltzen diren programazioak eta jarduerak biltzea.
 - Programazioan trebatzea. Programazioak prestatzea, alderdi hauek ezarrita:
 - Titulua.
 - Helburuak.
 - Edukiak.
 - Metodologia.
 - Jarduerak.
 - Ebaluazioa.
 - Orientabide didaktikoak.
 - Banakako curriculum-egokitzapenak aztertzea.

- ✓ Ebaluazioa irakatsi eta ikasteko prozesuan:
 - Ebaluazio-prozesuan trebatzea.
 - Haur Hezkuntzako metodoak, teknikak eta tresnak biltzea.
 - Eguneroko jardunerako erabilgarrienak hautatzea.
 - Ebaluazioa errealitate zehatzetara egokitzea.
 - Ebaluazio-tresnak prestatzea.

2. lanbide-modulua

HAURRAREN AUTONOMIA PERTSONALA ETA OSASUNA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Haurraren autonomia pertsonala eta osasuna
Kodea:	0012
Heziketa-zikloa:	Haur-hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	198
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	12
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1029_3: Autonomian eta osasunean ohiturak hartzeko eta trebatzeko programak, arrisku-egoeretan esku hartzeko beste programa batzuk garatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 6.a / 7.a / 9.a / 12.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Haurren oinarritzko beharrei erantzuteko hezkuntza-jarduerak planifikatzen ditu. Horretarako, elikadurarako, higienarako eta atsedenerako jarraibideak, eta hazkuntza eta garapen fisikoaren ereduak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Garapen fisikoaren faseak eta horretan eragina duten faktoreak identifikatu ditu.
- Elikadurarekin, higienarekin eta atsedenarekin lotuta, haurren ezaugarriak eta beharrak deskribatu ditu.
- Haurren ezaugarrietara (adina, alergiak, elikagaiekiko intolerantziak eta bestelakoak) egokitutako dieta motak eta menuak prestatu ditu.
- Garbitasunarekin, higienarekin eta janzkerarekin lotutako jardunbideak deskribatu ditu.
- Haurren atsedenarekin eta loarekin lotutako jardunbideak deskribatu ditu.
- Elikadurarekin, higienarekin eta atsedenarekin lotutako asaldura eta gatazka nagusiak identifikatu ditu.
- Haurren oinarritzko beharrei erantzuteko jarduerak, baliabideak eta estrategiak proposatu ditu.
- Elikadurarekin, higienarekin eta atsedenarekin lotutako beharrei erantzuteko giro egokiak diseinatu ditu.
- Eguneroko zereginen plangintzan eta garapenean esku hartzen duten elementu materialak, espazialak eta denborazkoak ezarri ditu.
- Oinarritzko behar bakoitzari erantzuteko modua haurren ezaugarriekin lotu du.
- Higienarekin, prebentzioarekin eta segurtasunarekin lotutako neurriak kontuan hartu ditu.



- l) Oinarrizko beharrei erantzutearekin zerikusia duten jarduerak hezkuntzaren aldetik duten garrantzia baloratu du.

2. Hezkuntzako esku-hartzeak programatzen ditu haurrek autonomia pertsonaleko ohiturak errazago gara ditzaten, eta esku-hartzeak hezkuntzako plangintza-estrategiekin eta haurren garapen-erritmoekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ohiturak hartzeko prozesuaren faseak deskribatu ditu.
- b) Haurren autonomia-ahalbideetara egokitutako helburuak finkatu ditu.
- c) Haurren ezaugarri ebolutiboetatik abiatuta, autonomia pertsonaleko ikaskuntzak sekuentziatu ditu.
- d) Autonomia pertsonala errazten duten giroak diseinatu ditu.
- e) Haurrek autonomia pertsonala lortzea oztopatzen duten elementuak antzemateko estrategiak eta tresnak ezarri ditu.
- f) Irakasteko/trebatzeko estrategia eta teknika egokiak hautatu ditu.
- g) Autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeko jarduera egokiak proposatu ditu.
- h) Autonomia pertsonaleko ohiturak hartzearekin lotutako litezkeen gatazkak eta asaldurak identifikatu ditu.
- i) Haurrak berorren irudi positiboa eraikitzeko eta erabat garatzeko, autonomia pertsonala lortzeko duen garrantzia baloratu du.
- j) Autonomia pertsonaleko ohiturak lortu eta finkatzeko, familiaren lankidetzak duen garrantzia baloratu du.
- k) Haurrek autonomia lortzeko, helduek duten eginkizuna azaldu du.

3. Esku-hartzearen espazioak, denborak eta baliabideak antolatzen ditu, eta horiek lotu egiten ditu 0 eta 6 urte bitarteko haurren erritmoekin eta ohituren behararekin, eta, hala badagokio, beharrezkoak diren laguntza teknikoekin.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ohiturek haurren garapenean duten eginkizuna eta ikastetxeko jardueraren denbora-antolamenduan duten eragina azaldu ditu.
- b) Elikadurarako, higienarako eta atsedenerako eguneroko ohiturak ezarri ditu.
- c) Atsedenerako, higienarako eta elikadurarako espazio eta baldintza egokienak prestatu ditu.
- d) Denborak antolatzean, haurren erritmoak, eta jardueraldien eta atsedenaldeen arteko oreka errespetatu ditu.
- e) Antzemandako zailtasunetarako konponbideak ekarri ditu.
- f) Elikadurako, higieneko, atsedeneko eta bestelako ohiturak lantzeko beharrezkoak diren objektuak eta baliabide materialak hautatu ditu.
- g) Beharrezko laguntza teknikoak hautatu ditu.
- h) Giroak, materialek eta berariazko ekipoek indarrean dagoen araudian ezarritako higie- eta segurtasun-baldintzak betetzen dituztela egiaztatu du.
- i) Haur bakoitzaren erritmoak errespetatzearen garrantzia baloratu du.

4. Haurren oinarrizko beharrei erantzuteko eta autonomia-ohiturak hartzeko jarduerak egiten ditu, eta jardunbideak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esleitutako taldeko haurren ezaugarriak identifikatu ditu.
- b) Gauzatutako esku-hartzea egokitu du haur bakoitzaren ezaugarrietara, aurreikusitako irizpide metodologikoetara eta eskura dauden baliabideetara.
- c) Eguneroko ohituretan harreman-beharrei erantzuteko estrategiak deskribatu ditu.

- d) Hautxoei jaten emateko teknikak aplikatu ditu.
- e) Haurrak garbitzeko eta haien higiena zaintzeko teknikak aplikatu ditu.
- f) Haurrekin hezkuntza-harremanak ezarri ditu.
- g) Haurren autonomia pertsonala errazago garatzeko estrategia metodologikoak aplikatu ditu.
- h) Haur bakoitzaren erritmoak errespetatu ditu.
- i) Laguntza teknikoak erabiltzeko, ezarritako protokoloei jarraitu die.
- j) Higienari, prebentzioari eta segurtasunari buruzko arauak errespetatu ditu.
- k) Gertaeren aurrean behar bezala erantzun du.
- l) Haurren oinarrizko beharrei erantzuteko eta haien autonomia garatzeko hezitzaileak duen eginkizuna baloratu du.

5. Haurren osasunerako eta segurtasunerako zailtasun edo arrisku bereziko egoeretan esku hartzen du, eta gaixotasunik edo istripurik izanez gero ezarrita dauden prebentziorako eta esku hartzeko protokoloekin lotzen du bere jarduna.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Osasunaren eta segurtasunaren arloan 0 eta 6 urte bitarteko haurrek dituzten oinarrizko beharrak eta ezaugarriak identifikatu ditu, eta horiek haurren etapa ebolutiboarekin eta tresna egokiekin lotu ditu.
- b) Haurrentzako arreta-zentroetan osasuna eta ongizatea sustatzeko hartu behar diren osasuneko eta prebentzioko neurriak eta baldintzak deskribatu ditu.
- c) Osasunerako arriskuen prebentzian hezitzailearen osasun- eta higiene-egoerak duen garrantzia baloratu du.
- d) Haurren gaixotasun nagusiak identifikatzeko irizpide eta/edo sintoma garrantzitsuenak aditzera eman ditu, eta jarraitu beharreko jardun-protokoloak deskribatu ditu.
- e) Haurren istripu ohikoenak identifikatu ditu.
- f) Haurren istripuen prebentziorako estrategiak deskribatu ditu.
- g) Gaixotasun- eta istripu-egoeren aurrean haur-hezitzaileen jarrerak duten eginkizuna baloratu du.
- h) Giroak, materialek eta berariazko ekipoek ezarritako kalitate- eta segurtasun-baldintzak betetzen dituztela egiaztatu du.
- i) Familiekin eta, beharrezkoa izan denean, beste profesional batzuekin komunikazio-harreman eraginkorrak ezarri eta mantendu ditu.
- j) Haur Hezkuntzako teknikariak osasun- eta segurtasun-agente gisa duen eginkizuna baloratu du.

6. Esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzen du oinarrizko beharrei erantzuteari eta autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeari dagokionez, eta erabilitako estrategien eta tresnen hautaketa justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Informazio-iturriak eta garapen fisikoaren jarraipena egiteko teknikak identifikatu ditu, bai eta hartutako ohiturak eta antzemandako arrisku-egoerak ere.
- b) Haurren eboluzioa eta esku hartzeko prozesua kontrolatu eta jarraitzeko adierazle eta teknika egokiak hautatu ditu.
- c) Prozedura egokiari jarraituz aplikatu du ebaluazio-tresna.
- d) Datuak ezarritako euskarrian erregistratu ditu.
- e) Jasotako informazioa behar bezala interpretatu du.
- f) Esku-hartze desegoki baten arrazoi posibleak identifikatu ditu.
- g) Familiekin eta beste profesional batzuekin zein egoeratan lankidetzan aritu beharra dagoen identifikatu du.

- h) Familiei eta beste profesional batzuei zuzendutako esparru horietan, ohiturak hartzen izandako bilakaerari, oinarritzko beharrei erantzuteari eta/edo asaldurei buruzko txostenak egin ditu.
- i) Haurren oinarritzko beharrei behar bezala erantzuteko ebaluazioak duten garrantzia baloratu du.

c) Oinarritzko edukiak

ONARRITZKO BEHARREI ERANTZUTEKO HEZIKETA JARDUERAK PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren elikaduraren ezaugarriak eta jarraibideak aztertzea. - Elikagaiei buruzko informazioa aztertzea. - Menuak egitea. - Atsedenari eta loari dagokienez haurrek dituzten beharrak eta erritmoak identifikatzea. - Elikadurarekin, atsedenarekin eta higieinarekin lotutako asaldurak identifikatzea. - 0 eta 6 urte bitarteko haurren hazkuntza fisikoak dituen faseak eta asaldura ohikoenak identifikatzea. - Prebentziorako eta segurtasunerako arriskuak eta kontrol-puntu kritikoak aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - 0 eta 6 urte bitarteko haurren hazkuntza eta garapen fisikoa. Hazkuntzan eragina duten faktoreak: faseak, ezaugarriak eta asaldura ohikoenak. - Haurren elikadura eta nutrizioa: elikadura haur-eskolan. Elikadura-kalitatea. Zailtasunak eta asaldurak elikaduran. - Norberaren garbitasuna eta higieena. - Jantziak, oinetakoak eta erabilera pertsonaleko beste objektu batzuk. - Prebentzioa eta segurtasuna oinarritzko beharrei erantzutean.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntzako une gisa, oinarritzko beharrei erantzutea baloratzea. - Oinarritzko beharrei erantzutearekin zerikusia duten jarduerak hezkuntzaren aldetik duten garrantzia baloratzea. - Oinarritzko beharrei erantzutean, higie-neurriak, prebentziokoak eta segurtasunekoak hartzearen beharra antzematea eta horretaz jabetzea. - Hazkuntzarekin eta garapenarekin lotutako asaldurak goiz antzemateko behaketak duen garrantzia baloratzea.

HAURTZAROAN AUTONOMIA PERTSONALEKO OHITURAK HARTZEKO ESKU HARTZEAK PROGRAMATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ondorengo gaiekin lotutako ohiturak hartu eta mantentzeko hezkuntza-estrategiak aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> o Elikadura. o Esfinterren kontrola. o Autonomia pertsonala haurren eguneroko jardueretan. - Irakasteko/trebatzeko estrategia eta teknika egokiak hautatzea. - Autonomia pertsonala errazten duten giroak diseinatzea. - Autonomia pertsonaleko ohiturak hartzearekin lotutako gatazkak eta asaldurak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia pertsonala haurtzaroan. Garapen-jarraibideak. - 0 eta 6 urte bitarteko ohiturak oinarritzko beharrei dagokienez:

	<ul style="list-style-type: none"> ○ Fisiologikoak. ○ Sozialak. ○ Osasunarekin lotutakoak. <ul style="list-style-type: none"> - Ohiturak harraraztean kontuan hartu beharreko irizpideak. - Ohiturak harrarazteko irakatsi eta ikasteko estrategiak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Errefortzu positiboa. ○ Moldekatzea. ○ Kateatzea. - Ohiturak ezartzeko programa bat aplikatzeko oinarrizko jarraibideak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurraren garapenean autonomia pertsonala baloratzea. - Ikasleen autonomia pertsonala harraraztean helduek duten eginkizuna baloratzea. - Norberaren irudi positiboa eraikitzeko, autonomia pertsonala lortzeko duen garrantzia baloratzea. - Autonomia pertsonaleko ohiturak lortu eta finkatzeko, familiaren lankidetzak duen garrantzia baloratzea. - Aniztasuna eta ikasteko erritmo desberdinak errespetatzea, eta horiek ezaugarri ebolutiboetara egokitzea.

OINARRIZKO BEHARREI ERANTZUTEKO ETA OHITURAK HARTZEKO ESPAZIOAK, DENBORA ETA BALIABIDEAK	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen elikadurarako, higienerako eta atsedenerako instalazioak eta materialak zehaztea. - Denbora antolatzeko ohiturak aztertzea. - Espazioak eta baliabideak egokitzea ikasleen autonomia bultzatzeko. - Jarduera antolatzea: bakoitzaren erritmoen garrantzia, eta jardueraren eta atsedeneraren arteko orekarena. - Haurtzaroko mugikortasunerako eta komunikaziorako laguntza teknikoak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Elikagaien asaldurak eta kontserbazioa. - Instalazioen eta tresnen higiena. - Segurtasunari eta higienerari buruzko araudia. - Eskolako ohiturak eta egunerako jarduerak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren beharrak hezkuntza-jardueraren ardatz gisa baloratzea. - Ikasle bakoitzaren erritmoak errespetatzearen garrantzia baloratzea. - Inguruneke higiene-neurriak, prebentziokoak eta segurtasunekoak hartzearen beharra antzematea eta horretaz jabetzea.

OINARRIZKO BEHARREI ERANTZUTEKO ETA AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEKO ESKU HARTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurtxoei jaten emateko teknikak aplikatzea. - Elikagaiak higiezez manipulatzeko. - Haur Hezkuntzaren esparruko higiene-ohitura zehatzak aztertzea. - Haurrak garbitzeko eta haien higiena zaintzeko teknikak aplikatzea. - Ikasleen oinarrizko beharrei erantzutean eta haien autonomia pertsonala sustatzean irakasleak duen eginkizuna aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haur-hezitzaileari aplikatu beharreko segurtasun- eta higiene-arauak. - Haurtxoei jaten emateko teknikak. - Haurrak garbitzeko eta haien higiena zaintzeko teknikak.

	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen autonomia pertsonala errazago garatzeko estrategia metodologikoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleei arreta eskaintzeko familiekiko eta beste profesional batzuekiko koordinazioa baloratzea. - Ikasleen oinarrizko beharrei erantzutean eta haien autonomia garatzean irakasleak duen eginkizunaren garrantzia baloratzea. - Higieneari, prebentzioari eta segurtasunari buruzko arauak errespetatzea. - Ikasle bakoitzaren erritmoak errespetatzea.

OSASUNAREKIN ETA SEGURTASUNAREKIN LOTUTAKO ZAILTASUN BEREZIKO EGOERETAN ESKU HARTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurtzaroan istripuak sorrarazten dituzten arriskuak eta faktoreak aztertzea. - Haurren gaixotasun ohikoenak eta horien aurrean esku hartzeko jarraibideak identifikatzea. Epidemiologia. - Haurrentzako arreta-zentroetan osasuna eta ongizatea sustatzeko hartu behar diren osasuneko eta prebentzioko baldintzak eta neurriak deskribatzea. - Kutsaduren eta infekzioen prebentzian, eta bizitza-ohitura osasungarrien sustapenean aplikatu beharreko printzipioak landu, baloratu eta hautatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Osasuna eta gaixotasuna. Osasunaren sustapena. - Txertoak. - Haurren osasunarekin eta segurtasunarekin lotutako arriskuen prebentzioa. - Minusbaliotasunaren edo gizartera moldatu ezinaren ondoriozko asaldurak. Esku hartzeko jarraibideak. - Arriskuak eta kontrol-puntu kritikoak. - Desinfekzio-arauak haur-eskolan eta etxean. - Gaixotasun kutsakorren aurrean jarduteko protokoloak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren osasunarekin eta segurtasunarekin lotutako arriskuen prebentzian irakasleak duen eginkizuna baloratzea. - Osasuneko eta segurtasuneko agente gisa irakasleak duen eginkizuna baloratzea. - Prebentzian eta osasunaren sustapenean beste profesional batzuekin lankidetzan aritzearen garrantziaz jabetzea. - Gaixotasun- eta istripu-egoeren aurrean irakaslearen jarrerak duten eginkizuna baloratzea.

OHITURAK HARTZEKO ETA OINARRIZKO BEHARREI ERANTZUTEKO PROGRAMAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Parametro fisikoen eboluzioari buruzko datuak eta tresnak interpretatzea. - Haurrentzako ikastetxeen eta arreta-zentroen segurtasun- eta higiene-baldintzak baloratzeko estrategiak eta tresnak aztertzea. - Haurren osasunerako edo segurtasunerako arriskuaren adierazleak antzematea. - Familiei eta beste profesional batzuei zuzenduta, ohiturak hartzen izandako bilakaerari, oinarrizko beharrei erantzuteari eta/edo
----------------	---

	asaldurei buruzko txostenak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Garapen fisikoaren eta hartutako autonomia pertsonaleko ohituren kontrola eta jarraipena egiteko tresnak. - Familientzako eta beste profesional batzuentzako informazioa. Tresnak. - Garapen fisikoari eta ohiturak hartzeari buruzko informazio-iturriak eta haien jarraipena egiteko teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen oinarrizko beharrei egokiro erantzuteko ebaluazioak duen garrantzia baloratzea. - Zuhurtasuna datuak biltzean. - Ikasleekin esku hartzen duten profesionalen artean lankidetzan aritzeak eta informazioa trukatzeko duen garrantzia baloratzea. - Familiekin komunikatzeko eta informazioa trukatzeko duen garrantzia baloratzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau egituratzeko, hiru fase hauek ezartzea proposatzen dugu:

1. Oinarrizko beharrei erantzuteko jarduerak prestatzea.
2. Autonomia pertsonaleko ohiturak irakasteko proiektuak garatzea.
3. Autonomia pertsonaleko ohituren ikaskuntzan esku hartzeko prozedurak ebaluatzea.

Lehen fasean (*oinarrizko beharrei erantzuteko jarduerak prestatzea*), bereizirik jorra daitezkeen bi etapa biltzen dira, zero eta sei urte bitarteko haurren eboluzioari eta haien beharrei buruzkoak, hain zuzen.

- **Lehen etapan**, 0 eta 6 urte bitarteko haurtxoaren hazkuntzarekin eta garapenarekin zerikusia duten edukiak jorratuko ditugu.
- **Bigarren etapan**, haurren oinarrizko beharrak aztertuko ditugu.

Bigarren fasea (*autonomia pertsonaleko ohiturak irakasteko proiektuak garatzea*) garrantzitsuena dela esan daiteke. Haurren beharrek eta ohiturak hartzearekin lotutako edukiak biltzen ditu.

- **Lehen etapa batean**, *ohiturak hartzeko prozesuarekin* lotutako edukiak jorratuko dira.
- **Bigarren etapa batean**, *autonomia pertsonaleko ohiturak hartzeko programak lantzeari* buruz jardungo da.

Fase honetan deskribatutako edukiak sekuentziazituta landu behar dira.

Hirugarren fasean (*autonomia pertsonaleko ohituren ikaskuntzan esku hartzeko prozedurak ebaluatzea*), esku hartzeko prozedurak programatu eta ebaluatzeari buruzko edukiak biltzen dira.

- **Lehen etapa batean**, *ebaluatzeko prozedurak, teknikak eta tresnak* aztertuko dira.
- **Bigarren etapa batean**, *ebaluazio- eta jarraipen-programak lantzeari* buruz arituko gara.

Hirugarren fase honetan jorratutako edukiak ere sekuentziatuta landu behar dira.

Ikuspegi oro-hartzailea erabiltzea gomendatzen da, ikasleek modua bere osotasunean ikusi eta ikaskuntza esanguratsuak lortu ahal izateko.

2) Alderdi metodologikoak

Komeni da ondorengo orientabide metodologikoei jarraitzea:

Moduluari ekiteko, komenigarria da hasierako unitate didaktiko baten bidez ikasleak haren edukietara modu esanguratsuan hurbiltzea, eta haur-eskolako osasun-agente gisa hezitzaileak izan behar duen rolari buruzko ikuspegi orokorra ematea. Komenigarritzat jotzen da ikasleen motibazioa bultzatuko duten jarduerak egitea. Jarduera horiek irakasleari bidea eman behar diote gai honen inguruan ikasleek zein ezagupen dituzten antzemateko.

Irakasleak, modulua osatzen duten edukiak jorratzean, horietan proposatutako sekuentziazioa kontuan hartu beharko du. Horri esker, ikasleek oinarri teoriko egokia lortu ahal izango dute irakasleak diseinatutako jarduerak arian-arian egiteko. Garrantzitsua da moduluari esanahia eta orokortasuna emango dion ardatz nagusi bat finkatzea, loturarik gabeko atalak ezartzeko joera saihestearren.

Betiere, oroimenean gehiegi oinarritutako irakaskuntza-ikuspegia saihestu behar da, eta barneratze bidezko ikaskuntza bilatu behar da, zenbait kasu praktikoren bidez. Unitate didaktiko guztietan, jarrerazko edukien garrantzia azpimarratu behar da.

Garrantzitsua da ikasleek etapa honen hezkuntza-balioa, talde-lanaren beharra, eta, heldu gisa, haurtxoarekiko jarrera malgua eta koherentea garatu beharra aintzat hartzea eta horretaz jabetzea.

Gomendagarritzat hartzen da banakako lana eta talde-lana bultzatuko duten jarduerak diseinatzea. Izan ere, banakako lanaren bidez, ikasleek euren ikaskuntza pixkanaka eraiki ahal izango dute; eta, talde-lanaren bidez, Haur Hezkuntzan profesionalen arteko koordinazioak eta talde-lanak duten garrantziaz ere jabetuko dira.

Komeni da moduluaren amaieran prozedurazko eta laburpeneko unitate didaktiko bat sartzea. Hala, bereganatutako ezagupenen bidez, ikasleek gai izan beharko dute sortutako edozein egoeraren aurrean moduluan inplizitu dagoen profesionaltasuna erakutsiz hari aurre egiteko.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Gauzatu beharreko jarduera garrantzitsuak garatuko diren lanetan eta proiektuetan oinarrituko dira.

- ✓ Oinarrizko beharrei erantzuteko jarduerak prestatzea.

Lehen etapa:

- Zero eta sei urte bitarteko haurtxoaren eboluzio biologikoari buruzko datuak (altuera, pisua, perimetroak) behatu eta biltzea.
- Pertzentilen taulak eta grafikoak egitea, emaitzak alderatu eta aztertzeke.
- Tauletan jasotako datuak interpretatzea.
- Suposizio praktikoak egitea.
- Familientzako informazio-tresnak prestatzea, haurren eboluzio biologikoaren eta eboluzio horretan izaten diren gertaera nagusien inguruan.
- Informazioa biltzeko tresnak prestatzea.

Bigarren etapa:

- Txosten batean, hurrek adinaren eta bakoitzaren ezaugarrien arabera dituzten elikadura-beharrak jasotzea.
- Biberioiak, zerealen eta fruten ahiak... prestatzea, osasun- eta higiene-neurriak kontuan izanda.
- Elikagaien motei buruzko fitxak egitea, horiek dituzten nutrizio-printzipioak eta ekarpen kalorikoa kontuan izanda.
- Eskolako menuak aztertzea.
- Familientzako informazioko fitxak eta triptikoak egitea.
- Ikasleak siesta egitera eramateko metodologia ohikoenei buruzko fitxak egitea.
- Ikasgelan atsedenerako giro egokiak sortzea, argiztatzeari, sehaskak eta koltxonetak jartzeari... dagokionez.
- Haurrek atsedean hartzeko abesti, poema eta musika egokiak biltzea.
- Haurrak bainatzeko, eta arropak eta oihalak aldatzeko ikasitako teknikak erabilia praktikak egitea.
- Haur-eskola batean, bi astez, esfinterren kontrolari buruzko erregistro bat egitea. Ondorioak fitxa batean jasotzea.
- Horma-irudi batean, higiene egokia lortzeko eman beharreko urratsak eta horretarako beharrezkoak diren materialak jasotzea.

- ✓ Autonomia pertsonaleko ohiturak irakasteko proiektuak garatzea:

- Bi sarrerako taula bat egitea. Bertan, bizitzaren lehen sei urteetan irakatsi beharreko ohitura nagusiak zein diren eta heldua izatean ikaskuntza horretan nola eragin daitekeen erakustea.
- Biko taldeetan, ohitura jakin bat irakasteko modua simulatzea. Ondorioak fitxa batean jasotzea.
- Taldeka, ikasleek hautatutako ohitura bat ezartzeko programa egitea.
- Hartu ez den ohitura bati buruzko programa egitea.

- ✓ Autonomia pertsonaleko ohituren ikaskuntzan esku hartzeko prozedurak ebaluatzea:

- Ohiturei buruzko ikaskuntzaren bilakaera behatzeko ebaluazio-tresnak prestatzea.
- Bildutako informazioa familiei helarazteko tresnak prestatzea.
- Ohitura egokiei buruzko txosten-eskuliburu bat egitea. Bertan, haurren eboluzioa eta esku hartzeko prozesua kontrolatu eta jarraitzeko adierazle eta tresnak egokiak jasotzea.
- Prozedura zuzenari jarraituz ebaluazio-tresna egokiak aplikatzea.
- Bildutako informazioa zuzen ebaluatu eta interpretatzeko beharrezkoak diren datuak jasotzea.

3. lanbide-modulua HAUR JOLASA ETA BERE METODOLOGIA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Haur-jolasa eta bere metodologia
Kodea:	0013
Heziketa-zikloa:	Haur-hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	140 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	12
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1030_3: Haurren jardueraren eta garapenaren ardatz gisa, jolas-egoerak sustatu eta abian jartzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 6.a / 7.a / 9.a / 11.a / 12.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Hezkuntzako esku-hartzean eredu ludikoa testuinguruan kokatzen du, eta eredu hori jolasari buruzko teorien, izandako bilakaeraren eta haurren garapenean duen garrantziaren, eta ardatz metodologiko gisa duen eginkizunaren bidez baloratu du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Haur-jolasaren ezaugarriak identifikatu ditu.
- Jolasak haurren garapenean duen bilakaera aztertu du.
- Jolasak haurren garapenean duen garrantzia aztertu du.
- Irakatsi eta ikasteko prozesuan alderdi ludikoak sartzearen garrantzia baloratu du.
- Jolasari buruzko teorien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezarri ditu.
- Jolasa haurren garapenaren dimentsioekin lotu du.
- Jolasak integratioko, gizarte-egokitzapeneko, berdintasuneko eta bizikidetasuneko faktore gisa duen garrantzia antzeman du.
- Esparru formalean eta ez-formalean, jolasa esku hartzeko ardatz gisa erabiltzen duten proiektuak aztertu ditu.
- Hezkuntzako esku-hartzean elementu ludikoak sartu ditu.
- Haurren garapenean eta hezkuntzako esku-hartzearen ardatz metodologiko gisa jolasak duen garrantzia baloratu du.

2. Esku hartzeko proiektu ludikoak diseinatzen ditu, eta horiek garatzeko testuinguruarekin eta ekipamendu edo zerbitzuarekin, eta haur-animazioaren printzipioekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Haur-animazioaren printzipioak, helburuak eta modalitateak deskribatu ditu.
- Haur-jolaseko jarduerak eskaintzen dituzten zentroyen motak identifikatu ditu.
- Haien inguruko legeria, ezaugarriak, gutxieneko funtzionamendu-baldintzak, betetzen dituzten eginkizunak eta pertsonala aztertu ditu.

- d) Zerbitzu edo ekipamendu ludikoaren ezaugarriak eta prestazioak identifikatu ditu.
- e) Proiektu ludikoaren diseinuan programazioaren elementuak aplikatu ditu.
- f) Jolas-eremuak alderdi hauek kontuan izanda ezarri ditu: erakunde mota, aurreikusitako helburuak, haurren ezaugarriak, eskura dauden materialak, aurrekontua eta horietan egin beharreko jarduerak.
- g) Olgetako proiektu ludikoen plangintzan, teknologia berriak informazio-iturri gisa baloratu ditu.
- h) Barruko eta/edo kanpoko jolaslekuak antolatzeko irizpideak ezarri ditu.
- i) Alderdi hauen inguruko irizpideak zehaztu ditu: materialen hautaketa, egin beharreko jarduerak, materialak antolatu eta jasotzea, ebaluazio-teknikak eta jolaslekuetako segurtasun-elementuak.
- j) Proiektu ludikoa diseinatzean, giza baliabideen eta materialen kudeaketa eta antolamendua kontuan hartu ditu.
- k) Programa, zentro edo erakunde jakin baterako olgetako esku-hartze ludikoaren ereduak proiektu bat egokitu du.
- l) Ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratu du.

3. Jarduera ludikoak diseinatzen ditu, eta horiek jolasari buruzko teoriekin eta haurren eboluzioaren unearekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduera ludikoak diseinatzean, haurren eboluzio-unea kontuan hartu du.
- b) Jarduera ludikoak zerrendatu eta sailkatu ditu, besteak beste, irizpide hauek kontuan izanda: adina, espazioak, teknikariaren rola, parte-hartzaileen kopurua, garatzen diren gaitasunak, ezartzen diren loturak eta beharrezko materialak.
- c) Olgetako jarduera ludikoak programatzean, haurren ezaugarriak eta garapen-maila kontuan izan ditu.
- d) Jolas tradizionalak bildu eta adinarekin lotu ditu.
- e) Jarduera ludikoak planifikatzeko elementuak aztertu ditu.
- f) Haurtzaroen ohikoenak diren jolasen esanahia horiek garatzen dituzten gaitasunekin lotu ditu.
- g) Teknologia berriak informazio-iturri gisa baloratu ditu.
- h) Profesionalaren jarrera esku-hartze motarekiko baloratu du.

4. Jarduera ludikoetarako jostailuak hautatzen ditu, eta horien ezaugarriak haurren garapenaren etapekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jostailu motak, horien ezaugarriak, eginkizuna eta haurren eboluzio-prozesuan zein gaitasun garatzen laguntzen duten aztertu ditu.
- b) Teknologia berriak informazio-iturri gisa baloratu ditu.
- c) Adinari egokitutako haur-jostailuen txostena egin du.
- d) Jostailu tradizionalak bildu eta adinarekin lotu ditu.
- e) Espazio itxi eta irekietarako jostailuak, adinari egokitutakoak, identifikatu ditu.
- f) Jostailuak zerrendatu eta sailkatu ditu, irizpide hauek kontuan izanda: adina, zein lekutan erabiltzekoak diren, hezitzailearen rola, parte-hartzaileen kopurua, garatzen dituzten gaitasunak, ezartzen diren loturak eta beharrezko materialak.
- g) Material ludikoak antolatu, erabili eta zaintzeko irizpideak ezarri ditu.
- h) Jostailuen erabilerari eta segurtasunari buruz indarrean dagoen legeria aztertu du.
- i) Haur-jostailuak segurtasun-baldintzetara egokitzearen beharra antzeman du.

5. Jarduera ludikoak abiarazten ditu, eta horiek ezarritako helburuekin eta beharrezko baliabideekin lotzen ditu.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jardueren eta horiek abiarazteko ezarritako helburuen arteko egokitzapena kontuan hartu du.
- b) Jarduera ludikoak garatzeko aniztasunaren beharra justifikatu du.
- c) Lekuak, baliabideak eta materialak antolatu ditu, eta hartzailen eboluzio-ezaugarrietara egokitu ditu, haien adinaren eta aurreikusitako helburuen arabera.
- d) Jardueren denbora-banaketa ezarri du, hartzailen adinaren arabera.
- e) Asaldura ohikoenak eta esku hartzeko hautabideak identifikatu ditu.
- f) Etapara egokitutako materialekin jostailuak egin ditu.
- g) Olgetako jarduera ludikoak denboraren plangintzara egokituta egin ditu.
- h) Ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratu du.

6. Esku-hartze ludikorako proiektuak eta jarduerak ebaluatzen ditu, eta hautatutako behaketa-teknikak eta -tresnak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduera ludikoa ebaluatzeko beharrezko baldintzak eta metodoak identifikatu ditu.
- b) Ebaluazio-adierazleak hautatu ditu.
- c) Ebaluazio-teknikak eta -tresnak aplikatu ditu egoera ludiko bakoitzean, besteak beste, irizpide hauek kontuan hartuta: fidagarritasuna, baliagarritasuna, erabilgarritasuna eta praktikotasuna informazioaren erabiltzaileentzat.
- d) Erregistroaren xedea kontuan izanda, teknika egokia hautatu eta aplikatu du.
- e) Proiektua egokitu edo aldatzeko bidezko konklusioak atera eta ondorioak azaldu ditu.
- f) Teknologia berriak informazio-iturri gisa erabiltzea baloratu du.
- g) Jarduera ludikoa behatzeko suposizio praktikoa batean, jolasak behar dituen egokitzapenak identifikatu ditu.

c) Oinarrizko edukiak

HEZKUNTZAKO ESKU HARTZEAN EREDU LUDIKOA ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eredu ludikoaren teknikak eta baliabideak aztertzea. - Jolasari buruzko teoriaren arteko antzekotasunak/desberdintasunak ezartzea. - Jolasa haurren garapenaren dimentsioekin lotzea. - Esparru formalean eta ez-formalean, jolasa esku hartzeko ardatz gisa erabiltzen duten proiektuak aztertzea. - Aniztasunarekiko arretan jolasak duen garrantzia identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eredu ludikoa. Ezaugarriak. - Jolasari buruzko teoriak. Mota eta klaseak. - Haur-jolasaren ezaugarriak. - Jolasaren bilakaera haurren garapenean. - Jolasa eta haurren garapena. - Jolasa eta dimentsio afektiboa, soziala, kognitiboa, sensoriala eta motorra. - Jolasa eta eskola-ikaskuntza. - Jolasa eta hezkuntza-premia bereziak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haur-jolasak errespetatu eta sustatzea. - Jolasak adingabearen garapenean duen garrantzia baloratzea. - Hezkuntzako esku-hartzearen ardatz metodologiko gisa jolasa

	<p>baloratzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jolasak integratioko, gizarte-egokitzapeneko, berdintasuneko eta bizikidetasuneko faktore gisa duen garrantzia antzematea.
--	---

HAURTZAROAN ESKU HARTZEKO OLGETAKO PROIEKTU LUDIKOAK PLANIFIKATZEA

<p>prozedurazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuen plangintzan teknika eta baliabide ludikoak identifikatu eta hautatzea. - Esku hartzeko olgetako proiektu ludiko bat diseinatzea. - Kanpoko eta barruko txokoak eta jolas-eremuak planifikatu, diseinatu eta antolatzea. - Programa, zentro edo erakunde jakin baterako olgetako esku-hartze ludikoaren ereduak proiektu bat egokitzea. - Hiri eta landa inguruetako espazio ludikoak eta olgetakoak aztertzea. - Esparru formalean eta ez-formalean, jolasa esku hartzeko ardatz gisa erabiltzen duten proiektuak aztertzea.
<p>kontzeptuzkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Animazioa haurtzaroko gizarte- eta hezkuntza-jarduera gisa. - Haur-animazioaren printzipioak, helburuak eta modalitateak. - Esku hartzeko olgetako proiektu ludikoak: banakakoak eta taldekoak. Espazio itxietan eta/edo irekietan. - Adin desberdinetako haurrentzat. - Esku hartzeko olgetako proiektu ludiko bat prestatzeko jarraibideak. - Hezkuntzan esku hartzeko programak aniztasunarekiko arretan. - Proiektu ludikoak planifikatzeko elementuak. - Olgetako proiektu ludikoen plangintzan teknologia berriak erabiltzea. - Espazio ludikoak eta olgetakoak: <ul style="list-style-type: none"> o Ezaugarriak, prestazioak eta betetzen dituzten eginkizunak. o Barrukoak eta kanpokoak. o Haurren beharretara egokitzea. o Gutxieneko funtzionamendu-baldintzak. o Pertsonala. - Segurtasun-neurriak espazio ludikoetan eta olgetakoetan. - Eskaintza ludikoaren produkzio-sektoreak: <ul style="list-style-type: none"> o Ludotekak. o Bestelako zerbitzu ludikoak: jolaslekuak saltoki handietan, aireportuetan, hoteletan, ospitaleetan, etab. - Jolasarekin lotutako baliabideen egokitzapenak eta laguntza teknikoak.
<p>jarrerazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Haurrentzako olgetako proiektu ludikoak diseinatzeko sormena. - Proiektuen plangintzan, haur eta/edo talde bakoitzaren ezaugarriak/beharrak kontuan hartzea. - Olgetako proiektu ludikoen plangintzan, teknologia berriak informazio-iturri gisa baloratzea. - Ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratzea.

JARDUERA LUDIKOAK PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jolasa hezkuntza-baliabide gisa justifikatzea. - Espazio itxi eta irekietarako jolasak hautatzea. - Jarduera ludikoak diseinatzea, haurren eboluzio-unea, ezaugarriak eta garapen-maila kontuan hartuta. - Haurtzaroan ohikoenak diren jolasak aztertzea eta horiek garatzen dituzten gaitasunekin lotzea. - Jolas tradizionalak eta egungoak biltzea. - Jolasa gizarteratzeko baliabide gisa erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jolasen sailkapena: motak eta xedea. - Euskal Herriko jolas tradizionalak. - Euskal Herriko kantutegi herrikoia. - Hartzaileak aztertzeko prozesua. - Jarduera ludikoak planifikatzeko elementuak. - Eskolako eta eskolaz kanpoko jolasetan erabiltzen diren material eta baliabide ludikoak. - Gizarte-rolen eragina jolasetan. - Komunikabideen eta teknologia berrien eragina haur-jolasetan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriko jolas eta abesti tradizionalekiko, eta bestelako jolas-forma berriekiko interesa. - Komunikabideek eta teknologia berriek haurren jarduera ludikoetan duten eraginaz jabetzea. - Teknologia berriak baliabide ludikoei buruzko informazio-iturri gisa baloratzea. - Olgetako jarduera ludikoak programatzean, haurren ezaugarriak eta garapen-maila kontuan hartzea.

BALIABIDE LUDIKOAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jostailu motak aztertzea: ezaugarriak, eginkizuna, zein gaitasun garatzen laguntzen duten eta hezitzailearen rola. - Espazio desberdinetarako eta adinari egokitutako jostailuak hautatzea. - Denetako materialen ahalbide ludikoak aztertzea. - Jostailuen erabilerari eta segurtasunari buruz indarrean dagoen legeria aztertu eta interpretatzea. - Adinari egokitutako haur-jostailuen txostena egitea. - Jostailu tradizionalak bildu eta adinarekin lotzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jostailuen ezaugarriak eta funtzioak. - Jostailuak sailkatzea irizpide hauek kontuan izanda: adina, zein lekutan erabiltzekoak diren, hezitzailearen rola, parte-hartzaileen kopurua, garatzen dituzten gaitasunak, ezartzen diren loturak eta beharrezko materialak. - Baliabideak eta materialak antolatzea. - Baliabide ludikoa sortu eta berritzea. - Materialak eta jostailuak antolatu, erabili eta zaintzea. - Sormena eta jostailuak. - Komunikabideen eta teknologia berrien eragina haur-jostailuetan. - Gizarte-rolen eragina jostailuetan. - Jostailuen erabilerari eta segurtasunari buruz indarrean dagoen legeria.

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Baliabide ludikoak sortu eta hautatzeko kreatibitatea. - Komunikabideek eta teknologia berriek haur-jostailuetan duten eraginaz jabetzea. - Teknologia berriak baliabide ludikoei buruzko informazio-iturri gisa baloratzea. - Haurren jostailuak segurtasun-baldintzetara egokitzearen beharra antzeman eta horretaz jabetzea.
---------------------	--

JARDUERA LUDIKOAK ABIARAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduera ludikoak abiaraztean programazioa aplikatzea. - Jarduereen eta horiek abiarazteko ezarritako helburuen arteko egokitzapena. - Jarduereen denbora-banaketa ezartzea, hartzaileen adinaren arabera. - Olgetako jarduera ludikoak denboraren plangintzara egokituta egitea. - Hautzarora egokitutako hainbat materialekin jostailuak egitea. - Jarduera ludikorako giro egokia sortzea. - Haur-festak, eskolaz kanpoko irteerak, kanpamentuak, lantegiak, proiektu ludikoak eta olgetakoak. - Egoera ludikoak bultzatzeko estrategiak aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduera ludiko eskolakoak, eskolaz kanpokoak, aisia eta denbora librekoak, eta haur-animaziokoak. - Jarduera ludikoak, eta haurraren adinera eta eboluzio-unera egokitzea. - Espazioa behar bezala antolatzeneko printzipioak. - Material ludikoak eta jostailuak. Prestaketa. - Jolasetik abiatuta berdintasuna sustatzea. - Hautzaroko asaldura ohikoenak eta esku hartzeko hautabideak. - Hezitzailearen esku-hartzea haur-jolasean. - Antolamenduari eta legeriari buruzko alderdiak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Integrazioarako eta bizikidetasunerako baliabide gisa jolasa baloratzea. - Jarduera ludikoak garatzeko aniztasunaren beharra baloratzea. - Jostailuak egiteko sormena eta berritasuna. - Ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratzea.

JARDUERA LUDIKOAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adin desberdinetako haur-taldearen jolasaren garapena behatzea. - Erregistroaren xedea kontuan izanda, behaketa-tresnak hautatu eta prestatzea. - Erregistroaren xedea kontuan izanda, teknika egokia hautatu eta aplikatzea. - Ebaluazio-teknikak eta -tresnak aplikatzea egoera ludiko bakoitzean, besteak beste, irizpide hauek kontuan hartuta: fidagarritasuna, baliagarritasuna, erabilgarritasuna eta praktikotasuna. - Jarduera edo proiektu ludikoa egokitu edo aldatzeko bidezko konklusioak ateratzea eta ondorioak azaltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduera ludikoa ebaluatzea Printzipioak. Xedea. - Jarduera ludikoa ebaluatzen behaketaren teknika: horretarako beharrezko parametroak eta baldintzak/eskakizunak. - Behaketa-tresnak. - Ebaluazio-adierazleak hautatzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Behaketa-teknikaren bidez lortutako informazioaren fidagarritasun-irizpideak, baliagarritasunekoak, erabilgarritasunekoak eta praktikotasunekoak. - Teknologia berriak informazio-iturri gisa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hautzaroan jolasa behatzen garrantzia baloratzea. - Autoebaluaziorako alde zuzeneko jarrera. - Teknologia berriak informazio-iturri gisa erabil daitezkeen baloratzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, "jolasaren metodologiari" dagokionez testuinguruan hoberen kokatzen duten edukien multzoa irakasten hasi beharko da, hots: "**Hezkuntzako esku-hartzean eredu ludikoa zehaztea**".

Ondoren, era berean oinarritzkoa izanik, berariazkoagoa den "**Baliabide ludikoak zehaztea**" multzoa irakatsiko da.

Batik bat teorikoak diren eduki horiek landu ondoren, alderdi praktikoagoak jorratuko ditugu, "**Jarduera ludikoak planifikatzea**" eduki-multzoan jasotakoak, hain zuzen.

Jarduera ludikoen plangintza irakatsi ondoren, "**Jarduera ludikoak abiaraztea**" multzokoarekin jarraituko dugu. Lehenik, abiaraztearen inguruko alderdi teorikoenak irakatsiko dira (jarduera ludikoak, eta adinera eta eboluzio-unera egokitzea, etab.). Ondoren, abiarazteari buruzko multzoaren barruko alderdi praktikoagoak irakatsiko dira (olgetako jarduera ludikoak prestatu eta garatzea, hainbat materialekin jostailuak egitea, etab.).

Jarduera ludikoari buruzko edukien atala amaitzeko, "**Jarduera ludikoa ebaluatzea**" multzoa irakatsiko da.

Eduki-multzo horiek irakatsi eta gero, "**Hautzaroan esku hartzeko olgetako proiektu ludikoak planifikatzea**" emango da. Gai horren barruan, fase hauek bereizi eta sekuentziatuko dira:

Lehen fase batean, "*jarduera ludikoak antolatzeko proiektuak*" gaiari eta beharrezko baliabide materialen inguruko azterketari buruzko ezagupenekin lotutako edukiak jorratuko dira.

Bigarren fasean, "*esku hartzeko proiektuak prestatzea*" izango da helburua.

Eta, hirugarren fasean, "*ebaluazio-tresnak eta prozedurak*" landuko dira.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan teoriak eta praktikak batera joan behar dute, eta metodologia ludikoak nagusitasun berezia hartu behar du moduluaren irakaskuntzan.

Interesgarria izan daiteke irakasleak berak ekarritako suposizioetatik abiatuta eztabaidak egitea, haur-hezitzaile gisa dituen laneko rolen ondoriozko arauen, balioen eta moduen inguruan (metodologia ludikoa erabiltzen duen hezitzailea, metodologia hori erabiltzen ez duena edo horretan sinesten ez duena, etab.).

Irakasleak lankidetzeta-giroa eta moduluarekiko motibazioa bultzatu behar ditu ikasleen artean. Gainera, ikaskuntzarako eta hezkuntzan esku hartzeko ardatz metodologiko gisa jolasaren garrantzia aintzat hartzeko balioak eta jarrerak zabaldu behar ditu, eta jolasak integratioko, gizarte-egokitzapeneko, berdintasuneko eta bizikidetasuneko faktore gisa duen garrantzia antzeman behar du.

Egin beharreko jarduerak banakakoak eta taldekoak izango dira, eta guztiak ahalik eta bizienak izan daitezzen saiatu behar da. Adibidez, jarduera bat banaka egitea komenigarritzat jotzen bada, hari bizitasuna emateko, amaieran bateratze-lana eta azterketa egingo dira, eta taldean ondorioak aterako dira. Talde txikietan egindako jardueretan ere bateratze-lana egingo da talde handian, ikasle guztien garapena, egiaztatze-lana eta elkarreragina erraztearren, eta elkarrengandik aberastu eta ikasteko ere.

Ez da ahaztu behar modulu honetan Euskal Herriko eduki folklorikoak sartzea. Hala, abestiak eta jolas tradizionalak landuko dira.

Ikasleen autonomia eta erantzukizuna bultzatuko da euren ikasteko prozesuari begira. Horretarako, moduluko gaien inguruan informazioa bilatu eta ikertu dezaten sustatuko da. Hala, heziketa-lanean eguneratzearen, berrikuntzaren eta sormenaren beharra irakatsiko zaie.

Ikasgelan ikasitakoa osatzeko, moduluarekin zerikusia duten irteerak egingo dira: ludotekak, haur-eskolak, etab. bisitatu.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Eredu ludikoa zehaztea:
 - Eredu ludikoaren ezaugarriak identifikatzea.
 - Eredu ludikoaren teknikak eta baliabideak aztertzea.
- ✓ Jolasari buruzko teoriak identifikatu eta aztertzea:
 - Jolasari buruzko teoriak (motak eta klaseak) aztertzea.
 - Jolasari buruzko teorien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzea.
- ✓ Jolasa eta haurren garapena aztertzea:
 - Haur-jolasaren ezaugarriak identifikatzea.
 - Jolasaren bilakaera haurren garapenean.
 - Jolasa haurren garapenaren dimentsioekin lotzea.
- ✓ Jolas tradizionalak eta egungoak biltzea.
- ✓ Jarduera ludikoak diseinatzea, alderdi hauek kontuan izanda:
 - Haurraren eboluzio-unea.



- Haurren ezaugarriak eta garapen-maila.
 - Zein alderdi/dimentsio garatzen duten.
 - Espazio irekiak ala itxiak diren.
-
- ✓ Jostailu motak aztertzea, alderdi hauek kontuan izanda:
 - Jolasaren berezko ezaugarriak: kalitatea, a segurtasun- eta higiene-arauak, eta hezkuntza-balioak.
 - Adinaren ezaugarriekiko egokitzapena.
 - Funtzioa.
 - Zein gaitasun garatzen laguntzen duten.
 - Hezitzailearen rola.

 - ✓ Jostailuei, haur-jolasei eta horien ahalbideei buruzko txostena egitea.

 - ✓ Haurtzaroko adin desberdinetarako banakako eta taldeko jarduera ludikoak programatzea:
 - Haur-festa bat prestatzea.
 - Haurtzaroko adinean dagoen haur-talde batentzako eskolaz kanpoko irteera bat programatu edo antolatzea.
 - Adin desberdinetako haur-taldeen jolasaren garapena behatzea.
 - Esku hartzeko olgetako proiektu ludiko bat diseinatzea.

4. lanbide-modulua ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Adierazpena eta komunikazioa
Kodea:	0014
Heziketa-zikloa:	Haur-hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte eta kultura zerbitzuak
Iraupena:	198 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	11
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle tekniko)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1031_3: Hazkunde pertsonalerako eta profesionalerako bitarteko gisa, haurren adierazpen- eta komunikazio-baliabideak garatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 6.a / 7.a / 9.a / 11.a / 12.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten estrategiak eta jarduerak planifikatzen ditu, eta horiek hartzailerantz izango diren banakoen eta taldearen ezaugarriekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak

- Hartzailerantz adinaren arabera, adierazpen moten ezaugarriak identifikatu ditu.
- 0 eta 6 urte bitarteko haurren lengoaiaren eta pentsamenduaren arteko loturari buruzko teoriak aztertu ditu.
- Haurren eboluzio-ezaugarrien arabera, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten helburuak finkatu ditu.
- Haurren eboluzio-ezaugarrietara egokituta, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten jarduerak proposatu ditu.
- Haurren eboluzio-ezaugarrietara egokituta, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten espazioak zehaztu ditu.
- Haurren eboluzio-ezaugarrietara egokitzeko, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten jardueren denbora-banaketa ezarri du.
- Haurren adierazpena eta komunikazioa bultzatzeko jardueren diseinuan sormenezko proposamenak egin ditu.
- Haurren garapena behatzeko funtsezko elementu gisa baloratu du adierazpena.

2. Haurrei zuzendutako adierazpen- eta komunikazio-baliabideak hautatzen ditu, eta horien ezaugarriak hartzailerantz eboluzio-unearekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak

- Haurrei zuzendutako adierazpen- eta komunikazio-forma bakoitzaren baliabideak identifikatu ditu.

- b) Baliabidearen ezaugarriak identifikatu ditu.
- c) Hautatutako baliabideen ahalmen didaktikoak eta heziketa-balioa justifikatu ditu.
- d) Baliabide bakoitzari aplikatu beharreko segurtasun-arauak deskribatu ditu.
- e) Baliabide bakoitzerako, hura hautatzeko irizpide garrantzitsuak zehaztu ditu.
- f) Haurren eboluzio-unea hautatutako baliabidearen ezaugarriekin lotu du.
- g) Baliabideak haurren eboluzio-unearen ezaugarrietara egokitzearen garrantzia baloratu du.

3. Ahozko adierazpena garatzen laguntzen duten estrategiak eta jarduera abiarazten ditu, eta horiek aurreikusitako helburuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan egingo dueneko haurren ama-hizkuntza identifikatu du.
- b) Lekuak antolatzeko, jarduera eta taldearen ezaugarriak kontuan hartu ditu.
- c) Ahozko adierazpena garatzeko jarduerak egin ditu, denboraren plangintzara egokituta.
- d) Jardueraren berezko materialak prestatu ditu.
- e) Haurren ahozko adierazpena bereganatu eta garatzea bultzatzen duten materialak prestatu ditu.
- f) Jardueraren garapenean bakoitzaren erritmoak eta beharrak errespetatu ditu.
- g) Ahozko adierazpenaren asaldura nagusiak identifikatu ditu.
- h) Adeitasun eta konfiantzazko giroa bultzatzen duten esku hartzeko estrategiak hautatu ditu.
- i) Haurren ama-hizkuntza errespetatzearen garrantzia baloratu du.
- j) Jarduerak plangintzapean egitearen koherentzia baloratu du.
- k) Asaldura ohikoenak eta esku hartzeko hautabideak identifikatu ditu.

4. Adierazpen plastikoa, grafikoa, erritmiko-musikala, logikoa, matematikoa eta gorputzekoa garatzen laguntzen duten jarduerak abiarazten ditu, eta horiek aurreikusitako helburuekin, eta estrategia eta baliabide egokiekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Espazioak antolatzeko, jarduera eta taldearen ezaugarriak kontuan hartu ditu.
- b) Jarduerak denboraren plangintzara egokituta egin ditu.
- c) Jardueraren berezko materialak prestatu ditu.
- d) Adierazpen plastikoa, grafikoa, erritmiko-musikala eta gorputzekoa lortzen eta garatzen laguntzen duten materialak prestatu ditu.
- e) Bakoitzaren erritmoak eta beharrak errespetatu ditu.
- f) Adeitasun eta konfiantzazko giroa bultzatzen duten esku hartzeko estrategiak hautatu ditu.
- g) Jarduerak plangintzapean egitearen koherentzia baloratu du.
- h) Gertaeren aurrean erantzun du.
- i) Esku hartzeko ingurune seguruak sortu ditu.
- j) Hizkuntza grafikora hurbiltzeko adierazpenak baloratu ditu.

5. Adierazpenaren eta komunikazioaren arloko esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzen ditu, eta garrantzizko aldagaiak eta ebaluazio-tresnak argudiatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazio-adierazleak hautatu ditu.
- b) Haur bakoitzaren ezaugarrietarako eta adinerako ebaluazio-tresna egokiak hautatu ditu.

- c) Haurren adierazpenaren eta komunikazioaren jarraipenerako behaketa-tresnak prestatu ditu.
- d) Prozedura egokiari jarraituz aplikatu du ebaluazio-tresna.
- e) Ebaluazioaren ondoriozko datuak ezarritako euskarrian erregistratu ditu.
- f) Ebaluazio-prozesuaren inguruan bildutako informazioa interpretatu du.
- g) Beste profesional batzuekin zein egoeratan lankidetzan aritu beharra dagoen identifikatu du.
- h) Familiei eta beste profesional batzuei zuzendutako dokumentazioa prestatu du.
- i) Esku-hartze desegoki baten arrazoi posibleak identifikatu ditu.

c) Oinarrizko edukiak

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA GARATZEN LAGUNTZEN DUTEN ESTRATEGIAK ETA JARDUERAK PLANIFIKATzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hartzailen adinaren arabera, adierazpen motak ezaugarritzea. - 0 eta 6 urte bitarteko haurren lengoaiaren eta pentsamenduaren arteko loturari buruzko teoriak aztertzea. - Erkidego elebidunaren komunikazio-egoera bereizgarriak aztertzea. - Haurren eboluzio-ezaugarrien arabera, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten helburuak eta jarduerak finkatzea. - Haurren eboluzio-ezaugarrietara egokituta, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten espazioak ezartzea. - Haurren eboluzio-ezaugarrietara egokitzeko, adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten jardueren denbora-banaketa. - Haurren adierazpena eta komunikazioa bultzatzeko jardueren diseinuan sormenezko proposamenak egitea. - Ahozko adierazpenaren asaldura nagusiak aztertzea. - Hautabidezko komunikazio-sistemak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adierazpena. - Komunikazioa. - Komunikazio-egoerak aztertzeko jarraibideak. - Elebitasuna eta diglosia. - Adierazpenaren eta komunikazioaren garapena haurren baitan. - Adierazpenaren asaldurak. - Adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten jarduerak programatzea. - Hautabidezko komunikazio-sistemak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren garapena behatzeko funtsezko elementu gisa baloratzea adierazpena. - Komunikazioak haurren garapenean duen garrantzia baloratzea. - Komunikazioan eragina duten asalduren ondorioz, berriazko komunikazio-sistemen beharra baloratzea.

HAURREI ZUZENDUTAKO ADIERAZPEN ETA KOMUNIKAZIO BALIABIDEAK HAUTATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasgelan adierazpena eta komunikazioa garatzeko baliabideak antolatzea. - Informazio- eta komunikazio-teknologiak (IKT) erabiltzea haurren adierazpena eta komunikazioa garatzeko baliabide gisa. - Haurrei zuzendutako adierazpen- eta komunikazio-forma bakoitzaren baliabideak identifikatzea. - Baliabide bakoitzerako, hura hautatzeko irizpide garrantzitsuak zehaztea. - Haurren eboluzioaren unea hautatutako baliabidearen ezaugarriekin lotzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Garapenerako baliabide didaktiko eta aplikazio bereizgarriak: <ul style="list-style-type: none"> o Haurren adierazpen plastikoa. o Haurren adierazpen grafikoa. o Ahozko adierazpena. o Haurren adierazpen erritmiko-musikala. o Haurren adierazpen logiko-matematikoa. o Haurren gorputz-adierazpena. - Honako hauek hautatu eta erabiltzeko irizpideak: <ul style="list-style-type: none"> o Haur-literatura. o Ikus-entzunezko baliabideak. - Multimedia-materialak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren adierazpideak baloratzea. - Informazio- eta komunikazio-teknologiak (IKT) baloratzea haurren adierazpena eta komunikazioa garatzeko baliabide gisa. - Baliabideak haurren eboluzio-unearen ezaugarrietara egokitzearen garrantzia baloratzea. - Baliabideen arauak errespetatzea.

AHOZKO ADIERAZPENNA GARATZEN LAGUNTZEN DUTEN ESTRATEGIAK ETA JARDUERAK ABIARAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren hizkuntza-garapena behatzea. - Lan egingo dueneko haurren ama-hizkuntza identifikatzea. - Espazioak antolatzeko, jarduera eta taldearen ezaugarriak kontuan hartzea. - Ahozko adierazpena garatzen laguntzen duten materialak prestatzea. - Ahozko adierazpenaren asaldurak identifikatzea eta horietan esku hartzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Elebitasun eta diglosiako egoeretan esku hartzeko programak. - Haurren ahozko adierazpena garatzeko estrategia nagusiak. - Espazioak, baliabide materialak eta jarduerak. - Ahozko adierazpena garatzearekin lotutako asaldura ohikoenak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren ama-hizkuntza errespetatzea. - Jardueraren garapenean bakoitzaren erritmoa eta beharrak errespetatzea. - Adeitasun eta konfiantzazko giroa bultzatzen duten esku hartzeko estrategiekiko interesa. - Hizkuntza-aniztasuna errespetatzea. - Jarduerak plangintzapean egitean koherentzia baloratzea.

ADIERAZPEN PLASTIKOA, GRAFIKOA, ERRITMIKO MUSIKALA, LOGIKO MATEMATIKOA ETA GORPUTZEKOA GARATZEN LAGUNTZEN DUTEN JARDUERAK ABIARAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Espazioak antolatzeko, jarduera kontuan hartzea. - Adierazpen plastikoa, grafikoa, erritmiko-musikala, logiko-matematikoa eta gorputzekoa garatzen laguntzen duten materialak prestatzea. - Jarduerak denboraren plangintzara egokituta egitea. - Gertaeren aurrean erantzuten jakiteko prestatzea. - Esku hartzeko ingurune seguruak sortzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Alderdi hauek garatzeko estrategiak: <ul style="list-style-type: none"> o Haurren adierazpen plastikoa. o Haurren adierazpen grafikoa. o Haurren adierazpen erritmiko-musikala. o Haurren adierazpen logiko-matematikoa. o Haurren gorputz-adierazpena. - Adierazpen plastikoa, grafikoa, erritmiko-musikala, logiko-matematikoa eta gorputzekoa garatzen laguntzen duten materialak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren adierazpideak baloratzea. - Bakoitzaren erritmoak eta beharrak errespetatzea. - Adeitasun eta konfiantzazko giroa bultzatzen duten esku hartzeko estrategiak erabiltzeko interesa. - Jarduerak plangintzapean egitean koherentzia baloratzea. - Idatzizko hizkuntzara hurbiltzeko adierazpenak baloratzea.

ADIERAZPENAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ARLOKO ESKU HARTZEAREN PROZESUA ETA EMAITZA EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren adierazpenaren eta komunikazioaren jarraipenerako behaketa-tresnak prestatzea. - Prozedura zuzenari jarraituz ebaluazio-tresnak aplikatzea. - Ebaluazio-erregistroak prestatu eta interpretatzea. - Beste profesional batzuekin zein egoeratan lankidetzan aritu beharra dagoen identifikatzea. - Haurrekin adierazpenaren eta komunikazioaren arloan esku hartzeko programak ebaluatzea. - Familiari zuzendutako dokumentazioa prestatzea. - Esku-hartze desegoki baten arrazoi posibleak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren adierazpen ahozkoa, plastikoa, grafikoa, erritmiko-musikala, logiko-matematikoa eta gorputzekoa behatzea. - Haurren adierazpena eta komunikazioa behatzeko tresnak diseinatu eta hautatzea. - Haurrekin adierazpenaren eta komunikazioaren arloan esku hartzeko programak ebaluatzea. - Familiaren eta eskolaren arteko harremanak ebaluazio-prozesuan. - Haur-eskolaren eta espezializatutako beste profesional-talde batzuen arteko harremanak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku-hartzea hobetzeko baliabide gisa ebaluazioak duen garrantzia

baloratzea.

- Esku-hartze desegokien litezkeen arrazoiak aztertzea.
- Beste profesional batzuekin koordinatzearen beharra baloratzea.
- Lan-taldearekin lankidetzan aritzea.
- Familiaren eta eskolaren artean lankidetzan aritzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau egituratzeko, hiru fase hauek ezartzea proposatzen dugu:

1. Adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten estrategiak eta jarduerak planifikatzea.
2. Haurren adierazpideak garatzen laguntzeko programak garatzea.
3. Adierazpenaren eta komunikazioaren arloko esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzea.

Lehen fasean (adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten estrategiak eta jarduerak planifikatzea), bereizirik jorra daitezkeen bi etapa biltzen dira. Etapa horiek 0 eta 6 urte bitarteko haurren eboluzioari, eta adierazpenerako eta komunikaziorako baliabideak aztertzeari buruzkoak dira.

- Lehen **etapan**, 0 eta 6 urte bitarteko haurren adierazpenarekin eta komunikazioarekin zerikusia duten edukiak jorratuko ditugu.
- Bigarren **etapa** batean, adierazpena eta komunikazioa garatzeko baliabide egokiak aztertuko ditugu.

Bigarren fasea (*haurren adierazpideak garatzen laguntzeko programak garatzea*) garrantzitsuentzat har daiteke, eta haurren adierazpideen eboluzioari buruzko azterketarekin lotutako edukiak biltzen ditu, aplikatu beharreko jarduerekin lotuta.

- Lehen **etapa** batean, haurren adierazpideen eboluzioari buruzko ezagutzarekin lotutako edukiak jorratuko lirateke.
- Bigarren **etapa** batean, adierazpen ahozkoaren, *logiko-matematikoaren, grafikoaren eta erritmiko-musikalaren esparruetarako programazioak nola prestatu* jorratuko da.

Fase honetan jorratutako edukiak sekuentziazatuta landu behar dira.

Hirugarren fasean (*adierazpenaren eta komunikazioaren arloko esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzea*), esku hartzeko prozeduren programazioari eta ebaluzioari buruzko edukiak biltzen dira.

- Lehen **etapa** batean, *ebaluatzeko prozedurak, teknikak eta tresnak* aztertuko dira.
- Bigarren **etapa** batean, *ebaluzio- eta jarraipen-programak lantzeari* buruz arituko gara.

Bertan jorratutako edukiak ere sekuentziazatuta landu behar dira.

Ikuspegi oro-hartzailea erabiltzea gomendatzen da, ikasleek modua bere osotasunean ikusi eta ikaskuntza esanguratsuak lortu ahal izateko.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan teoriak praktikarekin oso lotuta egon beharko du. Ikasleek haurrentzako diseinatutako jardueretarako proposamenak bizi egin behar dituzte, sekuentzia errazteko eta zailtasunak aurreikusteko.

Ikasleek ahalegindu egin beharko dute euren gorputz-adierazpena eta ahozko adierazpena lantzen. Izan ere, horiek lan-tresnak izango baitituzte haurren garapenaren hezitzaile, eredu eta bultzatzaile gisa.

Metodologia aktiboetan oinarritutako jarduerak proposatuko dira. Horretarako, adierazpen mota bakoitzerako egoerak, baliabideak eta materiala jarriko dira, ikasleak etapa horretako lanerako aplikazioak esperimendu, ikertu eta gauzatu ditzan bultzatzeko.

Modulu hau aproposa da adierazpen plastikoa, logiko-matematikoa, ahozkoa eta gorputzekoa garatzeko lantegiak eta txokoak prestatzeko. Ikasleek txokoak eta lantegiak prestatzen parte hartuko dute, eta jarduerak ere egingo dituzte.

Garrantzitsua da ikasleek etapa honen hezkuntza-balioa, talde-lanaren beharra, eta, heldu gisa, haurtxoarekiko jarrera malgua eta koherentea garatu beharra aintzat hartzea eta horretaz jabetzea.

Gomendagarritzat hartzen da banakako lana eta talde-lana bultzatuko duten jarduerak diseinatzea. Izan ere, banakako lanaren bidez, ikasleek euren ikaskuntza pixkanaka eraiki ahal izango dute; eta, lankidetzaren bidez, Haur Hezkuntzan profesionalen arteko koordinazioak eta talde-lanak duten garrantzia ere jabetuko dira.

Gomendagarria da material hondakinezkoak eta naturalak erabiltzea, eta bertako tradizioa eta kultura berreskuratu eta ikertzea.

Ikasleei ordenaren, arretaren eta materialak birziklatzearen garrantzia irakatsi behar zaie.

Haurrei zuzendutako antzerkietara, txotxongilo-erakustaldietara eta ipuin-kontakizunetara irtenaldiak egitea gomendatzen da.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Adierazpena eta komunikazioa garatzen laguntzen duten estrategiak eta jarduerak planifikatzea:
 - Komunikazio eta adierazpen mota desberdinen eboluzioari buruzko datuak behatu eta biltzea.
 - Gizarte elebidunaren komunikazio-egoera bereizgarriak aztertzea.
 - Eboluzio-etapa bakoitzean helduaren eta haurren arteko komunikazio-prozesua ezaugarritzea.
 - Hitzik gabeko komunikazio-egoerak simulatzea.
 - Gaztelaniaz eta euskaraz, ipuinei, poemai, aho-korapiloai eta asmakizunei buruzko txosten bat prestatzea.
 - Ipuinak kontatzea.
- ✓ Haurren adierazpideak garatzen laguntzeko programak garatzea.

- ✓ Ahozko adierazpena:
 - Ahozko hizkuntzaren eboluzio-etapa bakoitza behatzeko erregistroak prestatzea.
 - Alderdi linguistikoak (fonetikoak, gramatikalak eta lexikoak) garatzeko jolasak diseinatzea.
 - Hizkuntzaren asaldurak aztertzea.
- ✓ Adierazpen logiko-matematika:
 - Interesgune baten bitartez kontzeptu matematikoak lantzeko jarduerak diseinatzea.
 - Alderdi logiko-matematikoak garatzeko jarduerak egingo direneko dendaren txokoa diseinatzea.
 - Garapen logiko-matematikoaren jarraipena egiteko behaketa-protokoloak prestatzea.
- ✓ Erritmo- eta gorputz-adierazpena:
 - Perkusiozko instrumentuekin abestien erritmoari jarraitzeko jarduerak prestatzea.
 - Sehaska-abestiei, gonakoei, korrokoei eta dantzei buruzko txosten bat egitea.
 - Haur-eskolako adin-talde bakoitzerako koreografiak diseinatu eta egitea.
 - Ipuinen eta txotxongiloen antzezlanak egitea.
- ✓ Adierazpen musikala:
 - Entzunaldi batetik abiatuta jarduerak diseinatzea.
 - Haur-abestiak interpretatzea.
 - Instrumentuen lantegiak egitea.
- ✓ Adierazpen plastiko:
 - Dagozkion teknikak aplikatuta jarduerak egitea.
 - Adin-talde bakoitzerako jarduera plastikoak diseinatzea.
 - Haurren marrazkiak aztertzea.
- ✓ Adierazpenaren eta komunikazioaren arloko esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzea:
 - Behaketarako jarraibideak prestatzea.
 - Adierazpen-esparru bakoitzerako ebaluazio-adierazleak prestatzea.
 - Adierazpen-esparru bakoitzean egindako behaketak biltzeko erregistroak diseinatzea.
 - Bildutako informazioa behar bezala interpretatzea.
 - Familiei bidaltzeko dokumentuak prestatzea.

5. lanbide-modulua GARAPEN KOGNITIBOA ETA MOTORRA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Garapen kognitiboa eta motorra
Kodea:	0015
Heziketa-zikloa:	Haur-hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizartearentzako zerbitzuak
Iraupena:	198 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	12
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte esku-hartzea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Kompetentzia-atal honi lotuta dago: UC1033_3: Ikaskuntzak zehaztu, sekuentziatu eta ebaluatzea, eta zero eta sei urte bitarteko haurraren garapenaren testuinguruan interpretatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 6.a / 7.a / 9.a / 11.a / 12.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Esparru sensorialean esku hartzeko estrategiak, jarduerak eta baliabideak planifikatzen ditu. Horretarako, azalpen-teoriak eta esku-hartzearen xede den taldearen berariazko ezaugarriak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Esparru sensorialaren azalpen-teoriak identifikatu ditu.
- Hartzaileen esparru sensorialeko eboluzio-ezaugarriak identifikatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- Garapen sensorialaren asaldura nagusiak identifikatu ditu.
- Hartzaileen esparru sensorialeko eboluzio-ezaugarrien araberrako helburuak finkatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- Hartzaileen esparru sensorialeko eboluzio-ezaugarrietarako jarduera egokiak proposatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- Hartzaileen esparru sensorialeko eboluzio-ezaugarrietarako baliabide egokiak hautatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- Hartzaileen esparru sensorialeko eboluzio-ezaugarrietara egokitutako espazioak antolatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- Hartzaileen esparru sensorialeko eboluzio-ezaugarrietara egokitzeko jardueren denbora-banaketa ezarri du, haien adina kontuan izanda.
- Esku-hartzearen plangintzan proposamen sormenezkoak eta berritzaileak egin ditu.
- Esparru sensorialean esku hartzearen garrantzia baloratu du, haurrek ingurunea mia dezaten errazteko baliabide gisa.

2. Esparru motorrean esku hartzeko estrategiak, jarduerak eta baliabideak planifikatzen ditu, eta horiek esku-hartzearen xede diren banakoen eta taldearen ezaugarriekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hartzailen mugimen-ezaugarriak identifikatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- b) Hartzailen mugimen-ezaugarrien araberako helburuak finkatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- c) Hartzailen mugimen-ezaugarrietarako jarduera egokiak proposatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- d) Hartzailen mugimen-ezaugarrietarako baliabide egokiak hautatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- e) Hartzailen mugimen-ezaugarrietara egokitutako espazioak antolatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- f) Hartzailen mugimen-ezaugarrietara egokitzeko jardueren denbora-banaketa ezarri du, haien adina kontuan izanda.
- g) Erabili beharreko laguntza teknikoak hautatu ditu.
- h) Autonomia pertsonala eskuratzeko garapen motorrak duen garrantzia baloratu du.

3. Esparru kognitiboan esku hartzeko estrategiak, jarduerak eta baliabideak planifikatzen ditu, eta horiek garapen kognitiboari buruzko teorietan, eta esku-hartzearen xede diren banakoen eta taldearen ezaugarrietan lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Garapen kognitiboa azaltzeko teoriak identifikatu ditu.
- b) Hartzailen esparru kognitiboko eboluzio-ezaugarriak identifikatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- c) Garapen kognitiboaren asaldura nagusiak identifikatu ditu.
- d) Haurren esparru kognitiboko eboluzio-ezaugarrien araberako helburuak finkatu ditu.
- e) Haurren esparru kognitiboko eboluzio-ezaugarrietarako jarduera egokiak proposatu ditu.
- f) Haurren esparru kognitiboko eboluzio-ezaugarrietarako baliabide egokiak hautatu ditu.
- g) Haurren esparru kognitiboko eboluzio-ezaugarrietarako espazio egokiak zehaztu ditu.
- h) Haurren eboluzio-ezaugarrietara egokitzeko, jardueren denbora-banaketa ezarri du.
- i) Proposamen sormenezkoak eta berritzaileak egin ditu.

4. Estrategia, jarduera eta baliabide psikomotorrak planifikatzen ditu, eta horiek hezkuntza psikomotorren printzipioekin, eta hartzailen diren banakoen eta taldearen ezaugarrietan lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hezkuntza psikomotorren printzipioak identifikatu ditu.
- b) Hartzailen ezaugarri psikomotorrak identifikatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- c) Hartzailen ezaugarri psikomotorren araberako helburuak finkatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- d) Hartzailen ezaugarri psikomotorretarako jarduera egokiak proposatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- e) Hartzailen ezaugarri psikomotorretarako baliabide egokiak hautatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- f) Hartzailen ezaugarri psikomotorretara egokitutako espazioak antolatu ditu, haien adina kontuan izanda.
- g) Hartzailen ezaugarri psikomotorretara egokitzeko jardueren denbora-banaketa ezarri du, haien adina kontuan izanda.
- h) Hezkuntza psikomotorren printzipioak eta jardun-esparruak identifikatu ditu.
- i) Haur-hezkuntzan psikomotritateak duen garrantzia baloratu du.

5. Esparru sentsozialean, motorrean, kognitiboan eta psikomotorrean esku hartzeko jarduerak abiarazten ditu, eta horiek aurreikusitako helburuekin eta haurren ezaugarriekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak egitean sor daitezkeen zailtasun nagusiak deskribatu ditu.
- b) Lekuak antolatzeko, jarduera eta taldearen ezaugarriak kontuan hartu ditu.
- c) Jardueraren berezko materialak prestatu ditu.
- d) Jarduerak denboraren plangintzara egokituta egin ditu.
- e) Jardueraren garapenean bakoitzaren erritmoak eta beharrak errespetatu ditu.
- f) Adeitasun eta konfiantzazko giroa bultzatzen duten esku hartzeko estrategiak hautatu ditu.
- g) Jarduerak plangintzapean ezartzearen koherentzia baloratu du.
- h) Gertaeren aurrean erantzun du.
- i) Esku hartzeko ingurune seguruak sortu ditu.

6. Esparru sentsozialean, motorrean, kognitiboan eta psikomotorrean esku hartzeko prozesua eta horren emaitza ebaluatzen du, prozesuan garrantzitsuak diren aldagaiak argudiatzen ditu eta horien hautaketa justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazio-adierazleak hautatu ditu.
- b) Haur bakoitzaren ezaugarrietarako eta adinerako ebaluazio-tresna egokiak hautatu ditu.
- c) Prozedura egokiari jarraituz aplikatu du ebaluazio-tresna.
- d) Ebaluazio-prozesutik ateratako datuak ezarritako euskarrian erregistratu ditu.
- e) Esku-hartzea ebaluatzeko prozesuaren inguruan bildutako informazioa interpretatu du.
- f) Beste profesional batzuekin zein egoeratan lankidetzan aritu beharra dagoen identifikatu du.
- g) Esku-hartze desegoki baten arrazoi posibleak identifikatu ditu.
- h) Aurreikusitako jarraibidearekiko profesionalaren jarduna eta jarrera egokitu du.

c) Oinarrizko edukiak

ESPARRU SENTSORIALEAN ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK, JARDUERAK ETA BALIABIDEAK PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esparru sentsozialaren azalpen-teoriak identifikatzea. - Esparru sentsozialeko eboluzio-ezaugarriak adinaren arabera identifikatzea. - Eboluzio-ezaugarrien araberako helburuak eta jarduerak finkatzea. - Baliabidea, espazioak eta denbora antolatzea. - Garapen sentsozialaren asaldura nagusiak identifikatzea. - Garapen sentsozialaren hezkuntza-tratamendua identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sentsazioak. Oinarri psikologikoak eta fisiologikoak. - Pertzepzioa. - Zentzumenak. - Hezkuntza sentsozialaren helburuak. - Asaldura sentsozialak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Garapen sentsozialen miaketak duen garrantzia baloratzea. - Sormena eta jarrera berritzailea esku-hartzearen plangintzan.

	<ul style="list-style-type: none"> - Esparru sentsozialean esku hartzearen garrantzia baloratzea, ikasleek ingurunea mia dezaten errazteko baliabide gisa.
--	---

ESPARRU MOTORREAN ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK, JARDUERAK ETA BALIABIDEAK PLANIFIKATzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esparru motorreko eboluzio-ezaugarriak adinaren arabera identifikatzea. - Eboluzio-ezaugarrien arabeko helburuak eta jarduerak finkatzea. - Baliabidea, espazioak eta denbora antolatzea. - Garapen motorraren asaldura nagusiak identifikatzea. - Erabili beharreko laguntza teknikoak hautatzea.
----------------	--

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Garapen motorrak baldintzatzen duten faktoreak. - Garapen motorraren legeak. - Automatismoen eta gorputz-jarreraren garapena haurren baitan. - Laguntza teknikoak. - Motrizitatearen hezkuntzaren helburuak. - Asaldurak garapen motorrean.
----------------	--

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia pertsonala eskuratzeko garapen motorrak duen garrantzia baloratzea. - Haurren mugikortasuna errazteko espazio seguruak baloratzea.
--------------	---

ESPARRU KOGNITIBOAN ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK, JARDUERAK ETA BALIABIDEAK PLANIFIKATzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Garapen kognitiboa azaltzeko teoriak identifikatzea. - Esparru kognitiboko eboluzio-ezaugarriak adinaren arabera identifikatzea. - Eboluzio-ezaugarrien arabeko helburuak eta jarduerak finkatzea. - Baliabidea, espazioak eta denbora antolatzea. - Garapen kognitiboaren asaldura nagusiak identifikatzea. - Garapen sentsozial-motorraren eta kognitiboaren arteko lotura haurtzaroan.
----------------	--

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Prozesu kognitiboa. Adimena. Arreta eta oroimena. Sormena. Gogoeta eta arrazoibidea. - Eboluzio-une nagusiak garapen kognitiboan. - Espazioaren eta denboraren egituraketa eta antolamendua. - Garapen kognitiboaren asaldura nagusiak eta horien hezkuntza-tratamendua. - Hezkuntzako esku-hartzearen helburuak garapen kognitiboan.
----------------	---

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia pertsonala eskuratzeko garapen motorrak duen garrantzia baloratzea. - Haurren garapen kognitiborako baliabide gisa IKTen erabilera baloratzea. - Sormena eta jarrera berritzailea esku-hartzearen plangintzan.
--------------	--

ESTRATEGIA, JARDUERA ETA BALIABIDE PSIKOMOTORRAK PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza psikomotorraren printzipioak eta esparruak identifikatzea. - Hartzaileen ezaugarri psikomotorrak identifikatzea, haien adina kontuan izanda. - Gorputz-eskema eta horren eboluzioa aztertzea. - Motrizitate grafikoa eta horren eboluzioa aztertzea. - Adinaren arabera, helburu eta jarduera psikomotorrak finkatzea. - Baliabidea, espazioak eta denbora antolatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Psikomotrizitatea: ezaugarriak eta eboluzioa. - Kontrol tonikoa. - Jarreraren kontrola. - Espazioaren eta denboraren egituraketa. - Lateralitatea. - Jardun psikomotorraren helburuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Psikomotrizitatearen eginkizun globalizatzailea, eta garapen kognitiboa, afektiboa eta motorra baloratzea. - Haur-hezkuntzan psikomotrizitateak duen garrantzia baloratzea.

ESPARRU SENTSORIALEAN, MOTORREAN, KOGNITIBOAN ETA PSIKOMOTORREAN ESKU HARTZEKO JARDUERAK ABIARAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduerak egitean sor daitezkeen zailtasun nagusiak identifikatzea. - Lekuak antolatzeko, jarduera eta taldearen ezaugarriak kontuan hartzea. - Jardueraren berezko materialak prestatu eta hautatzea. - Jarduerak denboraren plangintzara egokituta egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Garapen kognitiboa, sensoriala, motorra eta psikomotorra.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen eboluzio-eritmoak eta bakoitzaren beharrak errespetatzeak duen garrantziaz jabetzea. - Egoera afektiboak eta konfiantzazkoak sortzeak duen garrantziaz jabetzea. - Ingurune seguruak sortzeak duen garrantziaz jabetzea. - Jarduerak plangintzapean abiaraztearen koherentziak duen garrantzia baloratzea.

ESPARRU SENTSORIALEAN, MOTORREAN, KOGNITIBOAN ETA PSIKOMOTORREAN ESKU HARTZEKO PROZESUA ETA HORREN EMAITZA EBALUATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio-adierazleak hautatzea. - Ikasle bakoitzaren ezaugarrietarako eta adinerako ebaluazio-tresna egokiak hautatzea. - Prozedura zuzenari jarraituz ebaluazio-tresna aplikatzea. - Ebaluazio-prozesutik ateratako datuak ezarritako euskarrian erregistratzea. - Bildutako informazioa interpretatzea. - Esku-hartze desegoki baten arrazoi posibleak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Alderdi hauek ebaluatzeko teknikak eta tresnak: <ul style="list-style-type: none"> o Esku-hartzea.

	o Garapen sentsoriala, motorra, kognitiboa eta psikomotorra.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku-hartzea hobetzeko baliabide gisa ebaluazioa baloratzea. - Aurreikusitako jarraibidearekiko profesionalaren jarduna eta jarrera baloratzea. - Beste profesional batzuekin lankidetzan aritzearen garrantziaz jabetzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honetan, 0 eta 6 urte bitarteko ikasleen eboluzio-garapenaren esparru bakoitzean barneratuko gara: sentsoriala, kognitiboa, motorra eta psikomotorra.

Hasteko, komenigarria dirudi termino garrantzitsuak aztertzea, eta haurtzaroaren hastapenetako eboluzio-garapena kokatzen lagunduko duten joerak eta teoriak erreparatzea.

Jarraian, esparru bakoitzaren ezaugarriak bilduko dira, eta eboluzioaren une nagusiak, litezkeen asaldurak, jarduerak eta garapen egokirako beharrezko materiala finkatuko dira.

Honako sekuentziazioa proposatzen edo gehien aholkatzen dugu:

- Eboluzio-garapenarekin lotutako funtsezko kontzeptuen inguruko esparru teoriko bat ezartzea.
- Esparru sentsoriala aztertzea.
- Esparru kognitiboa aztertzea.
- Esparru motorra aztertzea.
- Jardun psikomotorra.

2) Alderdi metodologikoak

Komeni da unitate didaktikoen eduki teorikoei buruzko aurkezpena modu erakargarrian egitea (teknologia berriak erabiliz, bideoak ikusiz, kasuak aurkeztuz...), ikasleei edukiaz interesatzen eta etengabe motibazio-jarrerari eusten laguntzeko.

Era berean, komeni da irakasleak, modulua osatzen duten edukiak jorratzean, horietan proposatutako sekuentziazioa kontuan hartzea. Horri esker, ikasleek oinarri teoriko egokia lortu ahal izango dute diseinatutako jarduerak arian-arian egiteko. Garrantzitsua da edukiak kohesioz aurkeztea, moduluari esanahia eta orokortasuna emateko, eta loturarik gabeko atalak ezartzeko joera saihestearren.

Aurrera egin ahala, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen partaidetza eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta hezkuntza-jardunarekin lotutako abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira, banaka nahiz taldean: azalpenak, prentsa-albisteak erabiltzea, teknologia berrien bidez informazioa bilatzea, role-playing... Praktikatze horren bidez, irakaskuntzari oroimenean gehiegi oinarritutako ikuspegia ematea saihestuko dugu eta barneratze

bidezko ikaskuntza bilatuko dugu. Unitate didaktiko guztietan, jarrerazko eta prozedurazko edukien garrantzia azpimarratu behar da.

Azkenik, 0 eta 6 urte bitarteko ikasleen garapenak duen eboluzioari buruzko ezagupenak irakasten bukatzeko, irteerak egingo dira eta esparru honetako profesionalen lankidetzara joko da, informazio-solasaldien bidez lanbidearen errealitatea erakutsi dezaten.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Eboluzio-garapenarekin lotutako kontzeptuetan (hazkundera, heldzea) sakontzea:
 - 0 eta 6 urte bitarteko ikasleen eboluzio-garapena aztertzeko beharrekoak diren oinarritzko kontzeptuekin glosario bat prestatzea.
- ✓ Garapenaren inguruko esparru teoriko bat (teoriak, legeak) ezartzea:
 - Eragin handieneko egileen lanak eta teoriak biltzea.
- ✓ 0 eta 6 urte bitarteko ikasleen eboluzio-garapenari buruzko fitxategi bat prestatzea:
 - 0 eta 6 urte bitarteko ikasleen ezaugarri sentsozialak, kognitiboak eta motorrak biltzea.
 - Esparru bakoitzean eboluzioarekin lotutako helburuak eta une nagusiak finkatzea.
 - Litezkeen asaldurak identifikatzea.
 - Estimulaziorako jarduerak prestatzea.
 - Proposatutako jardueren helburuak betetzeko material egokiena hautatu eta prestatzea.
 - Adin horretako ikasle guztiei erantzuteko litezkeen egokitzapenak egitea.
 - Laguntza teknikoak hautatzea.
- ✓ Jardun psikomotorrean sakontzea:
 - Jardun psikomotorrerako baldintza egokienak hautatzea.
 - Jarduerak prestatzea.
 - Horiek abiaraztea.
 - Egokitzapena, beharrezkoa balitz.
 - Esperientziak aztertzea.
- ✓ Ebaluazio-teknika nagusiak identifikatzea:
 - Metodoa hautatzea (behaketa).
 - Balorazioak eta jarraipenak ahalbidetuko dituzten behaketa-erregistroak prestatzea.
 - Kasuak aztertzea.

6. lanbide-modulua GARAPEN SOZIOAFEKTIBOIA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Garapen sozioafektiboa
Kodea:	0016
Heziketa-zikloa:	Haur Hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	165 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	8
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte esku-hartzea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1032_3: Objektuak ukituta, eta haurren arteko eta helduekiko harremanen bidez ingurunea miatzea errazten duten ekintzak garatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 4.a / 5.a / 6.a / 7.a / 9.a / 11.a / 12.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Haurren garapen afektiboari laguntzeko esku-hartzeak planifikatzen ditu. Horretarako, azalpen-teoriak eta esku-hartzearen xede diren banakoen eta taldearen ezaugarriak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Haurren garapen afektiboari buruzko ikusmolde teoriko desberdinak identifikatu ditu.
- Haurren afektibitatearen, eta horren eboluzioaren eta asaldura ohikoenen ezaugarri nagusiak deskribatu ditu.
- Haurren garapen osoan atxikimenduak duen garrantzia baloratu du.
- Esku-hartzea diseinatzeko aldagai garrantzitsuak identifikatu eta kontuan hartu ditu.
- Haurren eboluzio-ezaugarrien araberako helburuak finkatu ditu.
- Helburuekin eta haurren ezaugarriekin koherenteak diren jarduerak, baliabideak eta estrategiak proposatu ditu.
- Egokitzapenaldia antolatzeko estrategia egokiak deskribatu ditu.
- Nortasun pertsonala eta norberaren irudi positiboa garatzen laguntzen duten jarduerak proposatu ditu.
- Nortasun pertsonal egokia eraikitzeko helduek eta gurasoek duten garrantzia baloratu du.
- Subjektuaren garapen osoan afektibitateak duen garrantzia baloratu du.

2. Haurren garapen sozialari laguntzeko esku-hartzeak planifikatzen ditu. Horretarako, esku-hartzeak eragina duten faktoreekin, eta haien xede diren banakoen eta taldearen ezaugarriekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Haurren garapen sozialari buruzko teoria desberdinak identifikatu ditu.
- b) Garapen sozialean esku hartzen duten agente sozialen eginkizunak identifikatu eta deskribatu ditu.
- c) Garapen sozialaren eboluzio-jarraibide nagusiak deskribatu ditu: afektibitatea, eboluzioa, atxikimendua, asaldurak.
- d) Esku-hartzea diseinatzeko aldagai sozial garrantzitsuak identifikatu eta kontuan hartu ditu.
- e) Haurren esparru sozialeko eboluzio-ezaugarrien araberako helburuak finkatu ditu.
- f) Helburuekin eta haurren ezaugarriekin koherenteak diren jarduerak, baliabideak eta estrategiak proposatu ditu.
- g) Haurren baitan gizarte-trebetasunak garatzeko jarduerak eta estrategiak proposatu ditu.
- h) Ingurune soziala behatzen eta miatzen laguntzen duten jarduerak proposatu ditu.
- i) Haurren sozializazioan eskolak duen eginkizuna baloratu du.
- j) Haurren garapen osoan afektibitateak duen garrantzia baloratu du.

3. Haurrak balioetan garatzen laguntzeko esku-hartzeak planifikatzen ditu, eta horiek azalpen-teoriekin, eta esku-hartzearen xede diren banakoen eta taldearen ezaugarriekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Haurrak balioetan garatzeari buruzko ikusmolde teoriko desberdinak identifikatu ditu.
- b) Haurren moraltasunaren ezaugarriak eta eboluzioa deskribatu ditu.
- c) Esku-hartzea diseinatzeko aldagai sozial garrantzitsuak identifikatu eta kontuan hartu ditu.
- d) Haurren eboluzio-ezaugarrien araberako helburuak finkatu ditu.
- e) Helburuekin eta haurren eboluzio-ezaugarriekin koherenteak diren jarduerak, baliabideak eta estrategiak proposatu ditu.
- f) Balioetan hezteko programak eta jarduerak, garapen osoan laguntzen dutenak, proposatu ditu.
- g) 0 eta 6 urte bitarteko haurrek balioak eta arauak barneratzeko helduaren jarrera baloratu du.

4. Haurren garapen sexualari laguntzen dioten esku-hartzeak planifikatzen ditu. Horretarako, haurren sexualitatearen eboluzio-ezaugarriak eta estereotipo sozialen eragina aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Haurren garapen sexualari buruzko ikusmolde desberdinak identifikatu ditu.
- b) Sexu- eta genero-nortasuna eskuratzean eragina duten faktoreak identifikatu eta deskribatu ditu.
- c) Haurren sexualitatearen ezaugarri nagusiak deskribatu ditu.
- d) Sexu- eta genero-nortasunaren eraikuntzen estereotipoek duten eginkizuna baloratu du.
- e) Haurren eboluzio-ezaugarrien araberako helburuak finkatu ditu.
- f) Sexu-nortasuna garatzen laguntzen duten jarduerak, baliabideak eta estrategiak proposatu ditu.
- g) Jardun pedagogiko ez-sexista bultzatzen edo oztopatzen duten elementu testuingurukoak, pertsonalak eta antolamendukoak identifikatu eta deskribatu ditu.
- h) Genero-berdintasuna oztopatzen duten elementuak antzemateko estrategiak eta mekanismoak ezarri ditu.

- i) Berdintasuna bultzatzen duten programak, jarduerak eta jardun-estrategiak deskribatu ditu.
- j) Esku hartzeko baliabide didaktiko ez-sexistak hautatu ditu.
- k) Genero-berdintasunarekin lotutako norberaren jarrerak eta jokabideak aztertu beharra baloratu du.

5. Haurren ohiko portaera-asalduretan eta harremanetako gatazketan esku hartzeko estrategiak programatzen ditu. Horretarako, portaera aldatzeko teoriak eta teknikak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Portaera aldatzeko teoria eta teknika nagusiak deskribatu ditu.
- b) Pertsonen arteko harremanetan haurtzaroan ohikoenak diren portaera-asaldurak eta gatazkak identifikatu ditu.
- c) Esku hartzeko programaren faseak ezarri eta deskribatu ditu.
- d) Esku-hartzearen programazioan diagnostikoak duen garrantzia baloratu du.
- e) Portaera- edo harreman-asalduren sorburuak identifikatzeko estrategiak eta tresnak ezarri ditu.
- f) Egoera bakoitzerako esku hartzeko teknika egokienak identifikatu ditu.
- g) Haurren artean adostasuna errazten duten estrategiak deskribatu ditu.
- h) Esku-hartzearen jarraipena egiteko tresnak egokienak deskribatu ditu.
- i) Haurren portaera-arazoaren eta harreman-gatazken aurrean hezitzailearentzako jardunbide egokiak deskribatu ditu.
- j) Haurrek portaera modulatu eta kontrolatzeko dituzten mugak baloratu ditu.

6. Esparru sozioafektiboan esku hartzeko programak eta jarduerak abiarazten ditu, eta horiek hezitzailearen estrategia metodologikoekin eta eginkizunarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Haurren garapen sozioafektiboa errazteko, hezitzaileak izan behar dituen jarrerak eta bete behar duen eginkizuna deskribatu du.
- b) Nortasun positiboa sortzen laguntzen duten harreman-estiloak identifikatu ditu.
- c) Haurrekin harreman egokiak izateko beharrezkoak diren gizarte-trebetasunak identifikatu ditu.
- d) Haurrek emozioak adierazi eta identifika ditzaten bultzatu du.
- e) Espazioak antolatzeko, haurren behar sozioafektiboak kontuan hartu ditu.
- f) Baliabideak eta taldekatzeak haurren elkarreragin askea errazteko antolatu ditu.
- g) Bakoitzaren erritmoak errespetatu ditu.
- h) Esparru sozioafektiboarekin lotutako gertaeren aurrean behar bezala erantzun du.
- i) Adeitasun eta konfiantzazko giroa sortzeko hezitzaileak duen eginkizuna aztertu eta baloratu du.
- j) Esku-hartzea garatzean genero-berdintasunaren printzipioa errespetatu du.
- k) Askotariko rolak betetzen laguntzen duten estrategiak aplikatu ditu, haien banaketa sexista saihestuta.

7. Esparru sozioafektiboan egindako esku-hartzea ebaluatzen du, eta erabilitako aldagaien eta tresnen hautaketa justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esparru sozioafektiboko ebaluazio-adierazle egokienak identifikatu ditu.
- b) Haurren egoera sozioafektiboari buruzko informazioa lortzeko tresna egokiak diseinatu edo hautatu ditu.

- c) Hasierako ebaluazioaren garrantzia justifikatu du.
- d) Prozedura egokiari jarraituz aplikatu du ebaluazio-tresna.
- e) Ebaluazio-prozesutik ateratako datuak ezarritako euskarrian erregistratu ditu.
- f) Informazioa lortu eta erregistratzean objektibotasunak duen garrantzia baloratu du.
- g) Ebaluazio-prozesuen inguruan bildutako informazioa behar bezala interpretatu du.
- h) Beste profesional batzuen parte-hartzea eskatzen duten egoerak eta bete beharreko jardunbideak identifikatu ditu.
- i) Eman beharreko informazioarekin eta haren hartzailearekin koherenteak diren txostenak egin ditu.
- j) Esku-hartze desegoki baten arrazoi posibleak identifikatu ditu.
- k) Desbideratzeak zuzentzeko eta esku-hartzea hobetzeko ebaluazioak duen garrantzia baloratu du.

c) Oinarrizko edukiak

GARAPEN AFEKTIBOKO ESKU HARTZEA PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Garapen sozioafektiboaren koadro bat egitea. - Garapen afektibo egokia erraztuko duten egoerak prestatzea. - Emozio nabarmeneko egoerak identifikatzea. - Emozioak adierazten lagunduko duten jarduerak diseinatzea. - Haurraren garapen afektiboa behatu eta ebaluatu ahal izateko tresnak diseinatzea. - Afektibitatearekin lotutako gatazkak lantzeko ipuinak erabiltzea. - Haurraren garapen afektiboa erraztuko duten jarduerak prestatzea. - Garapen afektiboarekin lotutako arazoak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Garapen afektiboa azaltzen duten teoriak. - Haurren afektibitatearen ezaugarriak. - Haurren afektibitatearen eboluzio-faseak. - Atxikimendua: etapak atxikimenduaren garapenean, haren sorreran eta eboluzioan eragina duten faktoreak. - Eskolaren eginkizuna haurraren garapen afektiboan. - Egokitzapenaldia garapen afektiboan. - Gatazka ohikoenak garapen afektiboan. - Garapen afektibo egokia erraztuko duten estrategiak. - Emozioak haurtzaroan. - Emozioak bideratzea. Pentazitatea. - Negarra: adierazpen emozionala. - Beldurra, lotsa eta harrotasuna. - Gogamenari buruzko teoria. - Garapen afektiboa aniztasunean. - Hezitzailearen eginkizuna garapen afektiboan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren afektibitatearekin lotutako jardueren garrantzia baloratzea. - Entzuteko jarrera. - Emozioak bideratzeko jarrera arduratsua. - Jarrera malgua aniztasunaren aurrean. - Arazo afektiboak antzemateko behaketak duen garrantzia baloratzea. - Konponbideak bilatzeko ekimena. - Haurraren garapen afektiboan familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren baloratzea.

GARAPEN SOZIALEKO ESKU HARTZEA PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren garapen soziala behatu eta ebaluatu ahal izateko tresnak diseinatzea. - Sozializazioarekin lotutako gatazkak lantzeko ipuinak erabiltzea. - Haurren garapen soziala erraztuko duten jarduerak prestatzea. - Haurren garapenaren ezaugarriak aztertzea. - Garapen sozial egokia errazten duten oinarrizko beharrak identifikatzea. - Haurtzaroko garapen sozialarekin lotutako arazoak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Garapen sozialari buruzko teoriak. - Sozializazio-prozesuaren ezaugarriak eta gatazkak haurren baitan. - Agentek sozializazio-prozesuan. - Nortasuna eta ezagutza soziala eraikitzea. - Norbera ezagutzea. - Besteak ezagutzea. - Garapen soziala errazten duten estrategiak. - Enpatiaren garapena. - Eskolaren eta hezitzailearen eginkizuna sozializazio-prozesuan. - Garapen soziala aniztasunaren aurrean.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Entzuteko jarrerak duen garrantziaz jabetzea. - Harreman sozialetan adiskidetzeko jarrera baloratzea. - Haurren arteko harremanetan behatzeko arrera baloratzea. - Konponbideak bilatzeko ekimena. - Aniztasun soziala errespetatzea. - Haurren garapen sozialean familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren baloratzea.

BALIOAK GARATZEKO ESKU HARTZEA PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurren garapen moralak behatu eta ebaluatu ahal izateko tresnak diseinatzea. - Moralarekin lotutako gatazkak lantzeko ipuinak erabiltzea. - Haurren garapen moralak erraztuko duten jarduerak prestatzea. - Haurren garapen moralak erraztuko duten egoerak aztertzea. - Garapen moralak errazten duten rolak identifikatzea. - Haurtzaroko garapen moralak dituen ezaugarriak aztertzea. - Haurtzaroko garapen moralarekin lotutako arazoak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Garapen moralari buruzko teoriak. - Garapen moralaren ezaugarriak. - Balioetan haztea errazteko estrategiak. - Garapen moralak aniztasunaren aurrean. - Hezitzailearen eginkizuna garapen moralean.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Entzuteko jarrerak duen garrantzia baloratzea. - Erantzunak edo portaerak baloratzeko jarrera arduratsua. - Jarrera malgua aniztasunaren aurrean. - Behatzeko jarrerak duen garrantzia baloratzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Konponbideak bilatzeko ekimena. - Haurraren garapen moralean familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren baloratzea.
--	---

GARAPEN SEXUALEKO ESKU HARTZEA PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Rolak lantzea. - Haurtzaroan garapen sexualak dituen ezaugarriak aztertzea. - Telebista-iragarkietan, jolasetan eta bestelakoetan egoera sexistak aztertzea. - Haurraren garapen sexuala behatu eta ebaluatu ahal izateko tresnak diseinatzea. - Sexualitatearekin eta rolak onartzearekin lotutako gatazkak lantzeko ipuinak erabili eta prestatzea. - Haurraren garapen sexuala erraztuko duten jarduerak prestatzea. - Haurtzaroko garapen sexualarekin lotutako asaldurak identifikatzea.
----------------	---

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurtzaroko garapen sexualari buruzko teoriak. - Haurtzaroan garapen sexualak dituen ezaugarriak. - Garapen sexualaren faseak. - Gatazkak garapen sexualean. - Garapen sexuala aniztasunaren aurrean. - Hezitzailearen eginkizuna garapen sexualean.
----------------	---

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Behatzeko jarrerak duen garrantzia baloratzea. - Aniztasuna errespetatzea. - Haurraren garapen sexualean familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren baloratzea.
--------------	--

PORTAERAKO ASALDURA ETA GATAZKA OHIKOENETAN ESTRATEGIAK PROGRAMATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gatazka ohikoenen jarraipena egiteko tresnak prestatzea. - Portaerako asalduren ezaugarri ohikoena aztertzea. - Gatazka handieneko egoerak aztertzea. - Portaerako asaldura ohikoena behatu eta ebaluatzeko tresnak diseinatzea. - Gatazka ohikoena lantzeko ipuinak erabili eta prestatzea. - Gatazkarik gabeko egoerak erraztuko dituzten jarduerak prestatzea. - Portaerako arazoekin lotutako asaldurak identifikatzea.
----------------	---

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Portaerako asaldura eta gatazka ohikoenei buruzko teoriak. - Portaera aldatzeko teknikak. - Gatazkak ikasgelan. - Gatazkak portaeran. - Aniztasunarekiko arreta portaerako arazoetan. - Hezitzailearen eginkizuna gatazketan.
----------------	--

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Behatzeko jarrerak duen garrantzia baloratzea. - Bestea baloratu eta errespetatzea. - Ikasgelako gatazka-egoeretan familiaren eta eskolaren arteko
--------------	--

	lankidetzaz baloratzea. - Gatazken litezkeen sorburuak aztertzeke lankidetzazko jarrera.
--	---

ESPARRU SOZIOAFEKTIBOAN ESKU HARTZEAK ABIARAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Errespetu eta tolerantziatzeko giroa erraztuko duten jarduerak prestatzea. - Egoera ohikoenak aztertzea. - Errespetuzko egoerak erraztuko dituzten esku hartzeke jarraibideak prestatzea. - Gatazkei aurre hartzeke behaketa-jarraibideak diseinatzea.
----------------	---

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hezitzailearen eta haurren arteko harremana. - Haurren gizarte-trebetasunak. - Portaera imitatzeke ereduak. - Aniztasunarekiko arreta. - Gatazkek ebaztea. - Hezitzailearen eginkizuna gatazketan.
----------------	---

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Behatzeko jarrerak duen garrantzia baloratzea. - Aniztasuna errespetatzea. - Jarraitu beharreke eredu gisa hezitzailearen eginkizunak duen garrantziari buruzko gogoetazko jarrera. - Adiskidetzeko eta laguntzeke jarrera haurren garapen sozioafektiboan.
--------------	--

ESPARRU SOZIOAFEKTIBOKO ESKU HARTZEA EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Garapen sozioafektiboa ebaluatzeke behaketa-jarraibideak prestatzea. - Garapen sozioafektiboa ebaluatzeke irizpideak diseinatzea. - Ebaluazio-txostenak prestatzea. - Garapen sozioafektiboa ebaluatzeke tresnak diseinatzea. - Haurren garapenei buruzko datuak biltzeke tresnak prestatzea.
----------------	---

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Garapen sozioafektiboa ebaluatzea. - Garapen sozioafektiboan kontuan hartu beharreke aldagaiak. - Datuak biltzeke tresnak. - Ebaluazio-txostenak. - Garapen sozioafektiboaren eragina haurren garapen osoan.
----------------	--

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Behatzeko jarrerak duen garrantzia baloratzea. - Haurren garapen sozioafektiboa erraztuko duen jarrera positiboa. - Aniztasuna errespetatzea. - Haurren garapen osoan garapen sozioafektiboak duen garrantzia baloratzea.
--------------	--

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau sekuentziatzeko 3 fase proposatzen ditugu. Denboran, ikasturteko hiru hiruhilekoekin bat etor litezke.

Lehen faseak garapen soziala eta afektiboa bilduko lituzke. Hala ere, ondorengo faseetan ikusiko diren beste garapen batzuekin lotuta daude. Giza garapenari buruz ari garela, jaiotzen garenetik gure munduan eraginkortasunez integratzeaz kezkatu gara beti. Interes horrek ikasleentzat ezagutza-eragile gisa balio behar du (garapen soziala).

Haurrak, hazten den neurrian, pixkanaka ezagutzen dituen errealitatez eta horrek dakarren guztiaz jabetu behar du. Ikasle bakoitzak garapen bakoitzean egingo duen lanak gainerakoak ezagutzera eramango du. Haurra bizirauletzat ikusiko du, harremanetan jartzeko eta lotura afektiboak ezartzeko beharra duen gizakitzat. Izan ere lotura horiek elikatuko dute garapen sozioafektiboa (garapen afektiboa).

Pertsonen arteko harremanez, sistema eta instituzio sozialez elikatu ahal izateak bere garapenen eskema zuzena itxuratzen lagunduko dio. Errealitate horiek jokabide-kode, arau, ohitura... desberdinetatik ulertuko ditu. Bidezkoari eta bidegabekoari, berarentzat balorazioa dakarrenari eta ez dakarrenari buruzko ezagutza sortuko du (garapen morala).

Pertsonen arteko harreman horietan, norberaren ezagutzatik eta besteen ezagutzatik abiatuta, ikasleek garapen sexualak dakartzan roletan lan egin beharko dute. Haur bakoitza identifikatzeak, errespetuz eta bakoitzak egindako hautaketa baloratuta, benetakoa ikuspegi batetik eta haur-ikuspegi batetik lan eginaraziko die.

Emozioen munduarekin zerikusia duen guztiaren aurrean behatzeko eta errespetatzeko gaitasunak bultzatu ahal izateko esperientzia baliatu nahi genuke. Haurren emozioak adierazten eta bideratzen lagunduko dieten ariketak egin beharko dituzte.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau egoeretan oinarritzen da batik bat; hau da, ikasleek hurrekin une guztietan enpatiza dezaten, eta haiek zer pentsatzen eta sentitzen duten jakin dezaten lortu behar dugu.

Horretarako, aukerak metodologikoki txandakatu behar direla uste dugu.

Alde batetik, malgua eta aktiboa izan behar du. Magistrala izan behar du irakaslearekiko; adin bakoitzerako garapen-prozesu egokiak adierazteko. Baina, beste alde batetik, deduktiboa izan behar du, ikasleek irakasleak eskain ditzakeen ezagupen orokorretatik abiatuta ezagupen partikularrak lortu ahal izateko.

Ikasleek parte hartu behar dute, haien interesak eta motibazioak garapen bakoitza zehatz-mehatz ezagutzera eraman behar baitituzte. Haurren alderdi guztietara hurbildu behar dutenez, askotariko jardueretan parte hartu behar dute.

Metodo hitzezkoa edo sinbolikoa erabili behar da, ikasleak parte hartzera eta konponbide intuitiboak proposatzera bultzatuko dituena.

Horrekin guztiarekin batera, irakaslea ikasle bakoitzaren aurrerabideen jarraipen sakona egitera eramango duten jarduerak garatuko dira.

Modulu honetan, haurren hezkuntza emozionalari buruzko lan arretatsua egin behar da. Hortaz, etorkizunean profesionalak izango diren ikasleengandik haurren sentimenduak bideratzen lagunduko dieten kontzientziazioa eta heziketa lortu behar dira. Horretarako, haurrekin harremanetan egon behar dute, irakaslearen kontrolpean eta segimendupean, etapa honetako haurrek nola pentsatzen eta sentitzen duten arretaz behatu eta aztertzeke.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Garapen sozialari dagokionez:
 - Garapen sozialari eta horren inguruko teoriari buruzko eboluzio-koadro bat prestatzea.
 - Garapen sozialarekin lotutako kasu edo egoera zehatzak aztertzea.
 - Garapen soziala lantzeko ipuinak hautatzea.
 - Agente sozialek haurraren garapenean betetzen dituzten eginkizunei buruzko koadro bat prestatzea.
 - Ingurune soziala miaztea erraztuko duten jarduerak programatzea.
 - Haurtzaroko gatazka sozialak aztertzea eta konponbideak diseinatzea.
 - Eskolaren eginkizun sozializatzailetik, haurraren ingurunean abiarazi beharreko jardunbide egokiak diseinatzea.
- ✓ Garapen afektiboari dagokionez:
 - Garapen sozialaren jatorriari buruzko teoriaren inguruko eskema bat egitea.
 - Atxikimenduaren garapenean etapak diseinatzea.
 - Gatazka afektiboak eta horiei erantzuteko jardunbideak aztertzea.
 - Familien eta berdinen arteko afektibitatea erraztuko duten jarduerak programatzea.
 - Afektua eta atxikimendua lantzeko ikasgelan aplikatu daitezkeen materialak hautatzea.
 - Egokitzapenaldirako jardunbideak diseinatzea.
- ✓ Garapen moralari dagokionez:
 - Haurraren garapen moraleko une garrantzitsuak eta esanguratsuenak laburbilduko dituen ardatz kronologiko bat egitea.
 - Haurrei iritzi kritikoak lantzen lagunduko dieten jarduerak diseinatzea.
 - Garapen moralarekin lotutako gatazka-egoerak aztertzea.
 - Haurraren garapen moralarekin lotutako gatazka-egoerarako proposamenak eta konponbideak diseinatzea.
 - Enpatia lantzea eskatuko duten haurrentzako jarduerak programatzea.
 - Balioak eta arauak orokortzearekin lotuta, gurasoentzako erantzun-jarraibideak diseinatzea.
 - Haur bat behatzea eta egoera desberdinetan haren jokabidea idatziz jasotzea.
- ✓ Garapen sexualari dagokionez:
 - Haurrek bere burua ezagutzeko erraztuko duten jarduerak diseinatzea.
 - Garapen sexualari dagokionez, haurren arteko gatazka-egoerak aztertzea.
 - Gatazka-egoera horiei aurre egiteko esku-hartzea diseinatzea.
 - Haurraren garapen sexuala behatu eta ebaluatu ahal izateko tresnak, berdintasuna erraztuko dutenak, diseinatzea.
 - Telebista-iragarkietan, jolasetan eta jostailuetan egoera sexistak aztertzea, eta hautabideak proposatzea.

- Genero-berdintasunerako jardun-estrategiak erraztuko dituzten jarduerak programatzea.

7. lanbide-modulua GIZARTE TREBETASUNAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Gizarte-trebetasunak
Kodea:	0017
Heziketa-zikloa:	Haur-hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	132 ordu
Kurtsoa:	1.a
Kreditu kop.:	6
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte esku-hartzea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1027_3: Hezkuntza-komunitatearekin harreman arinak ezartzea eta harreman horiei eustea, eta familiekin, hezitzaile-taldearekin eta bestelako profesionalekin koordinatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 4.a / 5.a / 6.a / 7.a / 10.a / 11.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ingurunearekin komunikazioa eta harreman sozialak errazteko estrategiak eta teknikak abiarazten ditu, eta horiek adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioak deskribatu ditu.
- Lanbidearen jardunean gizarte-trebetasunek duten garrantzia baloratu du.
- Komunikazio-prozesu baten etapak ezaugarritu ditu.
- Komunikazio-estiloak, eta horien abantailak eta mugak identifikatu ditu.
- Komunikazioa eragozten duten oztopo eta interferentzia nagusiak identifikatu ditu.
- Pertsonen arteko harremanetan hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa erabiltzeak duen garrantzia baloratu du.
- Zereginak esleitzeko, argibideak jasotzeko eta ideiak edo informazioa trukatzeko komunikazio eraginkorra ezarri du.
- Egoerara egokitutako gizarte-trebetasunak erabili ditu, kultura-aniztasuna kontuan izanda.
- Pertsonalki modu enpatikoan eta asertiboan komunikatu da.
- Pertsonak ez epaitzeko eta haien berezitasunak (emozioak, sentimenduak, nortasuna) errespetatzeko interesa erakutsi du.
- Aldatzeko eta gertatzen den guztiaz ikasteko jarrera positiboa erakutsi du.
- Pertsonen arteko harreman eta komunikazio egokirako trebetasunak garatzeko autokritikak eta autoebaluazioak duten garrantzia baloratu du.
- Norberaren lanbide-profilaren eta antzeko beste profil batzuen printzipio deontologikoak deskribatu ditu.

2. Taldearen lana dinamizatzen du, teknika egokiak aplikatuta, eta teknika horien hautaketa justifikatzen du taldearen ezaugarrien, egoeraren eta helburuen arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Talde baten funtsezko elementuak, eta taldearen egitura eta dinamika alda ditzaketen faktoreak deskribatu ditu.
- b) Taldeen dinamizazio- eta funtzionamendu-teknikak aztertu eta hautatu ditu.
- c) Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen alde onak azaldu ditu.
- d) Talde batean egon daitezkeen rolak eta horien arteko loturak bereizi ditu.
- e) Talde-lanean banakoen arteko desberdintasunak errespetatu ditu.
- f) Taldeko komunikazioaren oztopo nagusiak identifikatu ditu.
- g) Taldearen egituran eta funtzionamenduan lidergo-eginkizuna eta rolak baliatzeko jardun-estrategiak planteatu ditu.
- h) Talde-laneko prozedura gisa zereginen banaketa zehaztu du.
- i) Taldearen konfiantza lortzeko jarrera tolerante eta enpatikoak duen garrantzia baloratu du.
- j) Lan-giro lasaia eta lankidetzakoa lortu du.
- k) Talde baten egitura eta dinamika identifikatu du, eta teknika eta tresna egokienak aplikatu ditu.
- l) Norberarenaz bestelako iritziak eta taldearen erabakiak errespetatu ditu.

3. Bilerak bideratzen ditu, eta esku hartzeko eta antolatzeko moduak edo estiloak aztertzen ditu, hartzaileen ezaugarriak eta testuingurua kontuan izanda.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bilera motak eta bakoitzaren eginkizunak deskribatu ditu.
- b) Bilera baten garapen-etapak deskribatu ditu.
- c) Bilerak moderatzeko teknikak aplikatu eta justifikatu ditu.
- d) Ideiak argiro eta labur azaltzeko gaitasunaren garrantzia frogatu du.
- e) Bilera baten arrisku-faktoreak eta litezkeen oztopatzeak deskribatu ditu, eta horiek ebazteko estrategiak justifikatu ditu.
- f) Bilera-deialdian informazio egokia eta anitza emateko beharra baloratu du.
- g) Bileretan parte-hartzea lortzeko, motibazioak eta erabilitako estrategiek duten garrantzia deskribatu du.
- h) Bilera bati buruzko informazioa biltzeko eta haren emaitzak ebaluatzeko teknikak aplikatu ditu.
- i) Bilerak gidatzean errespetu eta tolerantziatzko jarrerak erakutsi ditu.

4. Gatazkak kudeatzeko eta arazoak ebazteko estrategiak abiarazten ditu, horiek testuinguruaren ezaugarriak kontuan izanda hautatzen ditu eta dauden ereduak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taldeko arazoaren eta gatazken sorburu nagusiak aztertu eta identifikatu ditu.
- b) Gatazkak kudeatzeko teknika eta estrategia nagusiak deskribatu ditu.
- c) Konponbideak bilatzeko eta arazoak ebazteko estrategia egokienak identifikatu eta deskribatu ditu.
- d) Erabakiak hartzeko prozesuaren faseak deskribatu ditu.
- e) Arazoak eta gatazkak ebazteko, kasu bakoitzerako prozedura egokiak aplikatu ditu.
- f) Arazo eta gatazketarako litezkeen konponbideei dagokienez, besteen iritziak errespetatu ditu.
- g) Bitartekotza- eta negoziazio-teknikak behar bezala aplikatu ditu.
- h) Erabakiak hartzeko prozesuan, pertsonak (erabiltzaileak) kontuan hartu ditu, haien adina nahiz egoera fisikoa eta mentala edozein izanik ere.

- i) Erabakiak hartzeko zeregina eta prozesuaren autoebaluazioa planifikatu ditu.
- j) Erabakiak hartzean komunikazio-trukeak duen garrantzia baloratu du.

5. Haur-hezitzaileak bere lanbide-eginkizunak garatzeko duen kompetentzia soziala, eta taldeak dinamizatu eta gidatzeko gaitasuna ebaluatzen ditu. Horretarako, hasierako prestakuntza eta bizitza osoan ikastekoa aztertzen ditu eta hobetu daitezkeen alderdiak edo adierazleak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazio-adierazleak hautatu ditu.
- b) Gizarte-ikerketako teknikak eta teknika soziometrikoak aplikatu ditu.
- c) Profesionalaren abiapuntuko egoera pertsonalari eta sozialari buruzko autoebaluazioa egin du.
- d) Informazioa biltzeko tresnak diseinatu ditu.
- e) Datuak ezarritako euskarrietan erregistratu ditu.
- f) Bildutako datuak interpretatu ditu.
- g) Hobetu beharra duten egoerak identifikatu ditu.
- h) Hobekuntzan bete beharreko jarraibideak ezarri ditu.
- i) Profesionalak landutako prozesuari buruzko amaierako autoebaluazioa egin du.
- j) Prozesu hori bere lanbide-profilarekin lotu du.

c) Oinarrizko edukiak

GIZARTE HARREMANA ETA KOMUNIKAZIOA ERRAZTUKO DITUZTEN ESTRATEGIAK ETA TEKNIKAK ABIARAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku-hartzearen esparruetan komunikazioaren eta bizi-kalitatearen artean dagoen lotura azertzea. - Komunikazioaren eta gizarte-harremanaren printzipioak adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioekin lotzea. - Zereginak esleitzeko, argibideak jasotzeko eta ideiak edo informazioa trukatzeko komunikazio eraginkorra ezartzea. - Komunikazio enpatikoa eta asertiboa ezartzea. - Egoera bakoitzerako gizarte-trebetasun egokiak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-trebetasunak eta antzeko kontzeptuak. - Komunikazio-prozesua. Etapak. Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioa, eta komunikazio paralinguistikoa. - Eragileak eta oztopoak komunikazioan. - Testuinguruaren balorazio komunikatiboa: eragileak eta oztopoak komunikazioan. - Adimen emozionala. Emozioak eta sentimenduak. - Hezkuntza emozionala. - Adimen soziala. - Babes-mekanismoak. - Komunikaziorako eta gizarte-trebetasunerako programak eta teknikak. - Komunikazio-estiloak: estilo oldarkorra, estilo inhibitua/pasiboa, estilo asertiboa. - Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikariaren eta pareko beste profilen printzipio deontologikoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanbidearen jardunean gizarte-trebetasunek duten garrantzia baloratzea. - Pertsonen arteko harremanetan komunikazio hitzekoa, hitzik gabekoa eta paralinguistikoa behar bezala erabiltzeak duen

	garrantzia baloratzea. <ul style="list-style-type: none"> - Ez epaitzeko interesa eta errespetuzko jarrera pertsonen berezitasunekiko: emozioak, sentimenduak, nortasuna eta bestelakoak. - Aldatzeko eta gertatzen den guztitik ikasteko jarrera positiboa. - Pertsonen arteko harreman eta komunikazio egokirako trebetasunak garatzeko autokritikak eta autoebaluazioak duten garrantzia baloratzea.
--	--

TALDE LANA DINAMIZATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeen egitura eta prozesuak aztertzea. - Taldeen egitura eta dinamika alda ditzaketen faktoreak identifikatzea. - Taldeak dinamizatzeko teknika eta tresna egokiak aplikatzea. - Taldeak dinamizatzeko tekniken hautaketa justifikatzea, haien ezaugarrien, egoeraren eta helburuen arabera. - Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen alde onak aztertzea. - Taldearen egituraren eta funtzionamenduan lidergo-eginkizuna eta rol positiboak baliatzeko, eta rol negatiboak indargabetu edo zuzentzeko jardun-estrategiak aplikatzea. - Lan-giro lasaia eta lankidetzakoa lortzea. - Taldearen konfiantza eta kohesio egokia lortzeko teknikak eta dinamikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldea: motak eta ezaugarriak. Talde baten egitura eta dinamika. Talde-garapena. - Komunikazioa taldeetan. Komunikazio-estiloak. Hitzeko eta keinuzko komunikazioa. Bestelako hizkuntzak: ikonikoa, ikus-entzunezkoa, IKTak. Oztopoak. - Taldeak aztertzeko teknikak. - Taldea dinamizatzeko teknikak. - Lankidetzeta eta lehia taldeetan. - Talde-dinamika. Talde-dinamikei aplikatutako funts psikosozilogikoak. - Lan-taldea. Elkarlanerako estrategiak. Zereginen antolamendua eta banaketa. - Bakarlanea eta talde-lana. - Talde-rolak: rol positiboak eta negatiboak. Rol positiboak bultzatzeko eta negatiboak indargabetu edo zuzentzeko jardun-estrategiak. - Konfiantza eta kohesioa taldean.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Subjektuaren garapen osoan komunikazioak duen garrantzia baloratzea. - Talde-dinamikan motibazioak duen eginkizuna baloratzea. - Talde-lanean banakoen arteko desberdintasunak errespetatzea. - Taldearen konfiantza lortzeko jarrera tolerantetara eta enpatikoak duen garrantzia baloratzea.

BILERAK GIDATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bilerak bateko partaideen tipologia identifikatzea. - Bilerak moderatu eta dinamizatzeko teknikak justifikaturik aplikatzea, parte-hartzaileen ezaugarriak eta testuingurua kontuan izanda. - Bilerak batean gatazkak ebazteko estrategiak justifikaturik aplikatzea. - Bilerak bati buruzko informazioa biltzeko eta haren emaitzak ebaluatzeko teknikak behar bezala aplikatzea. - Talde baten konpromisoan eragina duten faktoreak aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bilerak talde-lan gisa. - Bilerak motak eta horien eginkizunak. - Bilerak baten garapen-etapak. - Bilerak dinamizatu eta moderatzeko teknikak. - Arrisku-faktoreak bilera batean. Litezkeen gatazkak. Horiek ebazteko estrategiak. - Bilerak bati buruzko informazioa biltzeko eta haren emaitzak ebaluatzeko teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ideiak argiro eta labur azaltzeko gaitasunaren garrantzia baloratzea. - Bilerak deialdietan informazio egokia eta zehatza emateko beharra baloratzea. - Bileretan parte-hartzea lortzeko, motibazioak eta erabilitako estrategiek duten garrantziaz jabetzea. - Errespetua eta tolerantzia bilerak gidatzean.

GATAZKAK KUDEATZEKO ETA ERABAKIAK HARTZEKO ESTRATEGIAK ABIARAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeko gatazkak ebazteko teknikak eta estrategiak aplikatzea. - Bitartekotza- eta negoziazio-teknikak behar bezala aplikatzea. - Erabakiak hartzeko prozesuaren plangintza eta autoebaluazioa.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gatazka: kontzeptua, ezaugarriak eta tipologia. - Taldeko arazoak eta gatazkak. Gatazken sorburu nagusiak. - Arazoak ebazteko teknikak eta estrategiak. - Erabakiak hartzeko prozesua. Faseak. Prozesua planifikatu eta ebaluatzea. - Taldeko gatazkak kudeatzea. - Negoziazioa eta bitartekotza. Negoziatio- eta bitartekotza-teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gatazka baloratzea talde-dinamiketan garapena errazten duen elementu positibotzat. - Arazoak eta gatazkak ebazteko garaiaren errespetuaren eta tolerantziaren eginkizuna baloratzea. - Erabakiak hartzean komunikazio-trukeak duen garrantzia baloratzea.

KONPETENTZIA SOZIALA ETA TALDE PROZESUAK EBALUATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeak aztertzeo estrategiak eta tresnak aztertzea. - Informazioa biltzeko tresnak diseinatzea. - Taldeekiko lanean teknika soziometrikoak eta gizarte-ikerketakoak aplikatzea. - Lortutako emaitzak interpretatzea. - Lortutako emaitzen arabera, hobetzeko jarraibide egokiak ezartzea. - Profesionalaren hasierako eta amaierako egoera pertsonal eta sozialari, eta prozesuari buruzko autoebaluazioa egitea, eta hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Konpetentzia soziala ebaluatzea. - Taldeen egitura eta prozesuak ebaluatzea. - Gizarte-ikerketako teknikak. - Oinarrizko soziometria. - Datuak biltzea. - Informazioa biltzeko tresnak. Tresnak diseinatzea. - Emaitzak aztertu eta interpretatzea. - Lortutako emaitzen arabera, hobetzeko jarraibide egokiak ezartzea. - Haur-hezitzailearen hasierako prestakuntza eta bizitza osoko aztertzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Konpetentzia soziala hobetzeko estrategia gisa autoebaluazioa baloratzea. - Taldeak hobetu eta garatzeko estrategia gisa ebaluazioa baloratzea. - Isilpekotasuna datuen tratamenduan.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Eman beharreko lehen multzoa "Gizarte-harremana eta komunikazioa erraztuko dituzten estrategiak eta teknikak abiaraztea" izango da. Bertan, "gizarte-trebetasunarekin", "komunikazioarekin", "adimen emozional eta sozialarekin", etab. lotutako kontzeptuak eta prozedurak zehaztu eta aztertuko dira.

Ondoren, "Taldea-lana dinamizatzea" eta "Bilerak gidatzea" multzoak irakatsiko dira. Horietan, irakatsi eta ikasteko prozesuak aztertu eta abian jarriko dira gai hauen inguruan: komunikazio-teknikak, talde-dinamika, taldeak dinamizatzeo estrategiak, bilera motak, etapak, bilera baten emaitzei buruzko informazioa biltzeko eta haren emaitzak ebaluatzeo teknikak, etab.

Multzo horien ondoren, irakaskuntza gatazkak ebatzi eta kudeatzeari buruzko gaien oinarrituko da: "Gatazkak kudeatzeko eta erabakiak hartzeo estrategiak abiaraztea". Bertan, taldeko arazoak eta gatazkak, gatazken sorburu nagusiak, arazoak ebazteo teknikak eta estrategiak, etab. aztertuko dira.

Alderdi horiek guztiak landu ondoren, "Konpetentzia soziala eta talde-prozesuak ebaluatzea" izango da hurrengo irakasgaia. Bertan, gai hauek emango dira: oinarrizko

soziometria-teknikak, ebaluaziokoak, (konpetentzia sozialari dagokionez), ikerketa-teknikak, emaitzak aztertu eta interpretatzea, etab.

2) Alderdi metodologikoak

Lanbide-modulu honek beharrezko prestakuntza jasotzen du ikasleek laguntzako lanbidean jarduteko eta euren harreman profesionaletan beste pertsona batzuekiko harremanetan egokiro elkarri eragiteko beharrezkoak diren gizarte-trebeziak eskuratzeko, beren portaera pertsona horien eta testuinguruaren ezaugarrietara egokituta.

Batez ere prozedurazko eta jarrerazko modulua da, jarduera praktikoak eta dinamikoak nagusi dituen.

Behar-beharrezkoa da gizarte-trebetasunei buruzko kontzeptuzko alderdiak ezagutu, ulertu eta horien inguruan gogoeta egitea, baina trebetasun horien gauzarik garrantzitsuena beraiek lortzea da. Gizarte-trebetasunak praktikan ikasten eta lortzen dira, hau da, haiekin trebatzen.

Horretarako, parte hartzeko metodoak abiaraziko dira; besteak beste, honako hauek:

- Modelatze instrukzionala eta kontzeptuzko informazioa: hitzezko eta/edo keinuzko instrukzioa eta taldeko elkarrizketa eta/edo eztabaida garatu beharreko trebetasunaren inguruan.
- Modelatzea eta imitazioa: behaketaren bidezko ikaskuntzan datza. Trebatu beharreko abilezia edo portaera behar bezala erakusten duten ereduak ikasleei erakustea da helburua.
- Role-playing edo antzezpina (portaera-saiakuntza): taldeko dramatizazio-teknika honek portaerak eta jarrerak aldatzen eta/edo lortzen laguntzen du.
- Askotariko talde-dinamikak (lankidetzazko jarduerak, gatazkak ebaztekoak, komunikaziokoak, etab.). Horietan, parte-hartzea eta ondorengo talde-gogoeta beharrezkoak dira.

Jarduera horiek gehienak taldekoak dira. Talde-lana nagusitzen da (talde handi eta/edo txikikoa), nahiz eta banakako jarduerak ere lekua baduten (adibidez, gizarte-trebetasunen inguruko gogoeta-jarduerak, autoebaluaziokoak, etab.).

Irakasleak moduluarekiko lankidetzazko eta motibazio-giroa bultzatu beharko du ikasleen artean. Gainera, lanaren testuinguruan, jardun profesionalean eta, oro har, gure bizitzan gizarte-trebetasunek duten garrantzia aintzat hartzeko balioak eta jarrerak erakutsi beharko dizkie.

Irakasleak, era beran, gizarte-trebetasunak eta pertsonen arteko harremanekoak baloratu eta sarituko direneko testuinguru sustatu beharko du. Horrela, ikasleen baitan trebetasun horiek lortzeko eta praktikara eramateko interesa bultzatuko du.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Aurkezpen eta ezagutzarako talde-dinamikak.
- ✓ Talde txikietan hormako collage bat egitea, gizarte-trebetasunen adibideekin kontzeptuzko mapa bat jasoko duena.
- ✓ Emozioei buruzko hormako collage bat egitea.
- ✓ Komunikazio-estiloen role-playinga.

- ✓ Komunikazioaren eragileei/oztopatzaileei buruzko role-playinga (komunikazioaren eragileak lantzeko modelatze-teknika erabil daiteke).
- ✓ Lankidetzako talde-dinamikak.
- ✓ Taldeko lanari eta rolei buruzko talde-dinamikak.
- ✓ Taldeko gatazkak eta rolak ebazteari buruzko talde-dinamikak.
- ✓ Taldeko kohesioari eta konfiantzari buruzko talde-dinamikak.
- ✓ Taldetan, taldeko dinamizazio-teknikak diseinatzea, ondoren horiek praktikara eramateko.
- ✓ Taldeko lanaren eta banakako lanaren abantaileri eta eragozpenei buruzko brainstorminga.
- ✓ Lan-bilerari buruzko role-playinga.
- ✓ Gatazkak ebazteari buruzko dinamikak.
- ✓ Role-playingaren bidez, bitartekotza- eta negoziazio-teknikak antzeztea.
- ✓ Teknika soziometrikoa aplikatzea.
- ✓ Konpetentzia sozialari buruzko autoebaluazioa.



8. lanbide-modulua

FAMILIEKIN LANKIDETZAN ARITZEA ETA ARRISKU SOZIALEAN DAUDEN ADINGABEEI ARRETA ESKAINTZEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea
Kodea:	0018
Heziketa-zikloa:	Haur-hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	100 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	6
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte esku-hartzea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1032_3: Objektuak ukituta, eta haurren arteko eta helduekiko harremanen bidez ingurunea miaztea errazten duten ekintzak garatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 4.a / 5.a / 6.a / 7.a / 11.a / 12.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Adingabeen zentroetan hartutako haurrei zuzenduta, gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko programak eta jarduerak planifikatzen ditu. Horretarako, haurrei arreta eskaintzeko erakundearen eredia eta indarrean dagoen araudia aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Europar Batasunean haurrei arreta eskaintzeko erabiltzen diren ereduaren arteko aldeak identifikatu ditu.
- Arreta-ereduak itxuratzeko garaian, haurtzaroren kontzeptuak duen eragina justifikatu du.
- Haurrei arreta eskaintzeko gizarte-zerbitzuen sarearen ezaugarri esanguratsuenak identifikatu eta deskribatu ditu.
- Haurtzaroko arreta-zerbitzuen inguruan indarrean dagoen legeria aztertu du.
- Haurtzaroko arreta-zentroen egitura antolamendukoa eta funtzionala deskribatu du.
- Adingabeen zentroetako gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea arautzen duten dokumentuak identifikatu ditu.
- Haurren ezaugarriekin eta zentroaren gizarte- eta hezkuntza-ereduaren ezaugarriekin bat datozen helburuak finkatu ditu.
- Esku hartzeko jarduera, baliabide eta estrategia egokiak proposatu ditu.
- Beharrezko espazioak eta denborak aurreikusi ditu.
- Prozesuan inplikaturako beste profesional batzuekin koordinatzeko eta informazioa trukatzeko bideak eta mekanismoak ezarri ditu.
- Esku-hartzearen arrakastan talde-lanak duen garrantzia baloratu du.

2. Familiekin esku hartzeko programak eta jarduerak planifikatzen ditu, eta esku-hartzearen eginkizuna haurren hezkuntza eta garapen osoan justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Haurren garapean osoan familiako hazkuntza-jarraibideek duten eragina identifikatu eta deskribatu du.
- b) Hezkuntzaren eta gizartearen esparruetatik familiekin esku hartzeko eta laguntzeko programak deskribatu ditu.
- c) Familiaren parte-hartzea eta, hala dagokionean, bere hezkuntza-kompetentzia bultzatzeko estrategiak, jarduerak eta baliabideak proposatu ditu.
- d) Jardueren programazioan familia-aldagaiak kontuan hartu ditu.
- e) Familieko lankidetzan kontuan hartu beharreko hezkuntza-irizpideak, alderdi formalak eta jarrerak identifikatu ditu.
- f) Lehen urteetan familiaren eta erakundearen arteko lankidetzak duen garrantzia baloratu du.
- g) Arrisku sozialeko egoeran dauden familien inguruko arazoak eta adierazleak deskribatu ditu.
- h) Tratu txarraren seinale diren adierazleak eta baldintzak identifikatu ditu.
- i) Familian tratu txar edo arriskuko egoera antzeman ondoren jardun-protokoloak zehaztu ditu.
- j) Haurren arrisku eta/edo tratu txarreko egoerak antzeman eta jakinarazteko garrian hezitzailearen eginkizuna baloratu du.
- k) Familia-egoera guztiekiko errespetuzko jarrera izateko beharra baloratu du.

3. Arrisku-egoeran dauden edo adingabeentzako zentroetan hartuta dauden hurrei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-jarduerak abiarazten ditu, eta horiek esku-hartzearen helburuekin eta estrategia metodologikoekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Informazioa lortzeko teknikak eta tresnak erabili ditu.
- b) Esleitutako taldearen eta testuinguruaren ezaugarriak eta beharrak identifikatu ditu.
- c) Espazioak, baliabide materialak eta giza baliabideak antolatu ditu.
- d) Estrategia metodologikoak aplikatu ditu.
- e) Familia-giroa, segurtasun afektibokoa eta konfiantzazkoa sortzeko beharra baloratu du.
- f) Zentroaren eguneroko zereginak eta bakoitzaren erritmoak bateragarri egiten lagundu du.
- g) Larrialdi-egoerak eta ezustekoak ebatzi ditu.
- h) Prebentzio- eta segurtasun-neurriak hartu ditu.
- i) Haurren proposamenak entzuteko jarrera hartu du, eta haiengan eragina duten erabakietan parte hartzen utzi die.
- j) Talde-lanaren eta beste profesional batzuekiko lankidetzaren beharra justifikatu du.

4. Haurren gizarte- eta hezkuntza-prozesuan familien lankidetzaren errazten duten jarduerak eta estrategiak abiarazten ditu, eta horiek haien ezaugarriekin eta beharrekin, eta esku-hartzearen helburuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Familiekin erakundearen parte hartzeko bideak identifikatu ditu.
- b) Familiaren hezkuntza-beharrak eta/edo partaidetzakoak identifikatu ditu.
- c) Familiekin egin beharreko bilera eta elkarrizketarako gidoiak prestatu ditu.
- d) Bilerak eta elkarrizketak egiteko, ezarritako helburuei eta gidoiei jarraitu die.
- e) Familiekin parte hartzeko ekimen eta proposamenekiko jarrera harkorra izan du.



- f) Baliabideak, espazioak eta denborak jardueraren helburuen arabera antolatu ditu.
- g) Ezusteko egoeren aurrean erantzun du.
- h) Familiak harremanetan jarrera positiboa izan du.
- i) Familiarekiko harremanetan hezitzailearen gizarte-trebeziek duten garrantzia baloratu du.
- j) Komunikazioa familien ezaugarrietara moldatu du.

5. Adingabeen zentroetan hartutako haurrekiko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeen prozesua eta emaitza ebaluatzen du, eta ebaluazioa aldagai garrantzitsuekin eta erakundearen ezarritako protokoloekin lotu du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazio-adierazleak hautatu ditu.
- b) Haurrei buruzko informazioa lortzeko tresna egokiak diseinatu edo hautatu ditu.
- c) Esku-hartzerako estrategiak, teknikak, eta jarraipen- eta ebaluazio-tresnak ezarri ditu.
- d) Prozedura egokiari jarraituz aplikatu ditu ebaluazio-tresnak.
- e) Kontrol- eta jarraipen-dokumentuak bete ditu.
- f) Lortutako informazioa behar bezala interpretatu du.
- g) Esku-hartzean aldatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.
- h) Esku-hartzea hobetzeko beharrezko neurriak proposatu ditu.
- i) Taldekideei informazioa emateko, ezarritako protokoloari jarraitu die.
- j) Beste profesional batzuen parte-hartzea eskatzen duten egoerak eta bete beharreko jardunbideak identifikatu ditu.
- k) Familiari banan-banan eta modu ulergarrian eman die haurren aurrerabidearen berri.
- l) Familiari emandako informazioetan haurren eboluzioaren alderdi positiboak nabarmentzearen garrantzia baloratu du.

6. Familiak esku-hartzeen prozesua eta emaitza ebaluatzen du, prozesuan garrantzitsuak diren aldagaiak identifikatzen ditu eta horien hautaketa justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazio-adierazleak hautatu ditu.
- b) Tresna egokiak diseinatu edo hautatu ditu alderdi hauei buruzko informazioa lortzeko: familia-egoera, familiaren hezkuntza-beharrak, eta familiak parte hartzeko aukerak eta nahia.
- c) Ebaluazio-tresnak behar bezala aplikatu ditu.
- d) Datuak behar bezala bildu eta interpretatu ditu.
- e) Esku-hartzean aurreikusitakoarekiko desbideratzeak identifikatu ditu.
- f) Egoera zailtan neurri zuzentzaileak proposatu ditu.
- g) Familiak esku-hartzearen ebaluazioan parte hartzeko beharra baloratu du.
- h) Zerbitzuaren eraginkortasuna eta kalitatea etengabe hobetzeko jarrera izatearen garrantzia baloratu du.

c) Oinarrizko edukiak

ADINGABEEKIN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ESKU HARTZEKO PROGRAMAK ETA JARDUERAK PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Prebentzioan eta segurtasunean jarduteko plan bat diseinatzea. - Familien esku-hartzea erraztuko duten jarduerak eta estrategiak hautatzea. - Litezkeen gatazketarako jardunbideak hautatzea. - Litezkeen gatazkek ebazten lan egiteko jarduerak diseinatzea. - Adingabearen inguruko aldagaien kontrola diseinatzea. - Haurren eskubideei buruzko legeriaren artikulua nagusiak aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Haurrei buruzko legeria: eskubideak eta babesa. - Haurren inguruko nazioarteko erakundeak. - Adingabeen babesa. Alderdi juridikoak. - Adingabeekin esku hartzeko baliabideak. - Haurrei arreta eskaintzeko programak eta zerbitzuak. - Arrisku-egoerak antzemanaz gero jarraitu beharreko jardun-protokoloak. - Laguntza-programak. - Haurrei arreta eskaintzeko zerbitzuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzean talde-lanak duen garrantziaz jabetzea. - Esku-hartzearen programazioan haurtzaroaren kontzeptuak duen eraginaz jabetzea. - Kideen arteko errespetuzko tratua.

FAMILIEKIN ESKU HARTZEKO PROGRAMAK ETA JARDUERAK PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Familiekin komunikatzeko tresnak hautatzea. - Gatazkarik izanez gero familiarekin jarduteko planak prestatzea. - Informazioa trukatzeko teknikak diseinatzea. - Gatazkek kontrolatzeko jarraipen-tresnak prestatzea. - Erreakzioak hobeto ulertzeko, programazio neurolinguistikoko praktikak prestatzea. - Hezkuntza Sailaren arabera, bete beharreko arau garrantzitsuenak hautatzea. - Familiekiko esku-hartzearen jarraipena aztertzea. - Elkarrizketen suposizio praktikoetan, hezitzailearen estrategiak ebaluatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Familia, hezkuntza-agente gisa. Bilakaera. - Arrisku sozialeko egoerak antzematea. - Familiekin lan egiteko materialak, espazioak eta baliabideak. - Familiarekiko harremanetan gertatu ohi diren arazoak. - Gizarte-zerbitzuak. - Haurrentzako arreta-zentroak. - Arrisku-egoera bakoitzari buruzko kontrol-dokumentazioa. - Arrisku sozialeko egoeran dauden familien inguruko arazoak. - Legezko alderdiak familiekiko esku-hartzean. - Familiarekin esku hartzeko ereduak. - Familiarekiko harremana zirkularren eta txostenen bidez. - Parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko estrategiak. - Tratu txarra: antzematea, jakinaraztea, legeria, esku-hartzea, gizarte-

	zerbitzuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarrera arduratsua gatazken aurrean. - Familiekin lankidetzan aritzearen garrantzia baloratzea. - Askotariko hezkuntza-esperientziak behatzeko interesa. - Erkidego bakoitzaren jarraibide kulturaletikiko errespetua. - Tratu txarreko litezkeen kasuetan parte hartzen duten agenteekin eta profesionalekin lankidetzan aritzeko jarrera. - Tratu txarreko litezkeen kasuak antzemateko behaketaren garrantzia baloratzea.

ADINGABEENTZAKO GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOKO PROGRAMAK ETA JARDUERAK

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arrisku-egoerak behatzen lagunduko duten tresnak prestatzea. - Adingabeekin lan egiteko baliabideak eta estrategiak prestatzea. - Haurrekin gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak garatzen dituzten artean kontrol- eta jarraipen-planteamendu bat diseinatzea. - Familien esku-hartzea erraztuko duten jarduerak eta estrategiak hautatzea. - Adingabeentzako zentroetako estrategia metodologikoak aztertzea. - Sartzeko protokoloak aztertzea. - Prebentzioan eta segurtasunean jarduteko plan bat diseinatzea. - Ikastetxearen heziketa-proiektu bat diseinatzea. - Banakako esku-hartzea diseinatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Legeria - Zentro bateko adingabeen ezaugarriak. - Sartzeko protokoloa. - Estrategia metodologikoak. - Talde multiprofesionalaren funtzioak. - Familiaren eta eskolaren arteko koordinazioa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Parte hartzen duten agenteekin eta profesionalekin lankidetzan aritzeko jarrera. - Adingabea zentrorra eramaten duten egoerak eta arrazoiak errespetatzea. - Taldearen eta familiaren arteko koordinazioa baloratzea. - Adingabearen hezkuntza hezitzaileak duen eginkizuna baloratzea. - Adingabearekiko errespetu eta enpatiazko jarrera.

FAMILIEKIN ESKU HARTZEKO PROGRAMAK, JARDUERAK ETA ESTRATEGIAK ABIARAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arrisku-egoerak behatzen lagunduko duten tresnak prestatzea. - Arrisku-sektore bakoitzera egokitutako esku-hartze jarduerak prestatzea. - Elkarrizketak diseinatzea. - Familien esku-hartzea erraztuko duten jarduerak eta estrategiak hautatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Elkarrizketa baten motak eta ezaugarriak. - Elkarrizketaren elementuak: modua, espazioa, denbora, formak... - Hezitzailearen egitekoa elkarrizketan.

	<ul style="list-style-type: none"> - Programazio neurolinguistikoari buruzko nozioak. - Elkarrizketen erregistroak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Familia-egoera guztiekiko errespetuzko jarrera. - Adingabeentzako programetan gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzen duten agente eta profesionalakiko lankidetzajarrera. - Gizarte- eta hezkuntza-prozesuan familiekin taldean lan egitearen garrantziaz jabetzea. - Elkarrizketetan hezitzaileak dituen jarrerak baloratzea.

ADINGABEEKIKO GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOKO ESKU-HARTZEA EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arrisku-egoerak ebaluatzen lagunduko duten tresnak eta jarduerak prestatzea. - Adingabeekiko lana ebaluatzeko baliabideak eta estrategiak prestatzea. - Prebentzioan eta segurtasunean jarduteko plan bat diseinatzea. - Familien esku-hartzea erraztuko duten jarduerak eta estrategiak hautatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa bilatzea. - Ebaluazioari datuak ekarriko dizkieten aldagaien kontrola aztertzea. - Gizarte-zerbitzuak. - Gizarte- eta hezkuntza-ebaluazioa: ezaugarriak, irizpideak eta bestelakoak. - Ebaluazio-txostenak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-ebaluazioan parte hartzen duten agenteekin eta profesionalekin lankidetzan aritzeko jarrera. - Gizarte- eta hezkuntza-prozesuan familiekin taldean lan egitearen garrantziaz jabetzea. - Ebaluazioaren ondoren erabakiak hartzeko lankidetzajarrera.

FAMILIEKIKO ESKU HARTZEA EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Familiekiko esku-hartzea ebaluatzen lagunduko duten tresnak eta jarduerak prestatzea. - Familien esku-hartzea erraztuko duten jarduerak eta estrategiak hautatzea. - Esku-hartzeak ebaluatzeko irizpideak diseinatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa biltzea: ezaugarriak, tresnak. - Ebaluazio-prozesuan kontuan hartu beharreko aldagaiak aztertzea. - Lortutako datuak erregistratzea. - Ebaluazio-txostenak. - Datuen isilpekotasuna. - Ebaluazio-irizpideak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Familia-egoera guztiekiko errespetuzko jarrera. - Familiekiko esku-hartzean parte hartzen duten agenteekin eta profesionalekin lankidetzan aritzeko jarrera. - Gizarte- eta hezkuntza-prozesuan familiekin taldean lan egitearen garrantziaz jabetzea.



d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honen sekuentziazioan, lehenik eta behin, laguntza teoriko bat eman beharra dago. Horren bidez, ikasleek esku hartzen duten hezkuntza-agentek (zentroa, familia, kidekoak...) eta egoera bakoitzerako indarrean dagoen legeria ezagutu behar dituzte. Baina sekuentziazioa mailakakoa izango da. Hala, moduluaren zatirik handiengan, ikasleek programak, diseinuak, jarduerak, etab. egin beharko dituzte, guztiak esku-hartzearen inguruan. Beraz, horiek landa-lanaren ahalik eta gertuenekoak izan behar dute.

Modulu honen izaera dela-eta, ikasleek profesional gisa eskain dezaketen heziketan eta sentsibilizazioan lan egin behar dute.

Arrisku-egoeran dauden adingabeei zuzendutako esku-hartze jarduerak egingo ditu eta, aldi berean, familiekin lan egin behako du...

Berriz ere, lehenasuna emango diegu ikasleen enpatiarri eta behaketari.

Ikasteko prozesu hori guztia amaitu ondoren, ikasleak esku-hartzearekin lotutako emaitzen ebaluazioan prestatuko dira. Horretarako, beharrezko ebaluazio-tresnak ezagutuko ditu, bai eta emaitzak aldaraz ditzaketen faktoreak edo aldagaiak ere.

2) Alderdi metodologikoak

Lehen adierazi bezala, moduluaren izaera dela-eta, oso metodologia aktiboa erabili behar dugu, ikasleak euren ikaskuntzaren protagonista izango duena.

Irakasgaia azaltzeko metodoa logikoa izango denez (ezagutzak gero eta zailagoak izango dira), ikasleen lanetan metodo inдукtiboa erabiliko dugu, kasu eta egoera zehatzei erantzuteko gai izan daitezten.

Ikasleek testuinguru bakoitzerako eskatutako legeriari buruzko informazioa bilatuko dute. Horretarako, jarduerak txandakatuko dira. Jarduera gehienak lankidetzakoak izango dira, iritzi bat baino gehiago entzun, ezagutu eta errespetatzeko helburuarekin. Modu heuristikoa, ikasleak euren iritziak ulertu eta argudiatzeaz arduratuko dira.

Komeni da ikasleak role-playingean aritzea euren jardunean sor dakizkiekeen egoeretan. Horien artean familiekiko harremana dago. Adingabearen/familiaren eta zentroaren arteko hezkuntza-lanaren koordinatzaile izan behar dute. Horregatik, informazioa kontrolatzeko eta behatzeko teknikak ezagutu behar dituzte, litezkeen arrisku-egoerak, tratu txarrekoak, etab. antzemateko.

Metodologian, egoera jakin batzuetarako konponbideak eskaintzeko ikasleen balioa aintzat hartuko da: adingabeen zentroan sortutako arrisku-egoera baten ondoriozko arazoei aurre egiteko gaitasuna.

Era berean, gure ustez, taldean lankidetzan lan egiten ikasteak etorkizunean erraztu egingo du diziplina anitzeko taldean lan egitea, gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginen ahaleginak batuta.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Adingabeentzako zentroetan esku hartzeko programak planifikatzea:
 - Datuak biltzea.
 - Zentroetako gizarte- eta hezkuntza-ereduak diseinatzea.
 - Indarrean dagoen legeria interpretatzea.
 - Haurrentzako gizarte-zerbitzuen sarea identifikatzea.
 - Adingabeentzako zentroei buruzko dokumentazioa aztertzea.
 - Esku hartzeko jarduerak programatzea, litezkeen aldagai guztiak kontuan izanda.
 - Talde multiprofesionaleko kideen eginkizunak identifikatzea.

- ✓ Familiekiko jardunak planifikatzea:
 - Informazioa biltzeko tresnak diseinatzea.
 - Familiekin informazioa trukatzeko jarraibideak prestatzea.
 - Datuak lortzeko behaketa zehatza.
 - Familien esku-hartzea errazteko baliabideak planifikatzea.
 - Arrisku sozialean dauden adingabeak dituzten familien inguruko arazo zailak eta konponbideak aztertzea.

- ✓ Arrisku sozialean dauden hurrei zuzendutako jarduerak planifikatzea:
 - Material egokiak diseinatzea.
 - Haur horiei zuzendutako espazioak eta denborak planifikatzea.
 - Metodologiak aztertzea.
 - Arazo zailen erreferentzia.

- ✓ Gizarte- eta hezkuntza-prozesua ebaluatzeko jarduerak programatzea:
 - Egindako jarduerak ebaluatzea.
 - Erabilitako tresnak ebaluatzea.
 - Diziplina anitzeko taldearen ekarpenak ebaluatzea.
 - Haurraren aurrerabidea neurtu eta ebaluatzeko jardun-ardatz bat diseinatzea.
 - Ingurumen-babesa ebaluatzeko teknika estatistikoak aplikatzea.

9. lanbide-modulua HAURREI ARRETA ESKAINTZEKO PROIEKTUA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Haurrei arreta eskaintzeko proiektua
Kodea:	0019
Heziketa-zikloa:	Haur-hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	50 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte esku-hartzea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea) Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Lanbide-profilari lotua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Produkzio-sektorearen beharrak identifikatzen ditu, eta horiek bete ditzaketen ereduzko proiektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Sektoreko enpresak antolamendu-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.
- Ereduzko enpresak ezaugarritu ditu eta, horretarako, sail bakoitzaren funtzioak eta antolamendu-egitura eman du aditzera.
- Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.
- Sektorean aurreikus daitezkeen negozio-aukerak baloratu ditu.
- Aurreikusitako eskaerei erantzuteko beharrezko proiektu mota identifikatu du.
- Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.
- Zerga, lan eta arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak eta horiek aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.
- Lortu nahi diren produkzio- edo zerbitzu-teknologia berriak sartzeko dauden diru-laguntzak edo bestelako laguntzak identifikatu ditu.
- Proiektua egiteko jarraituko den lan-gidoia prestatu du.

2. Tituluan aditzera emandako kompetentziekin lotzen diren proiektuak diseinatzen ditu, horiek osatzen dituzten faseak barne hartuz eta garatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Proiektuan aztertuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.
- Proiektuaren bideragarritasun teknikoari buruzko azterketa egin du.
- Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta horien edukia identifikatu du.
- Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu, eta horien hedadura identifikatu du.

- e) Proiektua gauzatzeko beharrezko baliabide materialak eta pertsonalak aurreikusi ditu.
- f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.
- g) Proiektua abian jartzeko finantzaketa-beharrak identifikatu ditu.
- h) Proiektua diseinatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.
- i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3. Proiektuaren gauzatzea planifikatzen du, eta esku hartzeko plana eta dagokion dokumentazioa zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak sekuentziatu ditu, eta gauzatze-beharren arabera antolatu ditu.
- b) Jarduera bakoitzerako beharrezko baliabideak eta logistika zehaztu ditu.
- c) Jarduerak aurrera eramateko beharrezko baimenak identifikatu ditu.
- d) Jarduerak gauzatzeko prozedurak edo jardunbideak zehaztu ditu.
- e) Osatzearen berezko arriskuak identifikatu ditu eta arriskuei aurrea hartzeko plana eta beharrezko bitartekoak eta ekipamenduak definitu ditu.
- f) Baliabide materialen eta pertsonalen eta gauzatzeko denboren esleipena planifikatu du.
- g) Osatzearen baldintzei erantzungo dien balorazio ekonomikoa egin du.
- h) Gauzatzeko edo osatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.

4. Proiektua gauzatzean jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak zehazten ditu, eta aldagaien eta erabili beharreko tresnen hautaketa justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatzeko prozedura zehaztu du.
- b) Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak zehaztu ditu.
- c) Jarduerak egitean ager daitezkeen gertakariak ebaluatzeko prozedura definitu du, baita horien konponbidea eta erregistroa ere.
- d) Baliabideetan eta jardueretan litezkeen aldaketak kudeatzeko prozedura zehaztu du, horiek erregistratzeko sistema barne dela.
- e) Jarduerak eta proiektua ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.
- f) Erabiltzaileen edo bezeroen ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du eta berariazko dokumentuak landu ditu.
- g) Proiektuaren baldintza-agiria betetzen dela bermatzeko sistema ezarri du, halakorik dagoenean.

5. Proiektua aurkezten eta babesten du, eta proiektua lantzean eta heziketa-zikloko ikaskuntza-prozesua garatzean eskuratutako kompetentzia teknikoak eta pertsonalak eraginkortasunez erabiltzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuaren memoria-dokumentua landu du.
- b) Haren aurkezpen bat prestatu du, IKTak erabilia.
- c) Proiektuaren azalpena egin du, eta, horretarako, proiektuaren helburua eta eduki nagusiak deskribatu ditu eta bertan jasotzen diren jardun-proposamenen aukeraketa justifikatu du.
- d) Azalpenean komunikazio-estilo egokia erabili du, azalpena antolatua, argia, atsegina eta eraginkorra izan dadin.
- e) Proiektua behar bezala babestu du, eta arrazoituta erantzun die epaimahai ebaluatzaileak planteatzen dituen galderari.



d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honen helburua da heziketa-zikloaren barruan landu diren kompetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak indartzea eta finkatzea, proiektu bat taldean lantzearen bitartez.

Bi edo hiru ikasleko taldeak osatzea izango da lehen urratsa. Talde horien bidez ikasle guztiak proiektuaren garapenean inplika daitezten lortuko da. Talde homogeneousak eta gaitasun osagarriak izango dituztenak ezartzen saiatuko da.

Taldearen lehen zeregina garatu beharreko proiektua aukeratzea izango da. Modulu hau lantokiko prestakuntzarekin batera garatuko denez gero, praktikak egingo diren enpresa proiekturako ideia-iturri egokia izan daiteke. Edonola ere, komeni da tutoreak teknikoki bideragarriak izango diren eta garatzeko moduan izango diren proiektuak edukitzea.

Ondoren, eta proiektua garatzeko txantiloari jarraituz, proiektuaren faseak landuko dira:

Diseinua.

Plangintza.

Gauzatzea eta jarraipena egitea.

Itxiera eta ebaluazioa.

Azkenik, talde bakoitzak proiektuaren aurkezpena eta defentsa prestatu eta egingo ditu. Horretarako, IKTetan oinarritutako aurkezpen-teknikak erabiliko ditu.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau antolatzeko garaian, irakatsi eta ikasteko metodologia aktiboak erabiltzea proposatzen da, hala nola, talde-lana eta PBL-POIa (Problem Based Learning – Problemetan Oinarritutako Ikaskuntza). Zehazki, zikloko moduluen kompetentziak zeharka integratuko dituen proiektuak garatzean berariaz oinarritutako PBL metodologia erabili daiteke. Metodologia horiek behartuta, ikasleek arazoak identifikatu beharko dituzte, arazo horiek ebazteko aukerak bilatu beharko dituzte, beharrezko baliabideak mobilizatu beharko dituzte, eta informazioaren kudeaketa egokia egin beharko dute.

Gainera, aipatutako metodologiek une batzuetan sustatzen dute bakarlana garrantzitsua da taldea osatzen duten ikasleetako bakoitzak proiektuaren defentsan ondoren erabili beharko dituen ezagupenak eta kompetentziak bereganatzeko.

Hortaz, talde-lanak ikasleen baitan harreman-kompetentziak garatzen ditu, eta haren bidez taldeen funtzionamenduari ohitzen dira, berezko lan-tresna gisa, horrek eskatzen duen guztiarekin: taldea antolatzea, rolak eta zereginak banatzea, pertsonen artean komunikatzea, gatazkak ebaztea, etab.

Ikasleen auto-ikaskuntza osatzeko, talde bakoitzaren aldi behingo jarraipenak egitea proposatzen da. Horrela, ikaskuntza gidatu ahal izango da, eta finkatutako helburuen barruan mantendu ahal izango da taldea. Bestalde, eta sortuko diren beharren arabera, komeni da laguntza-azalpenen bat edo mintegiren bat antolatzea,

proiektua garatzean beharrezkoak diren metodologiei edo berariazko edukiei dagozkien jakintza-defizitak estaltzeko.

Azkenik, talde bakoitzak landutako proiektuaren azalpena egitea proposatzen da. Azalpen horrek helburu bikoitza izango du:

- Ikasle bakoitzak proiektuaren garapenean eskuratutako konpetentzia teknikoak ebaluatzea.
- Ikasleen komunikazioaren arloko konpetentzia pertsonalak eta sozialak ebaluatzea.

Azalpena prestatzeko eta garatzeko teknologia berriak erabiltzea proposatuko zaie ikasleei –diapositiba bidezko aurkezpenak prestatzeko informatika-aplikazioen bitartez, web-orriko formatuen bitartez, eta abar–. Horretarako, proiektzio-kanoiak eta ordenagailuak ere erabili ahal izango dituzte, eta lan-munduan erabilgarriak izango zaizkien tresnekin ohitu egingo dira.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Modulua ebaluatzeko garaian, garrantzitsua da proiektuaren -amaierako produktu gisa- eta proiektua egiteko jarraitu den prozesuaren ebaluazioa egitea. Talde-lanaren funtzionamenduari buruzko informazioa jaso beharko da, baita taldekide bakoitzak proiektuan eta zereginetan izandako inplikazioari buruzko informazioa, taldean sortutako zailtasunei buruzko informazioa, eta ikasle bakoitzak eskuratutako konpetentzia pertsonalei eta sozialei buruzko informazioa ere, besteak beste.

Halaber, kalifikazioaren zati batek proiektuaren azalpenari eta babesari dagokion irakasleen balorazioa islatzea proposatzen da. Zehazki, honakoak izan daitezke azalpena ebaluatzeko adierazleetako batzuk:

- Diseinuaren kalitatea, proiektua aurkeztean.
- Aurkezpenean laguntzako baliabideak erabiltzea: informatika-baliabideak, ereduak edo maketak, etab.
- Azalpenaren argitasuna.
- Azalpenaren antolamendua.
- Azalpenaren dinamismoa.
- Azalpenaren eraginkortasuna.
- Erakutsitako komunikazio-trebeziak: ahots-tonua, mintzamina, hitzik gabeko komunikazioa, etab.
- Irakasleen eta ebaluatzaileen taldeak egindako galderari erantzuteko gaitasuna.

Behar-beharrezkoa izango da taldeko ikasle guztiek bete-betean parte hartzea proiektua babestean. Horrela, norbanako ebaluazioa egin ahal izango da, eta ikasle bakoitzak moduluarekin lotzen diren ikaskuntzaren emaitzak lortu dituela erakutsi ahal izango du. Gauzak horrela, taldea osatzen duten pertsona guztiek proiektuaren garapenean lagundu dutela bermatuko da.

Azkenik, komeni da produktua, prozesua eta proiektuaren azalpena ebaluatzean hautemandako puntu sendoak eta ahulak nabarmenduko dituen erantzun xehatua ematea proiektuko talde bakoitzari. Horrela ikasleek erraz identifikatu ahal izango dituzte lan-jardunean egin eta azaldu beharreko beste proiektu batzuetan zer alderdi hobetu beharko duten.

10. lanbide-modulua LEHEN LAGUNTZAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Lehen laguntzak
Kodea:	0020
Heziketa-zikloa:	Haur-hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	60 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	3
Irakasleen espezialitatea:	Osasun eta laguntzako prozedurak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak) (Irakasle espezialista)
Modulu mota:	Lanbide-profilari lotua
Helburu orokorrak:	12.a / 15.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Larrialdi bateko laguntzaren hasierako balorazioa egiten du, eta arriskuak, eskura dauden bitartekoak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Eremua prozedura egokiaren arabera babestu du.
- Istripua izan duten pertsonak manipulatzeko norbera babesteko erabili beharreko teknikak identifikatu ditu.
- Larrialdietako botikinaren gutxieneko edukia, eta produktuen eta sendagaien indikazioak deskribatu ditu.
- Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasanak ezarri ditu.
- Aire-bideen iragazkortasuna egiaztatzeko prozedurak deskribatu ditu.
- Aireztapenaren/oxigenazioaren funtzionamendubaldintza egokiak identifikatu ditu.
- Odoljariorik izanez gero jarduteko prozedurak deskribatu eta gauzatu ditu.
- Konorte-maila egiaztatzeko prozedurak deskribatu ditu.
- Bizi-konstanteak hartu ditu.
- Bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) ezarritako protokoloaren arabera jardun-sekuentzia identifikatu du.

2. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatu eta deskribatzen ditu, eta lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Bihotz-biriketako bizkortzearen funtsak deskribatu ditu.
- Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatu ditu.
- Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatu ditu.
- Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoak (KDE) egin du.

- e) Bizkortze ondoko neurriak aplikatu ditu.
- f) Lesio, patologia edo traumatismo ohikoenak adierazi ditu.
- g) Istripua izan duen pertsonaren lehen eta bigarren mailako balorazioa deskribatu du.
- h) Agente fisikoen, kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioen aurrean lehen laguntzak aplikatu ditu.
- i) Premiazko patologia organikoen aurrean lehen laguntzak aplikatu ditu.
- j) Zein kasutan edo egoeratan esku hartu behar ez den zehaztu du.

3. Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu, eta, horretarako, baliabide materialak eta teknikak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Biktimarengana hurbiltzeko beharrezko maniobrak egin ditu.
- b) Immobilizatu eta mobilizatzeko baliabide materialak identifikatu ditu.
- c) Pertsona lesionatu baten aurrean hartu beharreko jarrera-neurriak ezaugarritu ditu.
- d) Mobilizazio eta lekualdatze desegokiaren ondorioak deskribatu ditu.
- e) Gaixoak edo istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatu ditu, material ohikoekin eta berariazkoak ez direnekin nahiz beste baliabide batzuekin.
- f) Segurtasunerako eta norberaren babeserako arauak eta protokoloak aplikatu ditu.

4. Istripua izan duenari eta familiei zein laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrollekoa emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Istripua izan duen pertsonarekin eta laguntzaileekin komunikatzeko oinarrizko estrategiak deskribatu ditu.
- b) Istripua izan duen pertsonaren behar psikologikoak antzeman ditu.
- c) Istripua izan duen pertsonaren egoera emozionala hobetzeko laguntza psikologikoko oinarrizko teknikak aplikatu ditu.
- d) Istripua izan duen pertsonari jardun osoan zehar konfiantza eta baikortasuna emateak duen garrantzia baloratu du.
- e) Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatu ditu.
- f) Dolu, antsietate, larritasun edo agresibitateko egoera bat kontrolatzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
- g) Laguntzean huts egin izana psikologikoki gainditzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
- h) Estres-egoeretan norbera kontrolatzearen garrantzia baloratu du.

c) Oinarrizko edukiak

LARRIALDIETAKO LAGUNTZAREN HASIERAKO BALORAZIOA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku hartzeko eremua babesteko teknikak aplikatzea. Larrialdietako arreta-zerbitzuetarako sarbideak identifikatzea. - Norbera babesteko teknikak identifikatu eta aplikatzea. - Informazioa emateko teknikak aplikatzea. Berariazko terminologia erabiltzea. - Lesioen larritasuna eta mota kontuan hartuta jardun-lehentasanak identifikatzea. Bizi-arriskua dakarten egoerak identifikatzea. Oinarrizko triajeak egitea. - Istripua izan duen pertsonaren hasierako baloraziorako teknikak aplikatzea. Aire-bideen iragazkortasuna, aireztapena eta zirkulazioa egiaztatzea. Konorte-maila baloratzea. Bizi-konstanteak hartzea. - Adibidez, bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) ezarritako protokoloaren arabera jardun-sekuentzia identifikatzea. - Lehen laguntzetako botikinaren oinarrizko materiala identifikatu eta erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Larrialdietarako sistemak. - Lehen laguntzak. Helburuak eta mugak. BAS jokamoldea (babes-sistemak, abisu-sistemak eta sorospen-sistemak). - Istripuak. Motak eta ondorioak. - Eremua babesteko sistema. Metodoak eta materialak. - Terminologia mediko sanitarioa lehen laguntzetan. Informazioa emateko protokoloak. - Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasanak. Triage sinpleko metodoak. - Istripua izan duen pertsona baloratzeko teknikak. Bizi-arriskuaren zeinuak pertsona helduarengan, haurrengan eta bularreko umeengan. Larrialdi-zeinuak eta -sintomak. - Miaketa egiteko protokoloak. Konorte-maila baloratzeko sistemak. Bizi-konstanteak hartzea. - Lehen esku-hartzailearen jarduna. Lege-esparrua, erantzukizunak eta etika profesionala. - Norberaren babesa eta segurtasuna esku-hartzean. Arriskuak. Neurriak eta ekipoak. - Lehen laguntzetako botikina. Osagaiak, erabilera eta aplikazioak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ingurune seguruak sortzeko segurtasun-arauei eta protokolei zorrotz jarraitzea. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa. - Bere jardunaren mugez jabetzea.

BIZI EUSKARRIKO TEKNIKAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizi-arriskuko egoerak aztertzea. - Bizi-zeinuen presentzia identifikatu eta egiaztatzea. - Jarrera-tratamendu egokia aplikatzea. - Bizi-euskarriko teknikak identifikatzea eta egoera bakoitzerako ezarritako jardun-protokoloekin lotzea. - Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortze-teknikak (BBB) aplikatzea. - Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatzea. - Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatzea. - Kanpoko desfibriladore automatikoak erabiltzea. - Bizkortze ondoko neurriak aplikatzea. - Istripua izan duten pertsonen lehen eta bigarren mailako balorazioa egitea. - Lehen laguntzako teknikak aplikatzea honako lesio hauetan: agente fisikoen ondoriozkoak (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak), agente kimikoen ondoriozkoak, agente biologikoen ondoriozkoak eta premiazko patologia organikoaren ondoriozkoak.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aire-bideen iragazkortasuna kontrolatzea. Zabaltzeko eta buxadura kentzeko teknikak. Mantentzea. - Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortzea (BBB). Protokoloak helduekin, bularreko umeekin eta haurrekin. - Kanpoko desfibrilazio automatikoa (KDA). Teknikak. Ekipoen funtzionamendua eta mantentzea. Egoera bereziak. Informazio-prozedurak. Legeria. Egiaztapena. - Istripua izan duen pertsonaren balorazioa. Bizi-zeinuak. Lehen eta bigarren mailako balorazioa. Esku hartu behar ez den egoerak. - Hasierako arreta agente fisikoen ondoriozko lesioetan (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak). - Hasierako arreta agente kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioetan. - Hasierako arreta premiazko patologia organikoan. - Konortearen asaldurak. Konorterik gabe dauden pertsonak baloratu eta zaintzea. - Krisi konbultsiboak dituzten pertsonak zaintzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean. - Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa. - Tinkotasuna larrialdietako zerbitzuaren jarraibideak betetzean eta ez jarduteko egoeretan. - Bere jardunaren mugez jabetzea.

IMMOBILIZATU ETA MOBILIZATZEKO PROZEDURAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko teknikak aplikatzea. - Jarrera egokian jartzeko teknikak aplikatzea. - Immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatzea (hala nola, ferulak eta ohatilak).
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Immobilizatu, mobilizatu eta garraiatzeko teknikak. Oharpenak. Motak.

	<p>Materialak. Ohatilak. Ondorioak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lekualdatzeko beharra ebaluatzea. - Segurtasun- eta itzarote-jarrerak. Lekualdatzeko jarrerak. Oharpenak. - Segurtasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko arauak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean. - Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan. - Norbera babesteari eta segurtasunari buruzko arauari zorrotz jarraitzea. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa.

LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA AUTOKONTROLEKOA EMATEKO TEKNIKAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Komunikazioan jokabide egokienak hautatzea. - Dolu, antsietate, larritasuna edo agresibitateko egoerak kontrolatzeko eta horietan laguntza psikologikoa emateko oinarrizko teknikak aplikatzea. - Autokontroleko eta hutsegitea edo adore falta gainditzeko teknikak aplikatzea. - Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrazten duten faktoreak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko komunikazio-estrategiak. Pertsonen arteko komunikazioa errazten duten teknikak. - Lehen esku-hartzailearen erantzun emozionala. Lehen esku-hartzailearen eginkizuna baloratzea. Istripu edo larrialdiko egoeretan antsietatea sorrazten duten faktoreak. Kontrol-teknikak. - Laguntza psikologikorako oinarrizko teknikak. Istripua izan duen pertsonaren eta haren familiakoen behar psikologikoak. Dolu, larritasun, antsietate, urduritasun edo agresibitateko egoerak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa. - Autokontrola estres-egoeren aurrean eta frustrazio-jasamena. - Zuhurtzia eta interesa sekretu profesionalari eusteko.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau garatzeko, edukien hurrenkera hau gomendatzen dugu:

- Lehen laguntzen helburuak, terminologia, BASa (babesa, abisua eta sorospena).
- Lehen esku-hartzailea, haren jardunaren mugak, esparru etikoa, harremanak beste profesional batzuekin...
- Segurtasuna eta norberaren babesa, arrisku pertsonalak eta prebentzio-neurriak.
- Lehen laguntzetako botikina.

- Istripua izan duen pertsonaren hasierako balorazioa, zeinuak eta sintomak, miaketa egiteko protokoloak, bizi-konstanteak hartzea...
- Oinarrizko bizi-euskarria aplikatzea, BBBa, aire-bideak, desfibriladoreak erabiltzea...
- Mobilizatu eta immobilizatzeko teknikak. Segurtasun-jarrerak.
- Lehen laguntzak ematea traumatismoen, zaurien eta odoljarioen aurrean.
- Lehen laguntzak ematea beste egoera batzuetan, hala nola, beste agente fisiko, kimiko edo biologiko batzuek eta patologia organikoak sorrarazitakoetan.
- Komunikazio-teknikak, eta laguntza psikologikoa eta autokontrolak emateko teknikak aplikatzea.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan funtsezkoa da ikasleak gai izatea larrialdi-egoeretan ikasitako teknikak aplikatzeko. Hortaz, garapen praktikoa ezinbestekoa da. Ikasgelako egoera ohikoena izango da behar bezala ezaugarritutako egoeretan lehen laguntzetako teknikak praktikan aplikatzea.

Egoera horiek ezaugarritzeko, lanbide-sektorea erreferentzia gisa har daiteke eta sarri izaten diren egoerak azaldu daitezke. Hainbat aldaketa sar daitezke, adibidez, inplikaturako pertsonen kopuruarekin, pertsonen adinarekin edo ezaugarriekin, istripuaren lekuarekin, etab. lotutakoak. Garrantzitsua izango da planteaturako egoerari eta aplikaturako teknikari buruzko azterketa eta gogoeta egitea, ikaskuntza horiek orokortu ahal izateko.

Eduki teorikoek bigarren mailako eginkizuna dutenez gero, teknikak aplikatzeko beharrezkoak diren heinean sartuko dira. Dena dela, nahiz eta bigarren mailako zeregina izan, beharrezkoak dira jarduna ulertzeko eta hobeto gogoratzeko, praktikan jarri ez diren beste egoera batzuetan teknikak aplikatu ahal izateko eta informazioa eman edota larrialdietako koordinazio-zentro baten jarraibideak bete ahal izateko.

Eduki teorikoak lehen laguntzak emateko egoera bati lotuta ikasiko dira, unitate didaktiko bakoitzaren hasieran oro har. Aurkezpen-sistemak konbina daitezke, hala nola, azalpen-metodoak eta parte-hartze handiagoko metodoak, ariketak ebatzea, eskemak prestatzea, betiere ikasleen artean parte-hartzea eta interesa lortzeko helburuarekin.

Ikasmateriala askotarikoa izan daiteke: dagoeneko landutakoa ekar daiteke (adibidez, apunteak, aldizkariak edo eskuliburuaren bat) edota, beste batzuetan, ikasleek landu dezakete, bibliografia edo informatika-aplikazioak kontsultatuta. Ikasleek laneko protokoloak eta argibideak erabiltzen, eta horiei ordenaz eta zehaztasunez jarraitzen ohitu behar dute. Protokolo batzuei dagokienez, azken gomendioei adi egon behar da (adibidez, ILCOR batzordearenak), sarritan berritzen baitira.

Jarduera praktikoetarako, bitarteko hauek eduki behar dira: lehen laguntzetako manikiak (pertsona helduenak, haurrenak eta bularreko umeenak), oxigenoterapiako ekipoa, desfibriladorea, norbera babesteko ekipamendua, sendaketak egiteko materiala, mobilizatzeko materiala... Ikastetxeko hainbat eremu erabil daitezke, hala nola, ikasgelak, jolastokiak, eskailerak edo korridoreak.

Profesionalen jardunak irudietan bilduta azter daitezke, edota beste kide batzuenak ere; osasun-laguntza behatzeko eta hobekuntzak proposatu nahiz gauza interesgarrienak nabarmentzeko.

Ezinezkoa da praktikan lehen laguntzak ematea egoera guztietan, hala nola, agente fisiko, kimiko edo biologiko guzietan eta patologia organiko guztietan sorrarazitakoetan. Maiztasunagatik edo larritasunagatik garrantzitsuenak direnak hauta daitezke. Helburua da egoera horietan ikasleei jarduteko gaitasun oinarrikoenak harraraztea, besteak beste, honakoa hauek: sintoma batzuk antzematea, laguntza ematen hastea, larrialdietako zentro koordinatzailearekin telefonoz harremanetan jartzea, informazioa ematea eta jarraibideak betetzea.

Laguntza psikologikoarekin eta komunikazio-teknikekin zerikusia duten edukiak sarritan jasotzen dira ikasketa-planetan. Eduki horiek jorrazteko, ikasleen alde aurreko ezagupenetatik abiatu beharko da; eta, dagoeneko ikasi badira, larrialdietako komunikazioarekin eta laguntzarekin lotura handiena duen zatia ikusiko da. Talde-teknikak egin daitezke (role-playing, kasuen azterketa...), ikasleen jokabidea behatu eta haien gaitasunak agerian jarri ahal izateko.

Modulu honetan lortutako gaitasunetako batzuk egoera zailetan aplikatu beharko dira (presa, urduritasuna,...). Horregatik, garrantzitsua da eduki oinarrikoenak edo garrantzitsuenak ondo finkatzea (jardun-sekuentzia, BBBa, norberaren babesa,...). Moduluaren amaieran errebasoaldi bat antola daiteke. Bertan, denetako jardunak prestatuko dira, unitate didaktiko guztien edukiak elkarrekin lotuta, eta ikasleek lortutako heldutasuna ebaluatu ahal izango da.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Egoera desberdinetan BAS jardun-protokoloa aplikatzea. Eremua eta istripua izan duena babestea. Abisua eta informazioa ematea. Sorospen-neurriek ekitea.
- ✓ Istripuen hainbat kasutan, arrisku pertsonalak identifikatzea eta prebentzio-neurriak erabiltzea.
- ✓ Lehen laguntzetako botikin baten oinarriko osagaiak erabiltzea. Produktuen zerrendak eta horiek erabiltzeko arauak jasoko dituzten dokumentuak prestatzea. Sendaketak egitea.
- ✓ Hainbat egoeratan laguntzaren hasierako balorazioa egitea. Zeinuak eta sintomak bilatzea. Bizi-konstanteak hartzea. Jardun-protokoloa identifikatzea.
- ✓ Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea. Oinarriko bizi-euskarriko teknikak aplikatzea. BBBa egitea. Aire-bideei arreta jartzea. KDA erabiltzea. Pertsonak mobilizatzea. Istripua izan dutenak lekualdatzea. Pertsonak immobilizatzea.
- ✓ Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Informazioa prestatu eta ematea.
- ✓ Laguntza psikologikoa emateko teknikak aplikatzea.
- ✓ Talde-tekniketan parte hartzea. Iritziak eta sentimenduak adieraztea.
- ✓ Laneko egoerak edo dependentziak aztertzea, eta horietako bakoitzean egon litezkeen arriskuak idatziz jasotzea.
- ✓ Larrialdi-egoerak aztertzea, zer egin behar den eta zer egin behar ez den baloratzeko.
- ✓ Idatzizko eta ahozko jardun-protokoloak interpretatzea.

11. lanbide-modulua

INGELES TEKNIKOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ingeles teknikoa
Kodea:	E200
Heziketa-zikloa:	Haur-hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	40 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	
Irakasleen espezialitatea:	Ingelesa (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Kualifikazioen Europako Esparruko funtsezko konpetentziak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tituluaren lanbide-profilarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
- Ahozko mezu zehatzak adierazi ditu egoera puntualak ebazteko: hitzordu bat, produktu bat igortzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/gailu baten oinarritzko funtzionamendua.
- Enpresaren testuinguruan emandako ahozko argibideak ezagutu ditu eta adierazpenei jarraitu die.
- Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
- Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.
- Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.
- Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.
- Laneko elkarriketa baterako aurkezpen pertsonala prestatu du.
- Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.

2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze-edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Berariazko informazioa atera du eskainitako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
- b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
- c) Euskarri telematikoen bitartez (e-posta, faxa, besteak beste) hartutako mezua interpretatu du.
- d) Sektoreko web-orri bateko oinarritzko informazioak identifikatu ditu.
- e) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.
- f) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.
- g) Aurkezpenetan eta agurretan, prestatu beharreko dokumentuaren berezko adetasun-formulak erabili ditu.
- h) Bere lanbide-ingurunearekin erlacionatutako testuen laburpenak egin ditu.
- i) Profilarerkin lotzen diren lanpostuak eta lanbideak identifikatu ditu.
- j) Bere konpetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.
- k) Lan-ingurunean garatu beharreko konpetentziak deskribatu ditu.
- l) Curriculum vitae egiteko, norberaren prestakuntza eta lanbide-konpetentziak aurkezteko Europako herrialdeetan erabiltzen diren jarraibideak bete ditu.

3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak identifikatu ditu.
- b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- c) Sektorearen berezko alderdi sozioprofesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
- d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.
- e) Beste herrialdearen berezko balioak eta ohiturak identifikatu eta bere jatorrizko herrialdekoekin lotu ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzearen.

c) Oinarritzko edukiak

PROFILAREKIN LOTZEN DIREN AHOZKO MEZUAK ULERTU ETA SORTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea. - Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea: gustuak eta lehenetsunak, iradokizunak, argudioak, argibideak, baldintzaren eta zalantzaren adierazpena eta bestelakoak. - Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea. - Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak - Intonazioa, ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa. - Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea. - Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adetasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea.
----------------	--

	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-elkarrizketa prestatzea, eta norberaren prestakuntza eta motibazioak aurkeztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko terminologia espezifikoa. - Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, boz pasiboa, perpaus erlatiboak, zeharkako estiloa eta bestelakoak. - Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarteak. - Lan-elkarrizketa baten gaikako atalak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea. - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Informazio-trukean bete-beteen parte hartzea. - Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea. - Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

PROFILAREKIN LOTZEN DIREN IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATzea ETA ADIERAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mezuak formatu desberdinetan ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarriko artikulua profesionalak eta egunerokoak. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Erlazio logikoak antzematea: oposizioa, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, xedea, emaitza. - Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna. - Sektoreko berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea. - Puntuazio-markak erabiltzea. - Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea. - Testu koherenteak lantzea. - Lan-ingurunearekin lotzen den lan-eskaintza bateko iragarkien atalak ulertzea. - Dagokion profilarekin lotutako lan-eskaera prestatzea: curriculum eta gutun eragingarria.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Euskarri telematikoak: faxa, e-posta, burofaxa, web-orriak. - Hizkuntzaren erregistroak. - Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura. - Europako Curriculum Vitaearen ereduak. - Heziketa-zikloarekin lotutako kompetentziak, lanbideak eta lanpostuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Beste kultura batzuen alderdi profesionalerako interesa erakustea. - Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea. - Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.

HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKULTURALA ULERTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementu esanguratsuenak interpretatzea. - Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerriko hizkuntza (ingelesa) mintzatzen den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Nazioarteko harremanetan arau soziokulturalak eta protokoloak baloratzea. - Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Eduki-multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da multzo horiekin laneko testuinguruko hizkuntza-komunikazioko egoera bati konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko gaitasunak lortzeari lehentasuna emango dien ibilbide didaktiko bat antolatzea.

Modulu honen programazioa antolatzeko, prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten proposatzen da, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk dakartza eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoez eta sintaktikoez ez lukete inongo zentzurik ulertu edo adierazi behar den mezu bat eramanez edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarriko lau hizkuntza-gaitasunak, hots, entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmina garatzea da lortu beharreko helburua. Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, lanbidearen berezko egoera erraz bat aukeratzea oso baliagarria izango da ikasleak beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egoerak (aditz-denbora, hiztegia, etab.), hizkuntza-erregistroarekin, arau edo protokolo sozial eta/edo profesional egokiekin batera.

Beharbada komenigarria izango litzateke hasieran modulua ikasleei aurkeztean horiekin batera gogoeta egitea, etorkizunean bizitza profesionalean aurrez aurre izango dituzten egoera ohikoenak zein izango diren ondorioztatzeko, eta lan egingo duten produktio-sektorean atzerriko hizkuntza zein beharrezkoa izango duten eta beste ohitura eta kultura batzuetara irekitzea zein aberasgarria izango den konturatzeko. Gogoeta horrek ikasteko aukeretan irmotu beharko litzuke, gero eta autonomoagoak izan daitezten eta

sortzen zaizkien arazoak konpontzeko gaitasuna izan dezaten beren lanpostuetan daudenean. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezen zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarrizko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-gaitasun batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarrizko ezagutzak homogeneizatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio. Horretarako beharrezkoak diren unitate didaktikoak definituko dira.

2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lanbide-munduan komunikatzeko tresna bezala ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan.

Ahozko hizkuntzari garrantzi berezia eman beharko da, egungo egoera profesionalek eta globalizazioak hori eskatzen baitute.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu-eta. Lehentasuna emango zaio mezuaren ulermenari zuzentasun gramatikaren gainetik, eta ahoskera eta jariora azpimarratuko dira, mezua hartzailearengana igarotzeko baldintzatzaileak dira-eta.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzeko laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, bere burua behatzeak eta bere akatsak aztertzeak ikaskuntza bere alderdi neketsuenean hobetzen lagun diezaion ikasleari, hots, ahazko mezuak sortzen. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da-eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak (ahal dela ingelesak) bisitatuz edo jarduneko langileak gonbidatuz aberats daiteke. Hartara, lanbide-inguruetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionalei.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren audio- eta bideo-materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da: kartak, fakturak, gidak eta liburuxkak, eta web-orri ingelesak kontsultatuko dira.

Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, beren beharretara egokitzen diren mota desberdinetako materialak (idatzizkoak, ahazkoak, irudiak, musika, teknologia berriak, etab.) eskaini behar zaizkie ikasleei.

Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, e-posta, burofaxa, etab.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzaile eta bideratzaile gisa jardungo dute ikasgelan ahozko ingelesa erabil dadin, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezzen, eta ikasleak ahalik eta gehien inplikaturiko dituzte beren ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Lehentasunez, ingurune profesionalarekin lotutako materialak erabiltzea: erabilera-eskuliburuak, liburuxkak, piezen edo produktuen krokisak, zenbakiak, datak, orduak, eskaintako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri deskribatzaileak.
- ✓ Sektoreko enpresei edota produktuei eta zerbitzuei buruzko ingelesezko publizitate-materialak aztertzea, erabilitako hiztegi teknikoak eta adjektiboak barne.
- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezeroen galderak, istripu txikiak, unean uneko azalpenak.
- ✓ Bisitan datorren bezero atzerritar bati enpresaren edo lanpostuaren inguruko informazio laburrak ematea.
- ✓ Unean uneko oharrak egitea norbaiti edo norbaiten mandatua uzteko, zereginari buruzko zehaztasunak emateko, entregatzeko datak edo kantitateak adierazteko, sortutako arazoen berri emateko.
- ✓ Lanpostu baterako curriculum vitae-a aurkeztea gutun eragingarriarekin batera, prentsako edo telebistako lan-iragarki bat ulertzea, etab.
- ✓ Faktura / ordainketa-gutuna edota bidalketa/entrega baten onarpena aurkeztea eta azaltzea.
- ✓ Ikasgelan lanbidearen egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarrizketak bideoz grabatzea, geroago aztertzeko.
- ✓

12. lanbide-modulua

LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Laneko prestakuntza eta orientabidea
Kodea:	0021
Heziketa-zikloa:	Haur-hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	99 ordu
Kurtsoa:	1º
Kreditu kop.:	5.a
Irakasleen espezialitatea:	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea Laneko prestakuntza eta orientabidea
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	8.a / 13.a / 14.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Lan-munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatze aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
- Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
- Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.
- Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta lan-munduratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
- Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu.
- Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.
- Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Profilari lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.
- Lan-talde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.

- d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundeen alderdi ezaugarritzat onartu du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarrizko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Suposizio simple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
- h) Oinarrizko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneko lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.

- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-ingurunean ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziak barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Enpresa txiki edo ertain baterako larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
- e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarritzko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
- f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.



c) Oinarrizko edukiak

LAN MUNDURATZEKO ETA BIZITZA OSOAN IKASTEKO PROZESUA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea. - Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea. - Tituluaren lanbide-sektorea zehaztu eta aztertzea. - Norberaren ibilbidea planifikatzea: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Beharrekina eta hobespenekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea. ▪ Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak. - Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeke zerrenda bat ezartzea. - Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lana bilatzeko teknikak eta tresnak. - Erabakiak hartzeko prozesua. - Sektorereko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua. - Europar ikasi eta enplegatzeke aukerak. Europass, Ploteus.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea. - Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea. - Autoenplegua lan-munduratzeko hautabidetzat baloratzea. - Lan-munduratzeko egokirako lan-ibilbideak baloratzea. - Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaraztea.

GATAZKA ETA LAN TALDEAK KUDEATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antolakundea pertsona-talde gisa aztertzea. - Antolamendu-egiturak aztertzea. - Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea. - Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea. - Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea. - Gatazkek ebazteke moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea. - Lan-taldeen sorrera aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa. - Talde motak sektorereko industrian, dituzten eginkizunen arabera. - Lan-taldeen sorrera aztertzea. - Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarrizko elementu gisa. - Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak. - Gatazka zehaztea: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak. - Gatazka ebatzi edo deuseztatzeke metodoak: bitartekotza, adiskidetzea eta arbitrajea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena baloratzea. - Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta

	<ul style="list-style-type: none"> - eragozpenak baloratzea. - Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea. - Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea. - Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.
--	--

LAN KONTRATUAREN ONDORIOZKO LAN BALDINTZAK

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea. - Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea. - Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera. - Nomina interpretatzea. - Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.
-----------------------	---

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-zuzenbidearen oinarrizko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren artetzarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa. - Lan-kontrata: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak. - Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak. - Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak). - Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak. - Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZ. - Kontrata aldatu, eten eta deuseztatzea. - Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeo eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera. - Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa. - Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana...
-----------------------	---

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lana arautzearen beharra baloratzea. - Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa. - Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea. - Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboei dagokienez. - Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta baloratzea.
---------------------	--

GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea. - Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak. - Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa. - Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena. - Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua. - Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea. - Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea. - Arrisku-faktoreak aztertzea. - Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea. - Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea. - Lanbide-eginkizunaren arabera arrisku-protokoloa ezartzea. - Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arrisku profesionalaren kontzeptua. - Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarriko elementu gisa. - Profilari lotutako lan-ingurunearen berriazko arriskuak. - Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia. - Lanaren eta osasunaren arteko lotura baloratzea. - Prebentzio-neurriak hartzeko interesa. - Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia baloratzea.

ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak, oinarrizko prebentzio-tresna gisa. - LAP Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko oinarrizko araua aztertzea. - LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea. - Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea. - Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak. - Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - LAPean eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak. - Prebentzioaren kudeaketa enpresan. - Langileen ordezkaritza prebentzioaren arloan (LAPeko oinarrizko teknikaria). - Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak. - Prebentzioaren plangintza enpresan. - Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - LAParen garrantzia eta beharra baloratzea. - LAPeko eta LO Laneko Osasuneko agente gisa duen posizioa baloratzea. - Erakunde publikoek eta pribatuek LOan errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea. - Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.

ENPRESAN PREBENTZIO ETA BABES NEURRIAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Norbera babesteko teknikak identifikatzea. - Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakoak dituzten betebeharrak aztertzea. - Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea. - Larrialdi-egoerak aztertzea. - Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea. - Langileen osasuna zaintzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak. - Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa. - Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak. - Seinale motak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Larrialdien aurreikuspena baloratzea. - Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea. - Proposatutako jardueretan bete-beteen parte hartzea.



d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen lan-munduratzeko ibilbidearen logikan oinarritzen da, hau da: zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

- a) Lana bilatzea.
- b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia.
- c) Lanpostuan jardutea.
- d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.

- a) Lana bilatzea:

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO moduluaren hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoiak. Zehazki, gai hauei buruzko edukiak garatuko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- Europar lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzea.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

- b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, honako eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

- c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitzeko hasierako aldia gaitututa, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek legez jasotako edozein suposiziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Lan-baldintzak: soldata, lanaldia eta laneko atsedena.
- Soldataren edo nominaren agiria eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantza: prestazioak eta izapideak.
- Kontratua aldatu eta etetea.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzea.
- Langileen ordezkariak.
- Negoziazio kolektiboa.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.

- Gatazka.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.
- Arrisku profesionalak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:

Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko gaitasunak izan beharko ditu: Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoen likidazioa edo kitatzea.
- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Lan-harremana amaitzegtik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

2) Alderdi metodologikoak

Hasiera batean, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea, hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen partaidetza eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira, banaka nahiz taldean: ikaslearen esperientzia pertsonalak azaltzea, prentsa-albisteak erabiltzea, IKTak (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabiltzea.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorratzeko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkek, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, familiako eta lagun arteko gatazkek... erabil daitezke; aldean portaerak eta arazoaren konponbideak aztertzearen.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatu-etako ordezkariak, lan-arloko abokatuak, etab.), laneko egoerak eta gatazkek hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen laguntzetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea... Horretarako, erakundearen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak... Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarriko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da moduluaren edukiak metodologia aktiboen bidez garatzea, hala nola: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komeni da ikasleak benetako lan bat bilatzeko kasu praktikoko baten simulazioa egitea: zeregin horretarako gehien



erabiltzen diren dokumentuak egitea (curriculum, aurkezpen-gutuna) eta komunikabide ohikoenetan lan-eskaintzak hautatzea.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Erreferentziazko produkzio-sektorea deskribatzea:
 - Erreferentziazko produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.
 - Sektorean enplegatzeo aukerak identifikatzea.
 - Estatistikak eta taula makroekonomikoak erabiltzea.
- ✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
 - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.
 - Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.
 - Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).
- ✓ Lan-taldeak, eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:
 - Lan-taldeen tipologia identifikatzea.
 - Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.
- ✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
 - Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.
 - Laneko arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.
- ✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea.
 - Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.
- ✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
 - Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
 - Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
 - IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
 - Bizitza osoan ikastearen garrantzia baloratzea.

13. lanbide-modulua ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Enpresa eta ekimen sortzailea
Kodea:	0022
Heziketa-zikloa:	Haur-hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	60 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	4
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	8.a / 13.a / 14.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimenari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta pertsonen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.
- Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
- Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
- ETE bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.
- Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
- Jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.
- Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-ideia aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
- Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.

- c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
- d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
- f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomenoak eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostuak eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- h) Sektorerako enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen ETE baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- d) Sektorerako ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako irizpideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziako herrian sektorerako enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-irizpideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- b) Kontabilitate-informazioa aztertzeke oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likidezari eta errentagarritasunari dagokienez.
- c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.
- e) Sektorerako ETE batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekueak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.

f) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

c) Oinarrizko edukiak

EKIMEN SORTZAILEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.). - Ekintzaileen funtsezko faktoreak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko gaitasuna, plangintza eta prestakuntza. - Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa. - Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa. - Enpresaburuaren kontzeptua. - Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa. - Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa. - Ekintzaileen arteko lankidetzak. - Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak. - Negozio-idea lanbide-arloaren esparruan. - Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea. - Ekintzailetzaren bultzatzaile gisa, ekimena, sormena eta erantzukizuna baloratzea.

ENPRESA IDEIAK, INGURUNEA ETA HAIEN GARAPENA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea. - Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea. - Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea. - Lanbide-arloko ereduazko enpresa bat aztertzea. - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea. - Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea. - Erabakitako ideia gainean berrikuntza-eraketak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra). - Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea. - Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa. - Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea. - Genero-berdintasuna errespetatzea. - Enpresa-etika baloratzea.

ENPRESA BATEN BIDERAGARRITASUNA ETA ABIARAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika. - Produkzio-plana prestatzea. - Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea. - Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea. - Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaburuaren kontzeptua. Enpresa motak. - Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak. - Zerga-arloa enpresetan. - Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantza, besteak beste). - Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak. - Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea. - Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.

ADMINISTRAZIO FUNTZIOA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea. - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea. - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekueak eta letrak, besteak beste.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarriko ideiak. - Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa. - Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak). - Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea. - Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehentasunez, dagokion lanbide-arloaren ingurunean lan egingo da; baina, hala ere, ez dira baztertzen beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-idea garatzen jarraituko da: merkatu-azterketa egin, negozio-idea jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu eta, ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenetik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa-plana egingo da. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk, besteak beste, marketin-plana, giza baliabideak, forma juridikoa, etab. aztertuko dira.

Azkenik, ikasleari oinarrizko kontzeptuak azalduko zaizkio kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruan.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenen sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzailatza-gaitasunak bereganatzearen.

Ikasleak bere proiektuan aurrera egiten duen neurrian, irakasleak beharrezkoak diren ezagupenak sartuko ditu, azalpenen bidez edota ikasgelan garatutako jardueren bidez. Ikasleari liburu edo artikulua jakin batzuk ere irakurraraziko dizkio, ondoren haien edukia kurtsoko proiektura egokitu ditzan.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta bana-banakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ekintzaile-mentalizazioan sentibilizatzea:
 - Euskal Herriko enpresa-ehuna identifikatzea. Sectoreak, tamaina, forma juridikoak, etab.
 - Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
 - Enpresaburu izatearen abantailak eta eragozpenak bilduko dituen taula egitea.
 - Sectorean alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.

- Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.
- ✓ Enpresa-ideiak garatzea:
 - Merkatuaren beharrei erantzungo dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.
 - Lan-taldeak sortzea eta horiek garatu beharreko ideiak hautatzea.
 - Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilia, etab.
 - Hautatutako negozioarako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
 - Ideiari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.
 - Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.
- ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea:
 - Ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
 - Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).
 - Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
 - Internet erabilia, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
 - Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.
- ✓ Administrazio-izapideak aztertu eta betetzea:
 - Diruzaintzako plan bat aztertzea: emaitzen kontua eta egoera-balantzea.
 - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
 - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak eta letrak, besteak beste.

14. lanbide-modulua

LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Lantokiko prestakuntza
Kodea:	0023
Heziketa-zikloa:	Haur-hezkuntza
Maila:	Goiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	360 ordu
Kurtsoa:	2.a
Kreditu kop.:	22
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte esku-hartzea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea) Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Lanbide-profilari lotua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Merkatuaren ezaugarriak (bezeroak, hornitzaileak eta zerbitzuak, besteak beste) enpresaren jardueretan duten eragina interpretatu du.
- Produkzioaren testuinguruan enpresaren egoera zein den jakiteko bidea ematen duten parametroen balioak interpretatu ditu (produktibitatearenak eta zerbitzuaren kalitatearenak, besteak beste).
- Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- Zerbitzugintza aztertu eta gero, haren alderdi positiboak eta negatiboak finkatu ditu.
- Enpresaren jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko kompetentziak baloratu ditu.
- Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideak identifikatu ditu eta horien egokitasuna baloratu du.
- Enpresaren egiturak beste mota bateko enpresa-erakundearen aldean dituen abantailak eta eragozpenak adierazi ditu.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- Aintzat hartu eta justifikatu ditu:

- Lanpostuan beharrezkoa den pertsonal- eta denbora-eskuragarritasuna.
 - Jarrera pertsonalak (puntueltasuna, enpatia...) eta profesionalak (lanposturako beharrezko ordena, garbitasuna, erantzukizuna...).
 - Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
 - Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
 - Lan-taldearekiko harreman pertsonalen garrantzia.
 - Datuen babesa eta informazioaren isilpekotasuna errespetatzeak duen garrantzia.
 - Lan-talde barruko eta enpresan ezarritako hierarkiekiko harreman-jarrerak.
 - Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
 - Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.
- b) Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko etengabeko prestakuntzaren beharra baloratu du.
 - c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen eta enpresaren arauen arabera erabili du norbera babesteko ekipamendua.
 - d) Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez lanbide-jardueran aplikatu beharreko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak identifikatu ditu.
 - e) Garatutako jardueretan, ingurumena errespetatzeko jarrera argia izan du, eta horrekin lotutako barruko eta kanpoko arauak aplikatu ditu.
 - f) Lanpostua edo jarduera garatzeko eremua antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du.
 - g) Jasotako argibideak interpretatu eta bete ditu, eta zuzendu zaion lanaz arduratu da.
 - h) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldekideekin komunikazio eta harreman eraginkorra ezarri du, eta haiekin tratu erraza eta zuzena du.
 - i) Gainerako taldekideekin koordinatu da, eta edozein aldaketaren, behar garrantzitsuren edo ezustekoren berri eman du.
 - j) Dagokion jardueraren garrantzia baloratu du. Zerbitzugintzaren barruan zuzendutako zereginetan izan diren aldaketetara eta eginkizun berrietara egokitu da.
 - k) Edozein jarduera edo zereginetan, arauak eta prozedurak arduraz aplikatzeko konpromisoa hartu du.

3. Hurrei zuzendutako jarduerak programatzen ditu. Horretarako, bera sartuta dagoen erakundea antolatzen duten dokumentuetan ezarritako jarraibideak betetzen ditu eta zentroko talde arduradunarekin lankidetzan aritzen da.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lantokiaren berezko ezaugarriak eta bertan garatzen d(ir)en program(ar)enak identifikatu ditu.
- b) Programaren hartzailerei buruzko informazioa lortu du.
- c) Eskura dituen giza baliabideak eta materialak kontuan izanda, proposamen bat zehaztu du.
- d) Haurren ezaugarrietara egokitutako jarduerak proposatu ditu.
- e) Helburuekin eta hartzailerekin bat datozen esku hartzeko estrategiak hautatu ditu.
- f) Egin beharreko esku-hartzearen ebaluazioa diseinatu du.

4. Hurrei zuzendutako jarduerak abiarazten ditu. Horretarako, programazioan ezarritako jarraibideak betetzen ditu eta haurren ezaugarrietara egokitzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esleitutako haur-taldearen ezaugarriak identifikatu ditu.
- b) Esleitutako testuinguruaren ezaugarriak zehaztu ditu, baliabide eta teknika egokiak erabilia.
- c) Espazioak antolatzeko, programazioan ezarritako irizpideei jarraitu die.
- d) Denbora banatzeko, programazioan ezarritako jarraibideak eta bakoitzaren erritmoak errespetatu ditu.
- e) Baliabideak aurreikusitako irizpide metodologikoen arabera hautatu ditu.
- f) Estrategia metodologikoak aplikatu ditu.
- g) Adeitasun eta konfiantzazko giroa lortu du.
- h) Gatazkak kudeatzeko estrategiak aplikatu ditu.
- i) Gertaeren aurrean behar bezala erantzun du.
- j) Jardueraren kontrola eta jarraipena egin du.

5. Programak eta jarduerak ebaluatzen ditu, lan-taldean esku hartzen du, eta prozesuan eta esku-hartzean kalitatea ziurtatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazio-jarduerak eta horiek aplikatzeko uneak zehaztu ditu.
- b) Lan-ingurunea ebaluatu du, eta enpresaren antolamendu- eta funtzionamendu-esparruan lan-harremanak identifikatu ditu.
- c) Ezarritako ebaluazio-tresnak aplikatu ditu, eta, beharrezkoa izan denean, proiektua, jarduera edo berorren esku-hartzea aldatu du.
- d) Ebaluazio-txostenak prestatu ditu. Horietan, bere esku-hartzearen ondorioz haurrengan izandako aldaketak jasotzen ditu.
- e) Bildutako informazioa antolatzeko, ezarritako bideei jarraitu die.
- f) Bildutako informazioa jakinarazi du eta, horri esker, lan-taldeak erabakiak hartu ahal izan ditu.
- g) Berorren esku-hartzeari buruz egindako gogoetan, garatutako ezagupenak, trebetasunak eta jarrerak aplikatu izana baloratu du.

c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak

Jarraian, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituzten zenbait lan-egoera adierazten dira:

- ✓ Enpresaren antolamendu-egitura aztertzea:
 - Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzea.
 - Enpresaren jarduerak garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzea.
- ✓ Komunikazio operatiboko eredu-zko dokumentuak eta jardunak betetzea.
- ✓ Segurtasun- eta higiene-plana", eta horretarako baliabideak eta gailuak aztertzea.
- ✓ Kalitate-plana" eta horrek haur-hezkuntzako enpresan dituen emaitzak aztertzea.
- ✓ Eskuragarri dagoen dokumentazio teknikoaren arabera zehaztea haurrentzako arretaren inguruko programaziorako, hezkuntzako esku-hartzerako eta programen ebaluaziorako beharrezkoak diren giza baliabideak, bitarteko osagarriak eta materialak.
- ✓ Haurren garapenerako jarduera egokiak planifikatzen parte hartzea, adina kontuan izanda eta proposatutako eredu didaktikoaren arabera.



- ✓ Esleitutako jardueren programazioa prestatzea: espazioak egokitzea, beharrezko materiala hautatzea eta beharrezkoak diren denbora-baliabideak erabiltzea.
- ✓ Esleitutako jardueren garapenean esku hartzea: esleitutako hurrekin harreman-lotura egokiak ezartzea (afektiboak, arauzkoak, nortasunekoak), eta aurreikusitako teknikak proiektuaren edo jardueraren garapenerako modu egokian aplikatzea.
- ✓ Oinarrizko portaera-errepertorioak lortzeko programa egokia prestatzen parte hartzea.
- ✓ Ezarritako ebaluazio-tresnak prestatu eta aplikatzea.
- ✓ Ikasleak lantokian egindako egonaldiaren inguruko esperientzia aztertzea, baloratzea eta horren ondorioak aditzera ematea.
- ✓ Lanbide-orientazio pertsonala aztertzea, lantokian izandako esperientziaren arabera.

4 GUTXIENKO ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

4.1 Espazioak

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	AZALERA (m ²) / 30 IKASLE	AZALERA (m ²) / 20 IKASLE
Balio anitzeko gela	60	40
Gizarte- eta kultura-zerbitzueta lantegia	120	90

4.2 Ekipamenduak

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Balio anitzeko gela	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko ekipoak. - Sarean instalatutako PCak, Internet-sarbidearekin.
Gizarte- eta kultura-zerbitzueta lantegia	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko ekipoak. - Sarean instalatutako PCak, proiektzio-kanoiak eta Internet. - Argiztapen eszenikorako oinarritzko ekipoa. - Lehen laguntzetako manikiak (heldua eta haurtxoa). - Haurren zaintza, higiene eta elikadurarako instalazioak eta materialak. - Psikomotrizitateko materiala. - Jolas egituratuetako materiala. - Adierazpen erritmiko-musikalerako materiala. - Adierazpen dramatikorako materiala. - Antzezpen-materiala. - Adierazpen plastikorako materiala. - Arrazoibide logiko-matematikorako materiala. - Ahozko adierazpenerako materiala. - Sentsopertzepziorako materiala.

5 IRAKASLEAK

5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena Haur Hezkuntzako heziketa-zikloko lanbide-moduluetan

LANBIDE MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOIA
0011. Haur-hezkuntzaren didaktika	Gizarte esku-hartzea	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0012. Haurren autonomia pertsonala eta osasuna	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa

0013. Haur-jolasa eta bere metodologia	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0014. Adierazpena eta komunikazioa	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0015. Garapen kognitiboa eta motorra	Gizarte esku-hartzea	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0016. Garapen sozioafektiboa	Gizarte esku-hartzea	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0017. Gizarte-trebetasunak	Gizarte esku-hartzea	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0018. Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea	Gizarte esku-hartzea	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0019. Haurrei arreta eskaintzeko proiektua	Gizarte esku-hartzea Gizartearentzako zerbitzuak	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0020. Lehen laguntzak	Osasun eta laguntzako prozedurak Irakasle espezialista	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
E-200. Ingeles teknikoa	Ingelesa	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0021. Laneko prestakuntza eta orientabidea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0022. Enpresa eta ekimen sortzailea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0023. Lantokiko prestakuntza	Gizarte esku-hartzea Gizartearentzako zerbitzuak	Bigarren Irakaskuntzako irakaslea Lanbide Heziketako irakasle teknikoa

6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

"HAUR HEZKUNTZA" HEZIKETA ZIKLOKO LANBIDE MODULUAK (LOGSE 1/1990)	"HAUR HEZKUNTZA" HEZIKETA ZIKLOKO LANBIDE MODULUAK (LOE, 2/2006)
Haur-hezkuntzaren didaktika	0011. Haur-hezkuntzaren didaktika
Norberaren autonomia eta osasuna	0012. Haurraren autonomia pertsonala eta osasuna
Jolasaren metodologia	0013. Haur-jolasa eta bere metodologia
Adierazpena eta komunikazioa	0014. Adierazpena eta komunikazioa
Garapen kognitiboa eta motorra	0015. Garapen kognitiboa eta motorra
Garapen sozioafektiboa familiekin lankidetzan arituz	0016. Garapen sozioafektiboa
Talde-dinamika eta -animazioa	0017. Gizarte-trebetasunak
Lantokiko prestakuntza	0023. Lantokiko prestakuntza

7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZAGARRITASUN ETA EGOKITASUN LOTURAK

7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko

KONPETENTZIA ATAL EGIAZTATUAK	BALIOZKOTU DAITEZKEEN LANBIDE MODULUAK
UC1027_3: Hezkuntza-komunitatearekin harreman arinak ezartzea eta harreman horiei eustea, eta familiekin, hezitzaile-taldearekin eta bestelako profesionalekin koordinatzea.	0017. Gizarte-trebetasunak
UC1028_3: Ikastetxerako eta haur-taldeentzako hezkuntzako esku-hartze prozesuak programatu, antolatu eta ebaluatzea.	0011. Haur-hezkuntzaren didaktika
UC1029_3: Autonomian eta osasunean ohiturak hartzeko eta trebatzeko programak, arrisku-egoeretan esku hartzeko beste programa batzuk garatzea.	0012. Haurraren autonomia pertsonala eta osasuna
UC1030_3: Haurren jardueraren eta garapenaren ardatz gisa, jolas-egoerak sustatu eta abian jartzea.	0013. Haur-jolasa eta bere metodologia
UC1031_3: Hazkunde pertsonalerako eta profesionalerako bitarteko gisa, haurraren adierazpen- eta komunikazio-baliabideak garatzea.	0014. Adierazpena eta komunikazioa
UC1032_3: Objektuak ukituta, eta haurren arteko eta helduekiko harremanen bidez ingurunea miatzea errazten duten ekintzak garatzea.	0016. Garapen sozioafektiboa 0018. Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea
UC1033_3: Ikaskuntzak zehaztu, sekuentziatu eta ebaluatzea, eta zero eta sei urte bitarteko haurraren garapenaren testuinguruan interpretatzea.	0015. Garapen kognitiboa eta motorra

(*) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 66.4. artikuluan xedatutakoaren arabera baliozkotu ahal izango da.

7.2 Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

LANBIDE MODULU GAINDITUAK	EGIAZTA DAITEZKEEN KONPETENTZIA ATALAK
0017.Gizarte-trebetasunak	UC1027_3: Hezkuntza-komunitatearekin harreman arinak ezartzea eta harreman horiei eustea, eta familiekin, hezitzaile-taldearekin eta bestelako profesionalarekin koordinatzea.
0011.Haur-hezkuntzaren didaktika	UC1028_3: Ikastetxerako eta haur-taldeentzako hezkuntzako esku-hartze prozesuak programatu, antolatu eta ebaluatzea.
0012.Haurren autonomia pertsonala eta osasuna 0018.Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea	UC1029_3: Autonomian eta osasunean ohiturak hartzeko eta trebatzeko programak, arrisku-egoeretan esku hartzeko beste programa batzuk garatzea.
0013.Haur-jolasa eta bere metodologia	UC1030_3: Haurren jardueraren eta garapenaren ardatz gisa, jolas-egoerak sustatu eta abian jartzea.
0014.Adierazpena eta komunikazioa	UC1031_3: Hazkunde pertsonalerako eta profesionalerako bitarteko gisa, haurren adierazpen- eta komunikazio-baliabideak garatzea.
0016.Garapen sozioafektiboa 0018.Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea	UC1032_3: Objektuak ukituta, eta haurren arteko eta helduekiko harremanen bidez ingurunea miatzea errazten duten ekintzak garatzea.
0015.Garapen kognitiboa eta motorra	UC1033_3: Ikaskuntzak zehaztu, sekuentziatu eta ebaluatzea, eta zero eta sei urte bitarteko haurren garapenaren testuinguruan interpretatzea.



koalifikazioen eta
lanbide heziketaren
euskal institutua

Instituto vasco de
cualificaciones y
formación profesional

Lehendakari Agirre, 184 • 48015 BILBAO
Tfno.: 94 447 40 37 • Fax: 94 447 38 62
e-mail: kei.ivac@euskalnet.net
www.kei-ivac.com



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LANBIDE HEZIKETAKO ETA ETENGABEKO
IKASKUNTZAKO SAILBURUORDETZA
VICECONSEJERIA DE FORMACION
PROFESIONAL Y APRENDIZAJE PERMANENTE